

Kazetaritza II Saila

NAZIOARTEKO DOKTOREGO TESIA INTERNATIONAL DISSERTATION

DIASPORAK NAZIOARTEKO HARREMANETAN: komunikazioa eta harreman transnazionalak Euskal Herriaren eta Estatu Batuetan diren Euskaldunen artean

DIASPORAS AND INTERNATIONAL RELATIONS: communication and transnational relations between the Basque Country and the Basque communities in the United States



Maialen Goirizelaia Altuna

Zuzendariak:
Leire Iturregui Mardaras
Leire Moure Peñín

Leioa, 2019 urteko urtarrilaren 7a

Tesi portadan agertzen den irudia gure aitxitek, Luis Altunak, egin zuen 1937 urtean, italiar hegazkinek Durango bonbardeatu eta bere aita erahil ondoren, ama eta amonarekin Frantziara joan behar izan zuenean.

Tesi lan hau ez da bakarrik Espainiar Gudu Zibilean sorterrria atzean utzi eta erbestean bizi behar izan zutenei buruz. Lan honetan kabida dute arrazoi desberdinengatik jatorrizko herritik berri batera joan behar izan dutenek, herri garatu eta multikultural bat sortzeko bidean, inoiz euren identitatea ahaztu ez eta loturak mantentzen jarraitzen dutenek.

Migrazio mugimenduek mundu global eta konektatu bat sortzen dute, non, batzuk mila kilometrora egon arren, bihotzetik gertu dauden (BTX).

**Mila esker portada hau egiteko (eta beste hainbeste gauzetarako) bere denbora oparitu didan lagun min Ismeneri.*

The image on the cover was made by our grandfather in 1937, when he found his father dead after the Italian airplanes bombed Durango. Along with his mother and grandmother, he then had to leave the Basque Country for France.

This work is not just about those who had to emigrate during the Spanish Civil War and live in exile. It is also about anyone who for any reason had to leave their homeland, but still maintains a connection to their home country and their identity.

Migratory movements help in the construction of a global world, in which, even though we are sometimes far away from home, we are connected within our hearts.

*Zuori,
Aita eta Ama*

*Izan ere, "...urrunago ikusteko aukera izan badut, erraldoien sorbaldetan
igota nagoelako izan da"*
-Newton

Lan hau aurrera eramateko Euskal Herriko Unibertsitateko euskara errektoreordetzak eskeintzen duen doktorego aurreko ikertzaileentzako beka bat izan dugu 2015 urteko azarotik 2019 urteko otsailera arte. Bide honetan Bitartez Ikerketa Taldearen laguntza ezinbestekoa izan da, ekarpenak nazioarteko kongresuetan aurkezteko eta argitalpenak aurrera eramateko.

Ezin izango nuke inolaz lan hau egin, nire zuzendari den Leire Iturregigatik izango ez balitz, zeinek, beka lortu baino lehenagotik ere, nigan sinesten zuen.

Aurkibidea/ Index

<i>Eskerrak</i>	15
-----------------------	----

HASTEKOAK

Sarrera

LEHEN ATALBURUA

Sarrera	23
1.1 Helburuak	25
1.2 Hipotesiak.....	26
1.3 Metodologia	27
1.3.1 Datu kualitatiboak	
1.3.1.1 <i>Literatura irakurketa, dokumentuak eta artxiboko datuak</i>	
1.3.1.2 <i>Sakoneko elkarrizketak</i>	
Homeland Diaspora	
Diaspora Homeland	
1.3.1.3 <i>Behaketa partehartzailea</i>	
1.3.1.4 <i>Diaspora sareen analisia</i>	
1.3.2 Datu kuantitatiboak	
1.3.2.1 <i>Inkesta</i>	
1.4 Gaiaren egoera	38
1.4.1 Euskal migrazioa	
1.4.2 Diaspora, euskal diaspora, affinity diaspora eta euskal affinity diaspora	
1.4.3 Diaspora, harreman publikoak eta diplomazia	
1.4.4 Komunikazio (bideak)	
1.4.4.1 <i>Homeland diaspora</i>	
1.4.4.2 <i>Diaspora homeland</i>	
1.5 Lanaren antolaketa	59
1.6 Synopsis or abridgement in English	61

ULERTZEKOAK
Theoretical framework

CHAPTER 2

Diaspora.....	81
2.1 From defining just some groups, to the “diaspora” diaspora” to the lack of an agreed upon definition.....	81
2.2 Three different ideas.....	82
2.3 Who is part of a “diaspora” or a “diaspora member”?	84
2.4 Reasons for migrating create types of diaspora.....	85
2.5 Basque diaspora	87
2.5.1 Avoiding use of the word diaspora?	89
2.5.2 Introducing the word in our literature.....	90
2.5.3 Adding some types	90
2.6 Diaspora strategies	91
2.6.1 How to connect and the importance of networking.....	93
2.7 One foot in each country	94

CHAPTER 3

Public Relations	97
3.1 Public Relations to create.....	97
3.1.1 Public Relations: second class discipline?	99
3.1.2 How to obtain what we want.....	100
3.2 International Public Relations	101
3.2.1 How to find our place internationally.....	101

CHAPTER 4

From traditional diplomacy to Public Diplomacy	103
4.1 The evolution of Public Diplomacy.....	103
4.1.1 Overcoming the mistrust between countries	105
4.1.2 Adding new actors and activities.....	107
4.1.3 Regions finding their place.....	108
4.1.4 The role of diasporas in international relations	109
4.2 Activities	112
4.3 Future diplomacy.....	113

AZTERTUTAKOAK: HIRUGARREN ATALA
Euskal Herriaren eta kanpoan den Euskal komunitatearen arteko
komunikazioaren eta harremanaren eboluzioa

BOSTGARREN ATALBURUA

Euskal migrazioa eta diaspora	119
5.1 Euskal migrazioa	120
5.1.1 Arrazoiak	122
5.1.2 Helmugak	125
5.2 Euskaldunak Estatu Batuetan. Datuak: geografikoak	130

SEIGARREN ATALBURUA

Homeland diaspora komunikazioa.....	135
6.1. Munduan	136
6.1.1 Medio eta Komunikabideak	
6.1.2 Gobernua	
6.2 Euskal Herrian	140
6.2.1 1937-1986: Euskal Herria eraikiz	141
6.2.2 1986-1994: Lehen pausuak.....	147
6.2.3 1994-gaur egun: Estrategia finkatua	150
6.2.3.1 Ekimen instituzionalak	
6.2.3.2 Komunikabideak	
a) Telebista: EITB-ren nazioarteko kateak	
b) Egunkari eta egunkari digitalak	
c) Medio espezializatua: Euskalkultura.com	
6.2.3.3 Dibulgaziorako lanak.....	175
6.2.3.4 Teknologia berriak	180

ZAZPIGARREN ATALBURUA

Diaspora homeland komunikazioa.....	189
7.1 Munduan	189
7.1.1 Diaspora elkarteak	190
7.1.2 Diaspora ekintzak	191
7.1.3 Diaspora medioak.....	192
7.2 Euskal Herrian	193
7.2.1 Komunikazio eta medioak.....	193
a) Aldizkariak, irratia, telebista eta medio digitalak	
b) Internet eta sare sozialak	
7.2.2 Harremana mantendu, askotan harreman publikoen bidez.....	207
7.2.2.1 Diaspora elkarteak: kofradiak, boarding houseak,	
Euskal etxeak eta frontoiak	

7.2.2.2 Diaspora ekintzak: jaialdiak, udalekuak, eskolak eta diaspora sareak

Jaialdiak

- a) The Western Basque Festival: "A profitable event"
- b) Holiday Basque Festival: "Seeds for the future"
- c) Boiseko Jaialdia: "The new Mecca for the Basques"
- d) Smithsonian Folklife Festival: "Promoting the Basque Country"
- e) New London Basque Festival: "Never forget where you come from"

Udalekuak

7.3 Hirugarren ataleko konklusioak	230
--	-----

LAUGARREN ATALA

CHAPTER 8

Diaspora Networks	237
8.1 Basque diaspora networks.....	241
8.1.1 From the diaspora	243
8.1.1.1 Emergence of the first networks: familial and cultural networks	
8.1.1.2 Emergence of other networks: academic and business networks	
a) Educational network: Basque identity within an academic context	
b) Business network: first finding a job in the new world, after connecting the new and old worlds	
8.1.1.3 Basque American Festivals: from cultural showcases to the interaction of the four networks and the place to create transnational relations	
8.1.2 For the diaspora	264
8.1.2.1 Eusko Sare: creating on line communities.	
8.1.2.2 Pentsamendua: integrating the thinking of the Basque diaspora	
8.1.2.3 GlobalBasque Network: Basque Country Internalisation Strategy 2020	
8.1.2.4 Bizkaia Talent: "Using identity to create business"	
8.1.2.5 Basque diaspora Akademikoa: roots in the Basque Country, branches all around: "Eman ta Zabal Zazu"	

8.1.2.6 For diaspora networks: the answer from the diaspora

8.2 Conclusion.....	278
---------------------	-----

EXPLORATORY STUDY

CHAPTER 9

Comparative exploratory study.....	281
9.1 Basques in the West: older generations and cultural relations	284
9.1.1 Data, communication and media	
9.1.2 Diaspora organization and activities: boarding houses, food, dance and festivals	
9.1.3 Diaspora networks	
9.2 Basques on the Northeast Coast and Mid-Atlantic states: old and new migrations	290
9.2.1 Data communication and media	
9.2.2 Diaspora organization and activities: still Basque centers, food and language	
9.2.3 Diaspora networks	
9.3 Basques in Florida: following a dream	297
9.3.1 Data, communication and media	
9.3.2 Diaspora organization and activities: frontons, Jai Alai and language	
9.3.3 Diaspora networks	

COMMENCEMENT: AMAIERA IZANGO DA HASIERA Conclusions

CHAPTER 10

Conclusions	309
*Ondorioak euskaraz	324

<i>Lehen eskuko iturriak</i>	<i>333</i>
<i>Bibliografia.....</i>	<i>345</i>
<i>Gehigarriak.....</i>	<i>369</i>

Eskerrak

Zorteduna naiz.

Zorteduna naiz lagundu didaten guztien izenak orri hauetan sartzen ez direlako.

Banekien euskaldunok langile, laguntzaile, eskuzabal eta leial izatearen fama geneukala. Enekien, ordea, leialtasun eta laguntasun hori zein puntutara arte iritsi zitekeen. Lan honek erakutsi dit euskal mundua ez dela inondik inora geografikoki Euskal Herria kokatzen den lurretara mugatzen. Euskal mundua, mundu osora zabaltzen dela, eta horrela egiten dutela baita ere, arestian aipatu ditudan ezaugarriok. Duda barik, euskal diasporako kideei zor diet lanaren parte handi bat, beti laguntza eskatu diedanean eman didatelako, bai elkarrizketak egiterakoan, bai kontaktuak ematean eta erraztean, bai lana zabaltzean, bai euren elkarrekin parte izaten uztean eta baita ere euren etxeetako ateak zabaltzean. Bostonen, New Yorken, Boisen, Kalifornian, Danian edota La Platan betirako lagun bihurtu zareten horiei. Tesi hau egiten lagundu eta zabaltzeagatik....Thank you, muchas gracias. Esker bereziak Bostoneko lagunei, Kattalina eta Briani, zuon munduko parte izaten uzteagatik. Dania Casinoko pilotari eta euren bikoteei lana dibertimendu eta dibertimendua lan bihurtzeagatik. Bizirako esperientzia ezinhobe eta ahaztezina oparitzeagatik.

Boise State University and all the workers of the Basque Museum and Cultural Center. Harvard University, the Graduate School of Arts and Science and The Government Department, thanks for accepting me and giving a knowledge that would always be with me.

Gloria, for lighting what was already in me, for sharing your knowledge and helping me so much. You are one of the seeds of this work. Herman y Laura, por vuestra compañía que siempre he notado presente, aun estando en Seattle.

Steve eta Laurie Ansolabeheri, ez dut inoiz zuok eskertzeko hitz nahikoa izango.

Thanks a lot Laurie, for your strength, your way of being, and treating me as a family

member.Rebecca eta Juliari. Steve, ESKERRIK ASKO ate hau zabaldu eta Bostonen familia bat daukadala erakusteagatik. You are, without a doubt, the perfect example of my dissertation.

Ibilbide honetan oso garrantzitsua izan da Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia. Asier, Benan, Naiara, Maribel, Andoni , Manu, Eneritz, Joseba eta Joni. Eskerrik asko Benan tesiaren azken puntuak begiratzten igarotako orduengatik. Egun Zuzendari den Gorkari, egindako lan eta atentzioagatik. Zuzendari izan den Josu Legarretari, elkarrizketa, dei, mezu, erantzun eta informazioagatik. Euskal Herritik kanpo bizi diren euskaldunekin harremana duzuen guztioi, bai unibertsitateko irakasle edo instituzioetako ordezkari, zuon jakinduria nirekin elkarbanatu eta solasaldi ederrak eta aberasgarriak konpartitzeagatik.

Nire kuadrilari eta lagunei, entzuteagatik eta ez entzuteagatik, baina batez ere, behar izan dudanean nirekin kalimotxo hori hartzeagatik. Nire ekarpen txikiak beti arretaz irakurri eta konpartizeagatik.

Amilotx Dantza Taldeko lagunei, bidean bat egin eta askotan ikerlariak ere bihurtu izan zaretelako.

Kazetaritza II Saileko lankideei eta Koldo zuzendariari, antolatutako gauzetan parte hartzen uzteagatik eta beti ni gogoan izateagatik. Esker bereziak Tania, Asier, Montse eta Eneari, gure kafe, bazkari eta gomendioengatik. Telefonoa beti barre batekin erantzun, eta nire dudak argitzeagatik. Bulegoko kide eta lankide on Mariari. Irati, zure alaitasun, indar, freskotasun eta interes amaigabeagatik. Ana, zure pazientzi, prestutasun eta zorrotasunagatik, ea hirugarren belaunaldiak ere, zu zaituen idazkari. Josu Amezagari, edozein laguntza eskatu dizudanean, beti laguntzeko prest egon zarelako.

Ikerketa talde osoari baina bereziki Mari Joseri. A ti Mari Jose, mi abuela universitari, por confiar en mí desde el primer momento en el que puse un pie en la Universidad. Por hacerme creer en lo que hago y enseñarme tanto.

A Leire M., por estar en este camino desde el principio y buscar un hueco para ayudarme.

Nire zuzendari, lankide, lagun, mentore eta erreferenteari: Leire. Nigan sinesteagatik nik egin dudana baino askoz gehiago. Guztiari alde positiboa ikusteagatik eta zure ahotik beti hitz positiboak eta aurrera pausuak emateko aukerak irten direlako. Konklusioak ateratzeko zure gaitasunari eta guztiz goitik behera dagoen mundu batean ordena topatzeagatik.

Nire familia politikoari, Asier, Edoia eta Jose Luisi.

Familia guztiari.

Nire lau hankei. Beti gogoan. Atzo, gaur eta bihar. Ez da egun bat ere pasatzen zuokin oroitzen ez naizena. Bakoitzak eman didazuelako, bizi honetan beharrezkoa dena: karakterea, leialtasuna, lan egiteko grina eta maitasuna.

Nire neba Ikerreri, nirekin beti izan duzun pazientziagatik. Zure babes eta maitasun amaigabeagatik.

Nire koinata eta lagun Hodeieri, eskerrik asko inork emon doztezen opari onenak emoteagatik. Beste maitasun bat existiduten dala irakatsi doztien Manex eta Txabiri.

Amatxu, gracias por escucharme siempre con interés, ayudarme e involucrarte en esta tesis tanto como yo.

Aita, hasieratik mundu honetan sartzera gonbidatzeagatik, nire gaitasunetan sinesteagatik eta askotan nire buruko minen ibuprofenoa izateagatik. Zure parte hartze aktiboagatik baina, batez ere, nire barruak uzten izteagatik, tesiaren norabidean oztopoak topa ditudanean.

“Amar es dejar crecer”. Maitatzea, hazten uztea da. Zuri Ander, hasteko behar izan ditudan hegoak emateaz gain, beti nire alde bultzatu duen haize izateagatik.

HASTEKOAK

Sarrera

The New Colossus

1

*Not like the brazen giant of Greek fame,
With conquering limbs astride from land to land;
Here at our sea-washed, sunset gates shall stand
A mighty woman with a torch, whose flame
Is the imprisoned lightning, and her name
Mother of Exiles. From her beacon-hand
Glows world-wide welcome; her mild eyes command
The air-bridged harbor that twin cities frame.
"Keep, ancient lands, your storied pomp!" cries she
With silent lips. "Give me your tired, your poor,
Your huddled masses yearning to breathe free,
The wretched refuse of your teeming shore.
Send these, the homeless, tempest-tost to me,
I lift my lamp beside the golden door!"*

Emma Lazarus

November 2, 1883

¹Statue of Liberty-ra heltzean Emma Lazarusen poesia hau ikusi daiteke.

LEHEN ATALBURUA

SARRERA

***“Thanks to you, the whole world has become a little more Basque,
and we Basques, belong more to the whole world”***

(Ardanza Lehendakaria, 1995 urteko Euskal Kolektibitateen Mundu
Biltzarrean)

This is a study about how cultural and local relations affect the global world relations. 80-90 years ago, people left their homes in Europe and travel mostly to the United States. People capted those cultures to their lives in countries all over the world, and as we develop a global economy, those ties to local cultures are the natural ties though which the global economy develops.

They are the natural way to make communication happen and they can also strengthen and there are the natural vehicle for the development of a global economy but also strengthen the local culture in the original. This thesis focuses on the Basque Country and its connections to the United States, but the Basque situation very strong resembles to many other communities that

would also use these ancient ties to enforce the actual relations, such as the Armenian, Greek, or Croatian communities that starting in the late 19th and early 20th century left their home countries in search of a better life.

Identity and culture are seen to be as the catalyst in other kind of relations that affect the global world. Using different kind of activities such as cultural centers, language schools, churches, festivals and relief organizations...these communities maintain their culture but also develop a global culture being part of the new country. They would be both part of the old and new country as transnational people. This study shows the importance of these cultures and how years later, they still serve as connectors.

Ikerketa honen helburu nagusia da Euskal Herriaren eta kanpoan den euskal komunitatearen artean izan den komunikazioaren azterketa egitea. Migrazioa beti egon da presente Euskal Herriaren historian. Migrazio hori bi erataraz egaratu ahal izan dugu, hau da, Euskal Herria herri jasotzaile moduan (immigrazioa), non Bizkaiako ezker aldea, bere industriarekin Altos Hornos, kasu, izan den protagonista; edota Euskal Herria migrazio igorle moduan, emigratu egin duenean, batez ere, eskuin aldea eta nekazaritza zonaldeak. Bizitako emigrazio horren ondorioz, euskal komunitateak sortu diran mundu zabaleko hainbat lekutan. Harreman guztietan komunikazioa beharrezkoa eta ezinbestekoa da, eta kanpoan bizi diren euskal komunitateen eta Euskal Herriaren kasuan ere, berdina gertatu da. Horrela, beti izan da bai alde batetik zein bestetik komunikazio hori mantentzeko beharra eta interesa. Ikerketa honen helburu nagusia kanpoan bizi diren euskaldun horien eta Euskal Herriaren arteko komunikazioa nolakoa izan den aztertzea izango da. Horretarako komunikazio hori Euskal Herriatik sortu denean eta komunikazio hori diasporako kideen eskutik sortu denean aztertuko da.

Totoricaguenak (1999) dio komunikazio globalak Euskal Herriatik diasporarako komunikazioa erraztu duela bai Euskal Herriarekin bai eta beste diaspora batzuekin (komunikazio horizontala). Bere hitzetan komunikazio horretan berebiziko garrantzia izan dute Euskaltelebistak, Euskal Etxeak aldizkariak eta korrespondentzia pertsonal elektronikoen bidezko komunikazioak (Totoricaguenak, 1999). Ikertuko ditugun tresnen artean Totoricaguenak aipatzen dituen horiek daude.

Horrela, ikerketa lan honen bidez munduan zehar bidaiatzea planteatzen dugu eta euskal migrazioaren nondik norakoak ezagutzeko aukera ematen dugu. Gainera, Euskal Herriaren eta euskal diasporaren arteko komunikazioaren eboluzioa eta komunikazio honetan Eusko Jaurlaritzak, euskal komunikabideek eta kanpoan bizi den euskal komunitateek, internetek eta sare

sozialek nolako eragina izan duten azalduko dugu. Horrez gain, Estatu Batuetan bizi diren euskaldunak irudikatzeko aukera emango dugu eta hauek Estatu Batuak eta Euskal Herriaren arteko harremanean izan duten eragina aztertuko dugu. Euskal diasporako kideek antolatzen dituzten harreman publikoetako ekintzen bidez, diplomazia publikoko agente bihurtuko direla ikusi al izango dugu eta horretarako aztertuko ditugu errealak eta eguneratuak diren adibideak. Amaitzeko, ikerketa esploratorio bat proposatzen da, zeinetan, lan osoan zehar aztertutakoa aplikatuko den Estatu Batuetan diren euskal komunitate desberdinak aztertzeke.

Ikerketa lan honetan aurretik egin ez den lan bat egin da eta batera jarri dira diaspora, harreman publikoak eta diplomazia alorrak. Hiru gaiak uztartzen dituen erreferenterik ez dagoenez, lanak bere zailtasunak izan ditu, baina era berean, erronka polita izan da. Ez da erraza izan metodologia zehaztea lehen aldiz planteatzen delako hiru ikerketa eremuko elkarlana eta, hori dela eta, planteamendu berritzailea da hau. Lan honek tesiari balio handia eman diola uste dugu, metodologia balidatzen du eta, gure azken atalburuan euskal kasuarekin egin dugun moduan, etorkizunean beste diaspora batzuekin egin daitezkeen lanetan lehen pausuak eman ditzakeela uste dugu.

1.1 Helburuak

Ikerketa lan honek helburu nagusi bat du, hau da, Euskal Herriaren eta Estatu Batuetan den euskal diasporaren arteko komunikazioa eta harremana aztertzea. Euskal Herriari buruz ari garenean, batez ere Eusko Jaurlaritza eta euskal komunikabideei buruz arituko gara, eta, diasporari buruz ari garenean, diasporako instituzio eta indibiduoek buruz.

Helburu nagusi horretatik irtengo dira gure gainontzeko helburuak:

1. Ezagutu Estatu Batuetan bizi diren euskaldunen profila, Euskal Herriarekin duten lotura eta hauen arteko komunikazio tresnak identifikatu, kategorizatu eta aztertu, bai Euskal Herriatik diasporara zuzendurikoak zein diasporatik jatorrizko herrialdera bideratuak.
2. Ikertu Euskal Herriaren eta euskal diasporaren arteko harremanean zein paper jokatu duten harreman publikoetako ekimenek, adibidez, Estatu Batuetako euskal komunitateek antolatzen dituzten jaialdiak eta Euskal Herrian antolatzen diren kongresuak.
3. Ezagutu Estatu Batuetan bizi diren euskaldunek Euskal Herriko albisteak jasotzeko interesik duten, nola jasotzen

dituzten eta zein komunikabide eta egunkari kontsumitzen dituzten.

4. Euskal Herriaren eta euskal diasporaren arteko harremanean eta komunikazioan internetek izan duen eragina ezagutu.
5. Euskal diaspora sareak aztertu eta sare desberdinek nola interaktuatzen duten ezagutu.
6. Ikertu euskal diasporak zein paper jokatzeko duen Euskal Herriak Estatu Batuetan duen irudian eta ikusi diplomazia publikoko agente kontsideratu daitekeen.

1.2 Hipotesiak

Ikerketa lan hau aurrera eramateko ondorengo hipotesiak planteatu dira:

1. Estatu Batuetan euskal jatorria duten gehiengoak hirugarren belaunaldikoak dira eta Bizkaikoak.
2. Estatu Batuetan bizi diren euskaldunek Euskal Herriarekin duten lotura, batez ere, familiarra eta kulturala da.
3. Harremana eta komunikazioa mantentzeko interesa egon da bai Euskal Herriko zein diasporako kideen eskutik eta azken urteotan eboluzio bat eman da, batez ere, instituzioen eskutik burutu diren ekintzetan.
4. Harreman publikoetako ekimenak eta, batez ere, kongresuak eta jaialdiak garrantzitsuak izan dira Euskal Herriaren eta euskal diasporaren arteko komunikazioan. Aipagarria izanik Boiseko Jaialdia.
5. Estatu Batuetako euskaldunek interesa dute Euskal Herrian gertatzen diren albisteetan eta albisteak, batez ere, nazioarteko telebista kateen eta Interneten bidez jasotzen dute (Sare sozialak eta medio digitalak).
6. Teknologia berriak eta, bereziki Internetek, euskal diasporaren eta Euskal Herriaren arteko komunikazioa areagotu du.
7. Diasporako kideek Euskal Herriaren eta Estatu Batuen arteko harremanean laguntzen dute.
8. Estatu Batuetan euskal komunitate desberdinak daude eta kokapenaren eta belaunaldiaren arabera, Euskal Herriarekin duten lotura eta burutzen dituzten ekintzak desberdinak izango dira.
9. Euskal diaspora Euskal Herriko diplomazia publikoko agente da.

1.3 Metodologia

Ikerketa hau aurrera eramateko gure galderak hoberen erantzungo dituen metodologia diseinatu dugu. Ikerketa honetan datuak bildu eta hau ikertzeko metodo soziologiko eta antropologikoak erabili ditugu. Aurretik batera ikertu ez diren hiru gai aztertzen dira: diaspora, harreman publikoak eta diplomazia eta, horregatik, planteatutako helburuak lortzeko metodologia desberdinak erabili dira. Ikerketan teknika kualitatibo eta kuantitatiboak erabili dira, izan ere, Belottik (2014) dioen moduan bi teknikak konbinatzeak emaitza eta ikuspuntu desberdinak ekarri ditzake. Teknika bat baino gehiago erabiltzen dugunean triangulazio metodologikoa erabiltzen ari gara; datuak lortzeko era desberdinak, ikerketa desberdinak, teoria desberdinak eta tresna intra metodologiko desberdinak, hala nola, metodo kuantitatibo eta kualitatiboak (Denzin, 1978).

Mario Small-ek (2011) datu motak, datuak biltzeko moduak, eta datuen analisisa *mixed method study* bezala identifikatzen ditu. Datu mota desberdinak (transkribatutako elkarrizketak, inkesten erantzunak, landa lanean hartutako notak, eta grabatutako elkarrizketak) bilduko dira ikerketarako; datu horiek biltzeko bilketa moduak (elkarrizketak eta behaketa partehartzailea) eta, amaitzeko, datuak analisatzeko erabiliko ditugun metodoak dira bildu ditugun datuei zentsua emango diotenak.

Kadushin-ek (2008) dio triangulazioa dela fenomeno bera neurtzeko datuak biltzeko era desberdinak erabiltzea (baieztatzea); eta beste batzuk diote datu ezberdinak erabiltzearen emaitza positiboena dela informazioa biltzeko mota batzuk beste batzuen ahultasunak betetzen dituztela (osagarria) (Brewer & Hunter 1989; 2006; Scrimshaw 1990).

Ikerketa hau aurrera eramateko, beraz, datu kualitatibo eta kuantitatiboak erabili dira.

1.3.1 Datu kualitatiboak

1.3.1.1 Literatura irakurketa, dokumentuak eta artxiboko datuak

Hasteko, edozein ikerketa lanekin bezala, jada eginda dagoen lana ez errepikatzeko eta gure bidean erraztasunak izateko, euskal migrazioa eta euskal diaspora gaiaren inguruan idatzi diren liburu, artikuluko, aldizkari, dokumental, eta film-en inguruko lanak aztertu dira, bai akademiko zein ez akademikoak (Hollstein, 2011). Horri esker ikusi ahal izan dugu zeintzuk izan diren,

batez ere, ikertu diren gaiak eta ea gure gaia oraindik ikertu gabe dagoen. Lanak irakurtzen joan garen bitartean, horiek gaika banandu eta *Refworks* plataforman sartu ditugu. Lan horrek asko erraztu digu erabilitako dokumentuak antolatuta edukitzea.

1.3.1.2 Elkarrizketak

Ikerketa lan honetan erabili den tekniketarikoa bat sakoneko elkarrizketak izan dira: hurbilketa lortzeko modurik egokiena da eta ikerketa kualitatiboen metodoen artean komunena (Belotti, 2014:69). Elkarrizketak modu aproposa dira oraindik ikertu gabe dagoen gaia ezagutzeko eta pertsona konkretu batzuekin hitz egiteko aukera izateko (Hollstein, 2011:14).

Olabuénagak (1996) dioen moduan, elkarrizketaren lehen ezaugarria galdetzen duen pertsonaren eta erantzuten duenaren arteko interakzioa da eta horri esker informazioa lortzeko teknika bat garatzen da bi pertsonen arteko elkarrizketa profesional baten bidez. Ikerketaren parte handi bat sakoneko elkarrizketetan oinarritu da, gaia ezagutzeko bide apropos izan delako eta gainera lehen eskuko eta perspektiba desberdinetako informazioa eman digulako. Gure analisiaren parte handi bat elkarrizketetan oinarrituta dago.

Gainera, *Snowball* teknikari esker, elkarrizketatu ditugun horiek gure ikerketarako interesgarriak izan daitezkeen beste pertsona batzuen kontaktua erraztu dizkigute.

Guztira 83 sakoneko elkarrizketa egin ditugu gure ikerketarako garrantzitsuak izan diren pertsonekin. Ia elkarrizketa denak aurrez aurrez izan dira eta gero transkribitu egin dira. Izan dira, baita ere, e-mailez bidalitako elkarrizketa batzuk distantzia geografikoa arrazoi. Elkarrizketatuen artean daude euskal diasporako kideak (ez bakarrik Estatu Batuetan), euskal diaspora gaia ikertzen duten akademikoak eta euskal diasporarekin lan egiten duten adituak daude. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko langileak ere elkarrizketatu ditugu, ordezkari instituzionalak, eta diasporako elkarteetako ordezkariak. Elkarrizketa hauek gaiari buruz ikuspegi sakona eman digute. Diasporako kideez gain, beste komunitate batzuetako diaspora kideak ere elkarrizketatu dira, hala nola, greziarrak, kroaziarrak eta armeniarrek. Amaitzeko, Harvard eta Northeastern Universityko irakasleekin ere solasaldi ugari izan dira gaiaren inguruan.

Hauek izan dira burutu ditugun elkarrizketak:

Homeland diaspora communication

Jatorrizko herrialdetik diasporara bideratutako komunikazioa aztertzeko egindako elkarrizketak:

- a) Medio eta Komunikabideak:
 - a. Komunikabideen bertsio digitalen arduradunak

2016 urteko ekainean zehar bost euskal komunikabidetako bertsio digitaleko arduradunei elkarrizketak egin dizkiegu. Elkarrizketa guztiak e-mailez egin dira bat izan ezik, aurrez aurre egin zena. E-mailez elkarrizketatutako en artean Deia, Naiz, Berria eta El Correo egunkarietako bertsio digitaletako arduradunak daude. Aurrez aurre egindako elkarrizketa, ordea, EITB digitaleko arduradunari egin zitzaion EITBko Bilboko egoitzan. Elkarrizketa guztiak formatu eta galdera berdinak izan dituzte eta hauen bidez ikusi nahi izan genuen zein den komunikabideok diasporako gaien inguruan duten jarrera.

- b. EITBren nazioarteko kateak

EITBk nazioartean zabaltzeko ideia izan zuenean Jose Felix Azurmendi zegoen horren arduradun. Jose Felix Azurmendi EITBren Nazioarteko Harremanetako Zuzendaria izan zen eta horren aurretik Karakaseko Unibertsitateko irakaslea eta bertako euskal etxeko kide izan zen; Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle; Egin egunkariako zuzendari eta Deia egunkariako zuzendariorde izan zen. 2017 urteko uztailaren 3an Jose Felix Azurmendirekin bildu ginen bere etxean. Elkarrizketa aurrez aurre egin zen eta grabagailua erabili zen elkarrizketa guztia grabatzeko. Grabatutako hori transkribatu egin zen gero. Elkarrizketan, batez ere, EITB nazioarteko kanalaren sorrera nola izan zen, zergatik egin zen eta atzerrian nola zabaldu zen ezagutu nahi genuen. Hala ere, elkarrizketa askoz aberatsagoa izan zen eta gai horrez gain diasporarekin zerikusia duten beste hainbat gai uztartzeko aukera izan genuen. Elkarrizketatuaren jakinduria eta ibilbidea ezagutzeko aukera izan genuen.

- c. ORIGEN Saioa

2016 urteko otsailatik apirilera New Media Produktorak produzitutako "Origen" saioan parte hartzeko aukera izan genuen. Telesai hori EITBn emititu zen eta gaia Euskal Herritik arrazoi desberdinetatik emigratu behar izan zuten euskaldunetan eta horien oinordekoetan zentratzen zen. Telesaiak

euskal migrazioaren nondik norakoak ulertzeko eta euskal diaspora ezagutzeko parade eman zuen. Elkarrizketak aurrez aurrekoak izan ziren eta grabatutako guztia gero transkribitu egin zen. Elkarrizketetan, batez ere, euskal diasporako kide sentitzen ziren, Euskal Herriari buruz zuten ezagutzari buruz eta Euskal Herriak euren herrialdeetan zuen presentziri buruz aritu ginen.

d. Irratia

Euskal Herritik kanpoan bizi diren euskaldunekin izan den komunikazioaren eboluzioa aztertzean, ikusi genuen izan zela Euskaditik emititzen zen irrati programa bat. Horren buruz jakiteko, irrati programa hori “Vascos en América” zeraman Floren Torrelledórekin elkarrizketa egin genuen 2017ko ekainaren 13an. Komunikazio horrek nola eboluzionatu duen urteetan eta 1970-1980 urteen inguruan burutu ziren ekimenen berri eman zigun.

e. Euskalkultura.com

1989 urtean Euskal Herriaren eta kanpoan ziren euskaldunen arteko komunikazioa hobetzeko Euskal Kultur Fundazioak Euskalkultura aldizkaria sortzea pentsatu zuen. Medio horren arduraduna Joseba Etxarri izan da eta berarekin biltzeko aukera izan genuen 2017 urteko urriaren 25ean. Elkarrizketa Zuatzu Poligonoko taberna batean egin genuen eta ia hiru orduko elkarrizketa grabagailuarekin grabatu zen, gero hori ordenagailuan transkribatzeko. Etxarri aditua eta aritua da gaien, beraz, elkarrizketan hainbat gai jorratu ziren. Zein den euskal diasporaren egoera, zein den Eusko Jaurlaritzak duen jarrera euskal diasporarekiko, eta ze proiektu burutu ahalko liratekeen kanpoan bizi diren euskaldunen eta Euskal Herriaren arteko komunikazioa eta harremana hobetzeko. Horrez gain, kazetariaren ibilbidea nolakoa izan den eta Euskalkulturaren sorrera eta eboluzioari buruz hitz egin genuen. Elkarrizketatutako beste batzuekin bezala, Joseba Etxarriekin dudan harremana ez zen egun horretan gelditu, izan ere, hainbat izan dira gure arteko telefono deiak eta emailak.

b) Gobernua

a. Instituzionalak

Eusko Jaurlaritzak Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia du eta bere parte da Euskal Etxe eta kanpoan den Euskal komunitatearentzako Zuzendaritza. Zuzendaritza hori sortu zenean lehen zuzendarietako izandako Josu Legarretari sakoneko elkarrizketa egin genion 2017 urteko maiatzean.

Elkarrizketa hori aurrez aurre egin genuen Algortako kafetegi batean, grabagailua erabili genuen eta gero esandako guztia transkribitu. Ia hiru orduko elkarrizketa aberasgarria izan zen non hainbat gai ikutzeko aukera egon zen. Elkarrizketa horretan, batez ere, zuzendaritza sortu baino lehenago eta zuzendaritza sortu eta kanpoan den euskal komunitatearekin harremana regulatzen duen legea sortu ondoren, euskal diasporarekin komunikazioa nolakoa izan den ezagutu dugu. Komunikazio horren eboluzioa nolakoa izan den ezagutzeko aukera eman zuen baita guretzako eta Zuzendariarentzako interegarriak diren gaiak sakontzeko ere. Harremana ez da elkarrizketa horretan gelditu, izan ere, elkarrizketa horren ondoren ugariak izan dira Josu Legarretari egindako telefono deiak, eta bidalitako e-mailak eta What-sappak.

Ikerlariak Bostonen egindako egonaldian, Estatu Batuetan Eusko Jaurlaritzako delegatua izan den Ander Caballerorekin elkarrizketa egiteko aukera izan zuen. Estatu Batuetako euskaldunen egoera, historikoki nolakoa izan den diaspora eta egun nolakoa den, Smithsonian Folklife Festival-a, Euskal Herriaren eta Estatu Batuen artean sortzen diren harreman enpresarialak eta Estatu Batuetan dauden euskal komunitateen arteko desberdintasunei buruz hitz egiteko aukera izan zuen.

Bizkaia Talenteko arduraduna den Ivan Jimenezekin sakoneko elkarrizketa egin genuen, Bizkata Talententzat diaspora zer den ezagutzeko eta diasporak euren sare horretan duen papera ezagutzeko.

Diaspora Homeland communication

Esan bezala, diaspora kideen eskutik ere izan da Euskal Herriarekin harremana eta komunikazioa mantentzeko gogoia eta beharra. Horregatik honen inguruan diasporako kideei edota ekintza hauetan parte hartu dutenei galdetu diegu.

- a) Diaspora ekintzak
 - a. Jaialdiak, Harreman Publikoak

Kanpoan bizi diren euskaldunak ekintza desberdinak burutu izan dituzte euskaltasuna mantendu, identitatea gogortu, euren nortasuna bizi diren herrialde horretan erakutsi eta Euskal Herriarekin harremana mantentzeko. Ekintza horien artean oso ezagunak dira Estatu Batuetan eta Argentinan antolatzen dituzten euskal-amerikar eta euskal-argentinarr Jaialdiak. Aztertu diren jaialdi horien artean, besteak beste, Estatu Batuetan bost urtean behin

antolatzen den Boiseko Jaialdia eta 2016 urtean antolatu zen Smithsonian Folklife Festival-a dauzkagu. Boiseko Jaialdiaren antolakuntza, helburu, etorkizun eta gizarte amerikarrean duen eraginari buruz jakiteko sakoneko elkarrizketak egin dira: Euskal Etxe eta Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzako teknikari den Benan Oregiri, Boiseko Jaialdiko arduradunak diren Ana Mendiolar eta Ana Mendiola, Amy Hormaechea Wray and Rod Wrayri eta Estatu Batuetako EITBko korrespontsala zen Mikel Reparazi egin zaizkie elkarrizketak. Elkarrizketa horiek 2016 urteko otsaila eta martxoa bitartean egin ziren eta e-mailez osatu ziren. Horren arrazoia elkarrizketatutakoen artean bi Estatu Batuetan zeudela izan zen. Benan Oregi eta Ana Mendiolak, Amy Hormaechea Wray eta Rod Wrayek Boiseko Jaialdia nola sortu zen, zeintzuk diren bere helburuak eta komunikazioan nola eragiten duten kontatu ziguten. Mikel Reparaz kazetariak, ordea, Boiseko Jaialdia Estatu Batuetan nola ikusten zen, nola eboluzionatu duen eta kazetariak nola kubritzen duten esan zigun.

2016 urtean euskal diasporako kideek hasitako prozesu baten ondorioz Washingtonen urtero antolatzen den Smithsonian Folklife Festivalen Euskal Herria eta euskaldunak izan ziren protagonistak. Honen inguruan ezagutzeko Smithsonian Folklife Festivalen antolakuntzako parte izan ziren diasporako bi kide eta Euskal Herriko ordezkari instituzional bat elkarrizketatu ziren. Elkarrizketa guztiak aurrez aurre egin genituen eta gutxienez bi orduko elkarrizketak izan ziren. Grabagailua erabili genuen eta gero elkarrizketa ordenagailura transkribatu genituen.

Gloria Totoricaguena eta Argia Beristaini egindako elkarrizketei esker ikusi ahal izan dugu nolakoa izan den diasporaren parte hartzea jaialdi honen antolakuntzan eta zein garrantzitsua izan den diasporaren papera gerora bi herrialdeen artean harremanak sortuko dituen Jaialdi honetan. Beste aldetik, Iñaki Goirizelaiari, Euskal Herriko Unibertsitateko errektore ohia, egindako elkarrizketari esker jakin dugu zein emaitza izan ditzakeen horrelako ekimen batek Euskal Herriaren eta Estatu Batuen arteko harremanean hainbat esparrutan.

Estatu Batuetan antolatutako jaialdi euskal-amerikarrez gain, Argentinan ere badago urtero antolatzen den jai esanguratsua. Jaialdi horren izena Semana Nacional Vasca da eta urtero euskal etxe desberdin batek antolatzen du. Ez dago gai honen inguruan egindako lan akademikorik, horregatik, lehen Semana Nacional Vasca nolakoa izan zen, zergatik antolatu zen eta egun zergatik antolatzen den eta honek dakartzan emaitzei buruz Xabier Zubillaga eta Mikel Ezkerrori galdetu zitzaion. Bi elkarrizketa hauek e-mailez egin

behar izan dira elkarrizketatuak Argentinan bizi direlako eta elkarrizketatzailea Euskal Herrian. 2016 urteko azaroan egin dira eta oso baliogarriak izan dira ikerketan. Beste batzuekin gertatu bezala, gure arteko harremana ez da hor amaitu eta ikerlariak Argentinan dagoen euskal diasporari buruz dudak izan dituenean bi erreferente hauengana jo du bai Facebook edo e-mail bidez.

b. Udalekuak

Diasporatik euskaltasuna mantentzeko, kanpoan bizi diren euskaldunen arteko harremana estutzeko eta Euskal Herriarekin konexioa izateko euskal diasporako gazteei zuzenduriko udalekuak antolatzen dira. Udaleku hauek Estatu Batuetan NABOk (North American Basque Organization) antolatzen ditu eta Argentinan euskal etxe desberdinek.

NABOK antolatzen duen udalekuaren inguruan informazioa izateko udalekuko antolakuntzako kide den Maite Maisterrena eta NABOk ordezkaritza den Kate Camino elkarrizketatu ditugu baita ere Euskal Herritik, Zuberoatik, udalekura dantza ikastaroa ematera joandako Elodie Arangaray. Elkarrizketa hauek 2017 urteko ekaina eta abuztua bitarte egin ziren eta kokapen geografikoa dela eta, e-mailez egin ziren.

Argentinako euskal diasporaren kasuan udaleku desberdinak ospatzen dira, hala nola, Hator Hona edo Chascomuseko udalekua. Horren inguruan Hator Honako arduraduna den Juanchi Yaicomo eta Chascomuseko Udalekuan urte askoan zehar antolatutza ibili den Paula Berasain elkarrizketatu ditugu 2017 urteko abuztuan zehar.

c. Blog

Internet eta sare sozialei esker asko erraztu da kanpoan bizi diren euskaldunen eta Euskal Herriaren arteko komunikazioa, eta horretan, tresna aipagarriak dira Blogak. Estatu Batuetako euskaldunen artean badaude aipagarriak diren blog bi zeintzuk Estatu Batuetan bizi diren euskaldunek eta Euskal Herriko euskaldunek irakurtzen dituzten. Blog horiek “A Basque in Boise” Boisetik eta “Hella Basque” Kaliforniatik dira.

Bi blog hauen atzean dauden Henar Chico eta Anne Marie Chiramberro elkarrizketatu genituen 2017 urteko ekaina eta uztaila bitartean. Henar Chicori elkarrizketa e-mailez egin zitzaion, hala ere, Euskal Herrira etorri zen uztailan eta berarekin bildu ginen. Eta Anne Marie Chiramberro elkarriz-

keta aurrez aurre egin nion Bilboko Sandwich Caffee tabernan. Elkarrizketa hauei esker jakin ahal izan dugu nola ikusten duten komunikazioa eta harremana, zergatik hartzen duten blog bat sortzeko erabakia, eta nongo irakurleak dituzten.

Lehen kontaktu eta elkarrizketa horretatik, hainbat izan dira beraiekin izandako elkarrizketak, eta, beti blog-ari edo diasporari buruz zerbait galdetu nahi izan diegunean, pozik eta azkar erantzun digute.

b) Diaspora eta komunikazioa

2016 urteko maiatza eta ekaina bitartean Argentina eta Estatu Batuetako diasporako kideei Euskal Herriarekin komunikatzeko, euskal komunikabideen kontsumoari eta euskal gaien inguruan informatuta izateko erabiltzen zituzten medioei buruz galdetu genien. Elkarrizketa horretan jaialdiak eta Eusko Jaurlaritzak sortutako Global Basque Network sarearen inguruan ere galderak egin genituen. Elkarrizketa guztiak berdinak izan ziren eta e-mailez bidali genituen.

2017 urteko otsailetik aprilera ikerlariak Boise State Universityn ikerketa egonaldia egin zuen. Egonaldi horretan diasporako hainbat kide elkarrizketatzeko aukera izan genuen. Elkarrizketa horietan Euskal Herriarekin eta euren euskal familiarekin izan duten komunikazioak nola eboluzionatu duen, euskal gaien inguruan nola infomatzen diren, Euskal Herriarekin duten lotura, euskal-amerikar Jaialdiak eta euskal diaspora sareei buruz hitz egin dugu. Elkarrizketa guztiak Boise hiriko kafetegi, museo eta jatetxe desberdinetan egin dira baita, nola ez, Boiseko euskal etxean. Guztiak grabagailuarekin grabatu dira eta gero transkribitu egin dira.

2018 urteko urtarrila eta uztaila bitartean ikerlariak beste ikerketa egonaldi bat egin zuen Harvardeko unibertsitatean, Bostonen. Egonaldian zehar Massachusetts eta New York inguruetan bizi diren Euskaldunekin elkarrizketak egin ditugu.

2018 urteko maiatzean zehar Floridako euskaldunen egoera ezagutzeko helburuarekin ikerlariak egonaldia egin zuen Miami inguruan dagoen Fort Lauderdale herrian. Helburua bertan bizi diren euskal Jai Alai jokalarien bizia ezagutu, baita ere euren emazte eta seme-alabena; Floridan nola antolatzen diren jakin eta Euskal Herriarekin duten komunikazioa eta harremana nolakoa den ezagutzea zen. Horretarako, sakoneko elkarrizketak

egiteko aukera izan dugu, euren egunerokotasuneko parte izan ginen, frontoira joan ahal izan dugu, eta aurrerago baliogarriak izan diren harremanen lehen hazia jarri genuen. Bertan egondako denboran 6 sakoneko eta banakako elkarrizketa egin genituen eta bi taldeko elkarrizketa: bat lau pertsonekin eta bestea 5 ekin. Horrez gain, nahiz eta elkarrizketa formalak izan ez, egunero euren biziei buruzko elkarrizketa interesgarri eta edukiz beteak izan genituen.

Estatu Batuetan dauden diaspora komunitate desberdinei buruz informazioa lotu ahal izateko, 2018 urteko urtarrila uztaila bitartean 7 sakoneko eta aurrez aurreko elkarrizketa egin ditugu Armenia, Grezia eta Kroaziako jendearekin. Elkarrizketa hauek Kroaziarren elkarteetan, Greziera irakasten duten zentroetan edo Armeniarren elkarteetan izan dira eta elkarrizketatutakoak euren komunitatea antolatu eta aurrera eramateko ekintzak burutzen dituzten pertsoanak edo ikertzaileak izan dira.

c) Basque Affinity Diaspora

Euskal diasporako kideak elkarrizketatzeaz gain, Boisen egindako egonaldian arrazoi desberdinengatik euskal munduarekin lotura duten amerikarrak elkarrizketatu ditugu. Amerikar horien *Basque Affinity Diaspora* moduan aurkeztu ditugu eta eurei egindako elkarrizketei esker ezagutu ahal izan dugu zein den euskaldunek amerikar gizartearentzako duten irudia eta zergatik amerikar batek euskal komunitateko kide izan nahi duten.

Amerikarraz gain, euskal diasporako kideak *Affinity Diasporaren* inguruan zer uste zuten ezagutu nahi nuen eta euskal diasporako kide batzuk elkarrizketatu ditu amerikarrek euskal komunitatearen mantenuan duten garrantziari buruz zer uste duten ezagutzeko.

1.3.1.3 Behaketa partehartzailea

Nahiz eta iraganean behaketa metodoak bakarrik erabiltzen ziren gai antropologikoetan, gaur, metodo horiek mugimendu sozialak (Mische, 2008; Broadbent, 2003), elkarteak (Provan and Milward, 1995) eta komunitate etnikoak (Dominguez and Watkins, 2003; Menjivar, 2000) aztertzeke ere erabiltzen dira (Hollstein, 2011:13) . Gu ere komunitate etnikoak aztertzen ari garelez, teknika hau erabili dugu.

Behaketa beste era bateko data osotzeko erabiltzen da: “It serves to access the field (actors, content of relationships, forms of interaction); also in complementing and checking data from other sources. Repeated observation over

extended periods of time is an appropriate strategy for ensuring good data quality” (Menjivar, 2000; Dominguez and Watkins, 2003; Mische, 2008).

Gabarrónen & Hernández Landaren hitzetan, ikerketa partehatzailea gizarte zientzien krisialdian sortzen den ikerketa mota bat da zein 70 hamarkadan Hego Ameriketara eta Europan sortzen den (1994:17). Ikerketa zientifikoa burutzeko metodoa da eta kolektibitate eta komunitate antolatuen partehartzeak gizarte errealitatearen analisi objektibo eta erreala egiteko aukera ematen du (Gabarrónen & Hernández Landaren, 1994:19).

1.3.1.4 Diaspora sareen analisia

Sareen analisia gero eta erabiliagoa da akademikoen artean. Analisi honekin posible da hainbat eratako harremanak aztertzea adibidez ikasleen arteko harremanak eta “how friendship networks are important factor influencing social and academic success” (Roger Gould); “the intersection of economic and civic social networks shapes the strategic choice and possibilities for mobilization of key organizational actors” (Sean Safford, 2004); gazteek bizi diren lekuaren arabera nola egiten dituzten harremanak (Chan Tack, Anjanette & Mario L. Small, 2017); eta inmigrante eta talde transnazionalak (Levitt 2001 & Menjivar, 2000). Hollsteinek, ematen ditu sare sozialak ikertzeko erabiltzen diren teknika kualitatiboen adibideak (2011:2).

Gure ikerketan diaspora komunitateak eta euren jatorrizko herrialdearen artean sortzen diren sareak ikertuko ditugu. Harvard-eko soziologia departamentuan irakasle den Mario Smallek esan zuen modua bere klaseetako baten: “How do you know you are studying networks? Because you are studying relations” (2018 urteko martxoa). Eta hori da gu ere egiten ari garena, hau da, Estatu Batuetako leku desberdinetan kokatuta dauden euskaldunen eta Euskal Herriaren arteko harremanak aztertzea. Hala ere, sareen analisia egitea ez da lan arina, izan ere hainbat ekintza egin behar dira hori lortzeko: “Network analysis is now in easy reach of the average investigator-whether the methods used include participant observation, survey, use of historical archives, censuses, or a combination of different sources and methods” (Gould, 2003:5). Kasu honetan, datu kualitatiboak (Belotti, 2014:71), artxiboko datuak (Hollstein, 2011:15) eta lan etnografikoa (Hollstein, 2011:12) egin dugu sareen analisia burutzeko.

1.3.2 Datu kuantitatiboak

Analisirako portzentajeak ateratzeko helburuarekin Estatu Batuetan dauden euskaldunen artean inkesta bat zabaldu genuen Euskal Herriarekin komunikatzeko eta harremana mantentzeko dituzten tresnak ezagutzeko.

1.3.2.1 Inkesta

a) Komunikazioa eta harremana

2018 urteko apirilean erantzun nahi genituen galderekin inkesta bat prestatu genuen. Inkesta zabaltzen hasi baino lehen, Florida, Nevada, Boise, Boston eta Kaliforniako 5 euskalduni bidali genien inkesta euren feedback-a izateko. Euren erantzunak jasota, galdera batzuk aldatu genituen. Oso feedback interesgarria izan zen, izan ere, galdetutako horien artean hainbat belaunaldikoak zeuden, Euskal Herrian hainbat urtez bizitakoak, eta Iparralde eta Espainiako Euskal partekoak. Horrek hasieran kontutan hartu ez genituen gauza batzuk aldatzeko aukera eman zigun, adibidez, Frantziako egunkariak gehitzea.

Behin inkesta prestatuta, bere distribuzioarekin hasi ginen. Lehen inkestak Floridan zabaltu genituen. Maiatzean Floridan egindako egonaldian bertan bizi diren Jai Alai jokalaririk aktibo eta erretiratuak eta hauen familiak elkarrizketatu genituen. Elkarrizketak egin baino lehenago, inkesta ematen genien, eta zerbait aldatzea beharrezko ikusten bazuten galdetu. Bostonera bueltatzean online distribuzioa egiten hasi ginen. Hasteko, ikerketako 3 urteotan ezagutu dugun jendearekin elkarbanatu genuen eta hauek euren euskal etxeetako Facebook orrialdetan elkarbanatu zuten. Horrez gain, Estatu Batuetako diasporako kideen artean ezagunak diren bi blog-ek ere elkarbanatu zuten inkesta. Harrigarria izan zen ikustea nola, bi egunetako epean, hainbat eta hainbat izan ziren inkesta elkarbanatu zuten Facebook orri eta pertsonak: Elkoko Euzkaldunak Euskaltzeko Facebook-ak, Lagun Onari Las Vegas, A Basque in Boise, Identity 2.0, NABO Euskaraz, 8 probintziak... Facebook orrialde hauek ezagunak dira Euskal Herrikan kanpo bizi diren euskaldunen artean orokorrean eta Estatu Batuetan bizi direnen artean konkretuki (aldatu hori esateko era). Horri esker inkestaren zabalpena oso arrakastatsua izan zen eta bigarren egunean 200 erantzun izan genituen.

Ondoren, Euskaletxeak.net webgunea erabilita Estatu Batuetan dauden euskal etxe guztien zerrenda bat egin genuen eta bertako zuzendariei e-mail bat bidali genien inkesta euren kideen artean zabaltzeko eskatzen. Erantzun hori ez zen sare sozialena bezain positiboa izan.

Inkestaren emaitza oso positiboa izan da, izan ere, ekaina amaieran 400 erantzun baino gehiago izan ditugu eta guztira, ikerketarekin amaitzean 423 erantzun dauzkagu. Metodologia hau tesian babesten dugunaren isla perfektua da. Hau da, sareen bidez zenbat gauza lortu daitezkeen eta diaspora kideak konektatzeko sareek duten indarra. Argi geratzen da, diaspora bat ikasteko internet eta sare sozialak laguntza ezinhobea direla.

1.4 Gaiaren egoera

“En estos últimos veinte años, como señalamos, no sólo se han multiplicado el número de estudios realizados y de publicaciones editadas sobre esta temática, que nos han permitido ampliar el campo de nuestros conocimientos; sino que también se han diversificado las posibilidades de análisis, y sobre todo se ha venido a constituir un incipiente, aunque prometedor, núcleo de investigadores centrados en las investigaciones de los vascos en el exterior. En apenas dos décadas, incluso la terminología ha cambiado: frente a viejos conceptos que manejábamos allá por la década de 1990, la idea de <<las emigraciones vascas>> como objeto preferente de análisis, ahora estamos estudiando la formación de las colectividades vascas, sus instituciones sociales, recreativas, culturales y políticas, la prensa vasco-americana, la cultura, la economía e incluso cuestiones como imagen e identidad” (Álvarez Gila, Angulo & Marcilese, “Los vascos en la Prensa Americana”, Eusko Jaurlaritza, 2007 urteko Kongresuko Aktak, 2008:115).

Euskal diasporaren inguruko dibulgazio lanetan eboluzio bat izan dela ikusita eta gero eta gehiago direla kontzeptu hori erabiliz, ikerketak egiten dituztenak.

1.4.1 Euskal migrazioa

Euskal diasporaren gaiari erreposoa egiterako orduan erreferente da William Douglass antropologoa edo batzuk dioten moduan: “Mr. Basque”. William Douglasssek euskal migrazioa eta euskal diaspora ikertzen ditu, eta bera izan zen Jon Bilbaorekin batera *Amerikanuak: Basques in the New World* liburuaren egilea. Douglassen liburu eta lanak oinarritzaileak dira euskal migrazioaren arloan, zeintzuetan, batez ere migrazioaren arrazoiak, emigratutako herrialdeak eta horietan burututako lana aztertzen dituen. Liburu hau idatzi zutenetik ugari izan dira euskal emigratioaren gaia jorratzen hasi diren autoreak, bai Euskal Herrian bertan, bai itsasoz bestaldean. Horien artean Totoricaguena (2001, 2002, 2003, 2007), Urza (1999), Zulaika (1994,1999), Álvarez Gila (1995, 1998, 1999, 2002, 2005, 2010), Oiarzabal (2005, 2014), Bieter anaiak (2005), Bieter&Ray (2013), Yursa, Irujo (2007), Saitua (2016), Iraizoz (2017), Echeverria (1984, 1999), Camus Etchecopar (2008), Azcona (1992), San Sebastian (2014, 2018), Mignaburu (2016), Legarreta (2016), Laxalt (1957, 1972, 1989, 2000), Zubiri (1998), Elustondo (2007, 2012), eta Ugalde (1995, 1996, 2000, 2006) daude. Aipatzekoak dira, Eusko Jaurlaritzak 2003 urteko uztailean abian jarri zuen Urazandi Bildumaren lana, atzerrira joan behar izan zuten euskaldunen testigantzetan oinarrituta herrialde desberdinetan bizi diren euskaldunei eta euskal etxeei buruzko ikerketa egiten duen; 1980 urtetik 2010 urtera Alexander Ugalde eta Jose Luis de Castrok Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanei buruz ateratako

urtekaria, baita ere Renoko Center for Basque Studiesek argitaratutako liburuak, non Euskal Herria, euskal migrazioa eta euskal ikasketak uztartzen dituzten liburuak argitaratzen diren.

Amerikanuak liburua eta gero, Euskal Herriaren eta euskal komunitateak dauden herrialdeetako unibertsitateen arteko harremanak sakontzen hasi ziren. Horrela, Nevadan Center for Basque Studies eta Jon Bilbao katedra sortu ziren Renoko Unibertsitatean; University of Massachusetts Amherst unibertsitatean William Douglass katedra; New Yorkeko Cuny City Universityn Bernardo Atxaga Katedra; Chicagoko Unibertsitatean Koldo Mitxelena Katedra; eta Boisen Basque Studies eta Elois Garmendia katedra sortu ziren. Harreman hauei esker ikerketa gehiago egitea sustatu da, euskal migrazioaren gairako ekarpenak ekarri dituelarik. Agitxu Camus-ek Euskal Kultur Erakundeak 2015ean egindako elkarrizketan esaten zuen Renon, 1967tik bada Euskal ikergune bat unibertsitatean, eta horren eragina ere sentitzen da: "Bakersfielden ere horretan hasi berriak dira, Boise Idahon ere bai, Santa Barbaran talde ttipi bat muntatua da..."²

Euskal migrazioa ikertzen duten lanen errebisioa egin eta gero, ikusi ahal izan dugu, batez ere, migrazioaren arrazoiak, emigratzen zutenen profila, emakumeen papera boarding houston, emigratzeko herrialdeak eta herrialde horietan burututako lana, identitatea, harreman instituzionala eta euskal etxeen nondik norakoak aztertzen duten lanak daudela. Horrez gain, diasporen eta jatorrizko herrialdeen arteko komunikazioa azertu duten autoreak nortzuk diren ikusi dugu. Horrek euskal migrazioaren testuinguruan kokatu gaitu eta diaspora gaia jorrazteko beharrezko informazioa eman digu.

a) Arrazoiak

Gehien ikertu den gaietako bat orokorrean euskal emigrazioaren arrazoiak izan dira. Hau da, zergatik euskaldunek erabaki zuten euren sorterrira atzean utzi eta beste herrialde batera joatea. Gai hori ikertu dutenen artean Douglass (1986, 2003), Santiso González (1998), Euskal Arkeologia eta Etnografia eta Kondaira museoak 2001 urtean egindako ikerketa, Totoricaguena (2002), de Borja (2005) edo Azcona, García Abil Gil de Biedma, eta Muru Ronda (1992) daude. Horien lanak laburbilduz, emigrazioaren arrazoiak Euskal Herriko oinordekotza sistema; lan bila atzerrira joatea, adibidez Ameriketa-

² 2015ean Euskal Kultur Erakundeak Argitxu Camus-i egindako elkarrizketa:
http://www.eke.eus/eu/kultura/lekukoak_lekuko/argitxu-camus?set_language=eu

ko Estatu Batuetara artzain joatea; militantzia lanak ekiditea; gerra karlista eta gerra zibila izan ziren (Douglass, 1986; Santiso González, 1998).

Douglassek baita ere, Lymond eta Zulaikarekin batera (1994) Europan sortu zen emigratzeko sukarraren arrazoiak zeintzuk ziren azaltzen zuen. Camus Etchecopar euskal emigrazioan aditua ere bat dator Douglass, Lyman, Stanford eta Zulaikarekin eta aurretik joandako emigranteen testimonioek Zuberoko euskaldunengan izan zuen garrantzia nabarmentzen zuen Euskal Kultur Erakundeak egindako elkarrizketa batean³. Emigratzeko arrazoiak aztertu dituen beste autore bat Sonesson (2008) da, zeinek Venezuelara joandako euskaldunei buruzko liburua argitaratu zuen. Toticaguenak, bere doktorego tesian ere aztertu zuen emigratzeko arrazoiak zeintzuk ziren, eta Doyagak eta Renteriarekin batera idatzitako *The Basques of New York* liburuan ere hori azaltzen dute:

“Until the beginning of the 1800s, trade, military and religious conquests were the reason for Basque emigration, an emigration that took place both inside the Basque trans-Kingdom of Navarre and later inside the framework of the Hispanic empire” (Toticaguenak, 2003:45).

Migrazioaren arrazoiak aztertutako autore gehienak hiru puntutan datoz bat (Sonesson, 2008): baliabide urriak zirela eta sufritutako presio demografikoa, arrantza tradizioa eta oinordekotza zatikatua debekatzen zuen oinordekotza sistema (sistema tronkala). Emigratzeko arrazoiak gain, emigratu zutenen profila eta euskal emigratioa jaso zuten herrialdeak zeintzuk ziren ere ikertu da, eta emigratzen zutenak, oro har, gazte ezkongabeak izaten ziren; migratio oinordekotza bako eta lan bako jendea, eta baita enpresari eta bizitzeko modu berriak nahi zituztenak (Azona Pastor, García Albi Gil de Biedma & Muru Ronda, 1992).

b) Profila

Leku bakoitzera joandakoen profila eta herrialde horietan burututako lanak aldatuz joan dira Douglassek (2003) emigratzen zuten euskaldunen profila aztertzen du eta bi emigratio modu zeudela dio: kualifikatua bere familiarekin joango zen, eta kualifikatu gabea, ordea, bakarrik (Douglass, 2003). Kualifikatu gabea, normalean, lan fisikoa egitera joango zen, batez ere, artzain. Toticaguenak ere profila aipatzen du bere ikerketetan, eta Douglassekin bat dator:

³ Euskal Kultur Erakundeak 2015ean Argitxu Camus-i egindako elkarrizketa: http://www.eke.eus/eu/kultura/lekukoak_lekuko/argitxu-camus

“The typical emigrant was a single male between 15-25 years old, sent for by relatives in the New World who needed agricultural laborers or going in search of relatives hoping they needed laborers”.

“Single male sojourner seeking stake which to return to Europe, rather than a permanent foothold in an adopted land (Butler, Canefe, Cohen, Douglass, Laguerre, Safran...., & Totoricagüena (2007))”.

Azconak, García Albi Gil de Biedma eta Muru Rondak (1992) baita ere emigranteen profila aztertu zuten eta emigratzen zutenen ehunetik 58 bizkaitarrak, 28 gipuzkoarrak eta 14 arabatarrak zirela zioen (Azcona, García Albi, Muru Ronda, 1992).

c) Norakoak eta burututako lana

Arrazoiekin batera, emigratzeko herrialdeak zeintzuk ziren ere sakon ikertu da. Liburu batzuetan emigrazioaren mapa orokorra aztertzen da (Douglass, & Bilbao, 1986; Douglass, Lyman, Zulaika 1994; Douglass, Urza, White, Zulaika 1999; Douglass, 2003; Totoricaguena, 2007) eta beste batzutan herrialde zehatzetan jartzen da arreta (Azcona, García Albi Gil de Biedma, & Muru, 1992; Bieter, & Ray, 2013; de Borja & Douglass, 2005; Caro Baroja, Addis, 2009; Cierbide Martinena, 1997; Douglass, 1996; Douglass, 2015;; Echeverria, 1984; Echeverria, 1999; Echeverria, 2001; Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoa; Azcona Pastor; Iberlin & Romtvedt, 2011; Santiso González, 1998; San Sebastián, 2018, Camus Etchecopar, & Mallea-Olaetxe, 2015; eta Totoricagüena, (2002, 2003)).

Gehienetan helmuga herrialdea zein zen ikertzeaz gain, herrialde hortan euskaldunek burutzen zuten lana zein izaten zen ere aztertzen dute. Liburu berean euskal emigrazioaren jomuga izan diren hainbat herrialde aztertzen dituzten artean arestian aipatutako Douglass eta Bilbaoren *Amerikanuak: Basques in the New World* liburua dago. Euskal emigrazioaren azterketa orokor bat eta euskaldunak emigratutako herrialdeena egiten dute. Douglasssek 1986an euskaldunek emigratzeko herrialdeez gain, herrialde horietan burutzen zituzten lanen azterketa ere egin zuen. Douglasssek baita ere, Urza, White eta Zulaikarekin *The Basque Diaspora* liburua argitaratu zuen 1999.urtean, non, euskaldunek emigratzen zuten herrialdeak zeintzuk ziren esaten zuten, baita Estatu Batuetarako bidaia nola egiten zuten ere. Txile, Argentina, Uruguai, Mexiko eta Ameriketako Estatu Batuetarako emigrazioaz hitz egiten dute. Koldo San Sebastiánek, argitaratu duen azken liburuan *NewYorktarrak*, batez ere, New Yorkeko euskaldunei buruz idazten du baina, euren fokua jarri baino lehen, errepasso bat egiten die Filipinas, Kuba, Manila, Liverpool eta Australiara joandako euskaldunei.

Herialde zehatzetan kontzentratu direnak ere izan dira eta Kuba, Filipinas, Txina, Estatu Batuak, Venezuela, Australia eta Argentina helmuga bezela zuten euskaldunen azterketa egin dute. Douglass da herrialde zehatzen ikerketetan gehienetan agertzen den autore. Argitalpen batzutan bera izan da autore bakarrik (*Azúcar amargo: vida y fortuna de los cortadores de caña italianos y vascos en la Australia tropical* 1996); beste batzuk, ordea, koautoriak izan dira (*Vascos en Cuba* 2015, hainbat autorerekin argitaratutakoa).

Mapa orokorra alde batera utzita eta euskaldunen jomuga bezala Amerikar kontinentean zentratuz, Latinoamerikara (Kuba, Venezuela, Argentina, Mexiko) eta Ipar Ameriketara (Estatu Batuak eta Kanada) joandako euskaldunei buruzko ikerketak daude. Latinoamerikako herrialdeetara izan zen Euskal Herrian profesionalki garaturiko pertsonak joan ziren herria (medikuak, abokatuak...) (Douglass, 2003). Ikerketa horien artean Santiso Gonzálezek 1998 urtean argitaratu zuen *Cien años de torrente migratoria hacia América. Diáspora vasca y enganchadores (1830-1930)* liburua dago. Nahiz eta liburuaren gai nagusia hori ez izan, emigratzeko herrialdeak zeintzuk izaten ziren dio. Gainera, bere hitzetan emigrazio hori posible egiten zuten *enganchadores*⁴-en figura aztertzen du eta horretara dedikatzen ziren enpresen azterketa egiten du.

Hego eta Erta Amerikarekin jarraituz, Douglasssek Kuban zeuden euskaldunei buruz idatzi zuen, hauek horra joateko arrazoiak zeintzuk izan ziren eta euskaldunek Kubara bideratutako esklabutzaren trafikoan izan zuten pape-rari buruz. Liburuan euskaldunak Rio de la Platara eramaten zituzten enpresak zeintzuk ziren azaltzen du: <<Compañía Transatlántica S.A.>>, <<Compañía Sota y Aznar>> eta <<Manuel María de Arrótegui>>, eta Bilbotik Ameriketara joandako itsasontzien izen batzuk ematen ditu: Larache, Alfonso XII eta México ziren (Douglass, 2015; Azcona Pastor, García Albi Gil de Biedma & Muru Ronda, 1992). Hauek *enganchadores* deritzenak ziren eta Santiso Gonzálezek (1998) eta Azcona, García Albi eta Muruk (1992) ere Douglassen moduan, hauei buruz hitz egiten dute (Euskal herritik atzerrira langileak eramaten zituzten enpresei buruz).

Argentinaren kasuan, ikerketa orokorretan aztertutakoaz gain, Azconak, García Albi Gilek Muru Rondak eta Marcelino Irianik emigratzeko herrialdeak zeintzuk ziren azaltzen dute. 1886 urtera arte oraindik euskaldunen helmuga Kuba, Puerto Rico edo Filipinas zen. XIX.mendean Bilbotik ez ziren Rio de La Platara joango ziren itsasontziak ia irtetzen; bai, ordea, Pasaia,

⁴ "Enganchadores"-ak emigranteak bilatzen zituzten, Ameriketara joateko bidaia ordaintzen zieten eta askotan, lana bilatzen zieten herrialde berrian (Santiso González, 1998).

Bordele eta Baionatik. Hori Santisoak (1998) ere dio Euskal Herritik, batez ere, Río de la Platara emigratu zutela, Pasaian barkuratzera egin eta Argentina eta Uruguai hondartzetara heldu. Hego eta Erta Amerikarekin jarraituz, Txile (Winnipeg⁵ itsasontzian) eta Mexikora ere euskaldun ugari joan ziren, batez ere, gerra zibilaren garaian. Txileri buruz ari garenean, Txilera joandako euskaldunen ikerketak egin dituztenak daude (de los Fayos, 2005; Camus Argaluz, 1991; Etxarri, 2004; Laborde, 1991). Mexikoko euskal komunitateari buruz Ruiz de Gordejuela Urquijo (2006); San Sebastian (1993) eta Euzko Deyak Euskal mexikarrei buruz idatzitakoa dago.

Ipar Ameriketako kasuan, Joseba Etxarrik, Kanadan eta Ternuan bale- eta bakailao-arrantzara joandako euskaldunak daudela adierazten du. Saint-Pierre eta Miquelon euskaldunen gustuko leku ziren eta biztanleen %30a euskal jatorrikoak direla dio. Aipatzekoa da 2017ko ekainean St Pierre eta Miquelongo euskal etxea onartu zela Eusko Jaurlaritzako Erregistroan. Koldo San Sebastianek ere argitaratu duen azken liburuan aipatzen diru Ipar Ameriketara joandako euskaldunak:

“Un número importante de los marinos vascos que llegan a Estados Unidos lo hacen a partir de 1918. Pero, comienzan a hacerse visible en la década de los 1850 de la mano de comerciantes y hombres de negocios como Navarro, Latasa o Satrustegi” (San Sebastian, 2018:27).

Jomuga Estatu Batuak zuten euskaldunei buruz hainbat liburu argitaratu dira eta batzuk orokorrean Estatu Batuei buruz dira, beste batzuk, estatu edo hirika banandu dira. Jeronima Echeverriak (1984) laburki aipatzen zuen euskaldunak zein herrialdetara emigratzen zuten. Etxarrik zioen bezela Echevarriak ere Kanadara joandako euskaldunei buruz hitz egiten du eta bakailaoa eta balea arrantzatzeko euskaldunak Terranova eta Labradorrera joaten zirela dio. Gerora, emigrazioa Kanadan zentratu ordez, Estatu Batuetako mendebaldean kokatuko da.

Jomuga desberdina izango da, baita herrialde berrian burututako lana ere. Bakailao eta bale arrantzaleetatik urre bilatzaileetara pasatuko dira euskaldunak. Echeverriak eta Toticagunak dioten moduan Estatu Batuetako mendebaldean kokatu ziren euskaldunak lehenik Hego Ameriketara joandako euskaldunak ziren (Echeverria, 1984).

Nahiz eta hasiera batean urrearen sukarrak erakarri, laster ikusi zuten horrek ez zuela etorkizunik eta artzain hasi ziren. Echeverriak (1999) aurrerago Douglasssek esan duen moduan Mundu Berrira joaten ziren euskaldunak

⁵ 1939an Txilera 2000 espainiar errefuxiatu baino gehiago eraman zituen itsasontzia.

nak artzain arituko ziren. Artzain ez zirenak, hotelak zabaltzen zituzten artzain horientzako.

Echeverriak hotelak zabaltzen zituztenei buruz hitz egiten du eta zona horretan izandako hotelen erreposoa egiten du (Douglass, Urza, White, Zulaika 1999; Zubiri 1998; Echeverria 1984). Hotelen gaia ere Totoricaguenak aztertzen du. Nancy Zubiriak (1998) Estatu Batuetako herri desberdinetan zeuden euskaldunei buruz idatzi zuen (California, Ventura Country, Fullerton, La Puente, Chino, San Diego, Nevada, Winnemucca, Idaho Boise, Oregon eta Washington, Ontario, Seattle, Utah, Colorado, Wyoming eta Montana, eta East Coast). Totoricaguenak ere Boiseko Euskaldunei buruz idatzen du bere *Doers and Dreamers* liburuan eta Boiseko Euskaldunei buruz, baita ere, John Bieter eta Mark Bieter *Un legado que perdura* liburuan. Estatu Batuetako mendebaldeaz gain, izan ziren Europatik zihoan itsasontzitik jaitsi, eta mendebaldera eramango zituen trena hartu barik, Nueva Yorken gelditu zirenak eta etorkizuna Ekialdean egin zutena. Totoricaguenak, Emilia Doyaga eta Anna Mari Aguirreren laguntzarekin Nueva Yorkera joandako euskaldunek burutuko zuten lanari buruz idatzi zuten.

Ipar Ameriketara emigratutako euskaldunak eta bertan burututako lanaren azterketa ere Koldo San Sebastianek 2015ean argitaratutako liburuan biltzen du, non, Estatu Batuetako mendebaldera joandako 10.000 immigranteren testimonioak biltzen dituzten. Anna Mari Aguirrek⁶, baita ere, Koldo San Sebastian lagundu du *NewYorktarrak* liburuarekin, non, oraindik egin gabe zegoen lana egin duten eta New Yorkeko euskaldunei buruz den dena idatzi duten.

Kontinentez aldatuz, Douglasssek Australiako kasua ere aztertzen du, Australiako Iparraldera joandako euskaldunak azukrearen negozioan egiten zuten lan eta hegoaldean konstrukzioan. Douglass 1996 urtean Australiara-ko emigrazioan zentratu zen eta *Azúcar amargo: vida y fortuna de los cortadores de caña italianos y vascos en la Australia tropical* liburua atera zuen. Euskaldunen, eta batez ere, Lekeitio-ko (Douglass, 1996) gizonen helmuga moduan garai batean Australiako Queensland zonaldea izan zela esaten du eta bertan burutako lanaren ikerketa egiten du.

Asiako kontinentera emigratutakoen artean Filipinen kasua dago, De Borjak 2005 urtean Filipinetara joandako euskaldunen ikerketa egin zuten, zeini

⁶ Andoni Aguirreren (Filipinatatik New Yorkera joandako euskalduna, New Yorkeko ordezkartzan lan egiten zuen) eta Irene Renteriaren (Aguirre Lehendakariaren idazkaria izan zen New Yorken) alaba. New Yorkeko euskal komunitateko pertsona aktiboa.

esker badakigun 1512.urtetik Euskaldunak aurki ditzakegula Magallanesen espedizioan. Filipinak konkistazera joandako horiei esker, harreman komertzialak hasi zituzten. Europearrak Manilara iritsi baino lehen, artxipiela goan bazeuzkaten iada harreman komertziala Txina, Indiar eta musulmandarrekin. Legazpik⁷ zeta eta portzelana bidali zituen Mexikora. Galindez, Abrisqueta eta Irujok argitaratutako liburuan (1984) Filipinara joandako euskaldunei buruz hitz egiten dute.

“It was the start of a lucrative commercial venture that would guarantee the survival of the Spanish colonist in Manila for over two centuries. The Basques became actively involved in four main exports of the Philippines at that time: sugar, abaca, tobacco, and coffee” (De Borja & Douglass, 2005).

Emigratzeko herrialdeez eta bertan burututako lanaz gain, emigratzen zuten euskaldunen identitatea zein zen ere aztertzen dute hainbat autorek. Ondorengo puntuan zehaztuko da nortzuk, ze obra idatzi zuten eta ze azpipuntu aztertzen zituzten.

d) Identitatea

Identitateari dagokionean Totorikaguenaren (2000) doktorego tesia da, duda barik, gai hau sakonki jorratzen duena. Bere doktorego tesian Uruguai, Argentina, Estatu Batuak, Australia, Belgika, eta Peruko euskaldunen azterketa egiten du. Amezagak (2004) ere nazioarteko kateek euskal diasporako kideen identitate sortzean duten paperaz hitz egiten du eta dio Euskal Herriaren kasuan, badaudela euren identitatea Canal Vasco edo EitbSat bezelako kateak ikusten indartu dutenak, baita ere sare sozialen bidez edota Euskal Herriko komunikabide digitalei esker (2004). Pedro Oiarzabalek eta bere anai Agustin Oiarzabalek (2005) ere *La identidad vasca en el mundo* liburua argitaratu zuten eta euskal komunitatea dagoen 16 herrialdeetan euskal identitatea nola bizi zuten aztertzen dute. Pedro Oiarzabalek baita ere, Andoni Alonsorekin argitaratu zuen *Diasporas in the New Media Age* liburuko azken kapituluari “Basque Diaspora Digital Nationalism: Designing “Banal” Identity” kapituluari atera zuen, non identitatea mantentzeko euskaldunek atzerrian erabiltzen zituen sinboloen azterketa egiten duen.

Bestalde, generoarekin lotuta, asko idatzi da euskal gizon emigranteen irudiari buruz, oso gutxi, ordea, emakumeek garai horretan izan zuten paperaz, eta hauen garrantziaz nahiz eta, Laxaltek zioen moduan, emakumeak ziren herrietako heroinak: “Though all attention is focused up-

⁷Legazpi eta Urdaneta, Elcano, Juan de Garay, Bruno Mauricio de Zabala eta Domingo Martinez de Iralarekin batera, XVI. mendeko euskal nabigatzaile eta konkistatzaileak ziren.

on the fishermen this day, it is the wives who are the unsung heroes of a fishing village” (Laxalt, 2000:19).

Hutsune horren aurrean, Camus Etchecoparrek (bere doktorego tesian) eta Toticaguenak idatzi dute, baita Echeverriak *Home away from home: A history of basque boarding houses* (1999) eta Gabacciak *From the other side: Women, Gender and immigrant life in the United States 1820-1990* (1994) ere.

Camus Etchecoparek bere doktorego tesian Estatu Batuetako euskal instituzioen ikerketa egin zuen, baina bere ikerketaren zati bat emigratu zuten emakumeetan zentratu zuen. Emakumeak emigrazio eta immigrazio literaturatik kanpo gelditu zirela ikusi eta gero, bere ikerketan bai emakumeek zein gizonen aipaturako instituzioetan zuten papera aztertu zuen. Toticaguenak emigratutako emakumeek euren burua “just wives” moduan aurkezten zutela ikusi ahal izan zuen (Toticaguena, 1999). Euren burua ordezkatzearre zela uste zuten: “Oh, just nothing we just take care of the txikis” (Toticaguena, 1999:293). Horiez gain, Jeronima Echeverriak (1999) boarding house edo hotelak aztertu zituen eta horietan emakumeek egiten zuten lana. Boardinghouse-etan lan egiten zuten emakumeak hotelarak ziren, eta bertan pasatzen zuten egun guztia. Hotelarak hoteletara joaten zirenak euren oinordeko bailiran tratatzen zituzten eta konpainia behar zuten (Echeverria, 1999)

Donna Gabacciak (1994) Estatu Batuetako emakume immigranteen ikerketa egin zuen, eta horien artean euskaldunak zeuden. Gabacciak emakume horiek boarding housetan egiten zuten lana ikertzen zuen:

“The hoteleros responsibilities tended to be the barroom, cardroom, cancha and outside employment contacts; the hoteleras were in kitchen, dining hall, laundry and rented rooms, as well as tending to the family needs” (Donna Gabacciak, 1994).

Laxaltek bere liburuan *The Basque hotel: nacido en America* (1989) emakumeen paperaz hitz egiten du. Laxalt-ek bere amak French Hotelean egiten zuten lana gogoratzean burura ekartzen du Crawford-ek 1977an egindako ikerketa bat. Ikerketa horretan Crawford-ek herri arrantzaletako emakumeek zuten botereaz eta erantzunkizunez hitz egiten du. Gizonen itsasoan igarotzen dituzten hilabete guzti horietan emakumea bait da etxearen arduradun nagusi bakarra. Kasu honetan, gizon artzain eta arrantzaleen emakumeen papera antzekoa dela esaten du, eta hauek lanean bai mendian zein itsasoan dauden bitartean, emakumeek duten papera azpimarratzen du. Hala ere, Toticaguenak (1999) gogoratzen duen moduan, emakumeek egoera txarrak bizi izan zituzten, ez zuten hizkuntza ezagutzen eta etxean ematen zuten ia egun osoa. Horregatik Emakume Abertzale Batza elkarteak sortu zuten Argentinan eta Aitzan Artean Estatu Batuetan. Toticaguenak hauen berri

ematen du eta Euskal Herriaren eta bertan ziren euskaldunen artean emakumeek zuten garrantzia azpimarratzen du: “Emakumeak ziren Euskal Herria eta bizi ziren herriaren arteko komunikazioa mantentzen zutenak” (Totoricaguena, 1999:294).

Egin da azken urtean Boiseko Museoaren eta Boise State Unibertsitatearen esutik *Inner Strength: Portraits of Basque Immigrant Women*⁸ erakusketa Boise State Universityko Students Unionen. Erakusketa honetan mendebaldera joandako emakumeen argazkiak agertzen ziren eta argazki horien ondoan Estatu Batuetara emigratzearen arrazoiak, bertan egindako lana, euren jatorrizko herria etab. Erakusketa 2017 urteko martxoaren 8an egin zen, Elois Garmendia Bieter Etxepareko emakume izena duen lehen katedraren aurkezpena eta emakumearen eguna zela aitzakiatzar harturik. Estatu Batuetan diren diasporako emakumei buruzko ikerketei dagokionez, berriki jakin izan dugu Renoko eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean badela Edurne Arostegi deritzen euskal amerikarra Estatu Batuetako diasporako emakumei buruz tesia egiten ari dena.

Hala ere, oraindik, Totoricaguenak eta Camus Etchecoparrek esan zuten moduan, ez dago emigratu zuten emakumei buruz lan askorik. Eginda daudenak, Ipar Ameriketako emakumei eta eurek boarding housetan izan zuten paperari buruz dira. Baina, zer gertatu zen boarding housetan lan egiten ez zuten emakumeekin edo Ipar Ameriketara barik beste herrialde batzuetara joan ziren emakumeekin? Ikerketa interesgarria izan daiteke etorkizunean egiteko.

1.4.2 Diaspora, euskal diaspora, affinity diaspora eta euskal affinity diaspora

Hainbat izan dira diaspora zer den zehazten saiatu diren adituak (Brubaker, (2000, 2005); Newland eta Plaza, 2013; Ben-Rafael, 2013; Safran, 1999, 2004; Cohen, (2007, 2008); Clifford, 1994; Tötöylan, 2012, Butler eta Kim 2001; Kenny, 2013 eta Ionescu, 2006; Georgiou, 2006, 2010) daude. Hala eta guztiz ere, ez dago oraindik diaspora kontzeptuaren definizio adosturik. Gainera, diaspora hitza, Brubakerrek (2005) dioen moduan aldatzen joan den kontzeptu bat da, eta ““diaspora” diaspora” kontzeptua definitzen du diaspora hitzaren dispersioa azaltzeko. Aikins & White, (2011:31-40); Kuznetsov, (2006), Newland, Terrazas & Munster, (2010); Aikins, Sands & White,

⁸ Boiseko Euskal Museoak erakusketari buruz idatzitakoa:

<https://basquemuseum.eus/see/traveling-exhibits/inner-strength-portraits-basque-immigrant-women-traveling-exhibit/>

(2009); eta Ancien, Boyle & Kitchin-ek, (2009) ere diaspora kontzeptua azaltzen dute eta gero munduan zehar dauden diaspora sareen berri ematen dute.

Euskal diasporari buruz ari garenean, askotan, nahiz eta giza talde berari buruz hitz egiten ari, euskal diaspora barik kanpoan den euskal komunitatea edo euskal migrazioa esan zaio. Adibide moduan, 1999 urteko euskal kolektibitateen Bigarren Mundu Biltzarrean lau urteko planean ondorengoa esaten zuten euskal identitateari buruz: "Identidad vasca: evitar la utilización de la palabra <<diaspora>>, por designar pueblos que carecen de territorio" (Eusko Jaurlaritzak, 1999 urteko Kongresuko Aktak, 2000:59).

Gerora hasi dira euskal diaspora terminoa erabiltzen eta hori erabili dutenen artean Toticaguena eta Oiarzabal daude. Hala ere, Carlos Garaikoetxea Lehendakariak 1984 urtean atera zuen hitzaldi batean diaspora hitza erabili zuen:

"Dentro de lo que consideramos diáspora existen necesidades contempladas en otros apartados de este informe. Sin embargo trataremos de incluir aquello que tenga relación con una asistencia continua a los vascos que viven en el exterior y que necesitan sentirse atendidos por las instituciones y por los vascos que vivimos en Euskadi . Varias son las acciones que pueden emprenderse, (tales como) formación de monitores de grupos de baile, enseñanza del txistu, organización de coros, giras de conferenciantes, giras deportivas, potenciación de campeonatos y ayuda a los Centros Vascos e Ikastolas..." (Legarreta & Mignaburu, 2016:112).

Alcaez Gila, Angulok eta Marcilesek 2007 urteko Euskal Kolektibitateen Mundu Biltzarran aurkeztu zuten hitzaldian esan zuten moduan: "Ya no hablamos tanto de emigrantes, como de la diáspora vasca o de la "octava provincia". Hor aipatzen dutena horrela da, 1990 urtean inguru egiten ziren ikerketetan euskal emigrazioa zen agertzen zena, urteak aurrera egin ahala eta gero eta ikerketa gehiago egiten hasi ahala diaspora kontzeptua sartu zen kanpoan bizi diren euskaldunei erreferentzia egiteko. Beraz, ez dira asko kontzeptu hau definitu dutenak. Horrez gain, ikerketa lan honetan affinity diaspora eta Basque affinity diasporaren kontzeptua definitu nahi da.

Affinity diaspora kontzeptua definitu dutenen artean Aikins, White, Adrien, Boyle, Kitchin, Sim eta Leit daude. Gehienak Eskoziak, Irlanda eta Ingalaterrako affinity diasporak ikertu dituzte. Autore hauen hitzetan affinity diasporak izango dira nahiz eta herrialde bateko kide izan ez, herrialde horrekiko maitasun, erakargarritasun edo interes bat dutenak:

“Is a collection of people, usually former immigrants and tourists or business travellers, who have a different national or ethnic identity to a nation state but who feel some special affinity or affection for that nation state and who act on its behalf, whilst resident in the state, after they return home, or from a third country” (Adrien, Boyle & Kitchin, 2009:14).

Euskal affinity diasporaren kasuan ez da oraindik kontzeptu horren definiziorik egin, beraz, ikerketa honek ekarpen hori ere izango du.

Behin diaspora, euskal diaspora eta *Basque affinity diaspora* kontzeptuak ikertu dituzten autoreak nortzuk diren jakinda, diaspora eta jatorrizko herrialdearen arteko komunikazioa nork aztertu duen ikusiko da. Hasteko orokorra munduan zehar dauden diaspora eta jatorrizko herrialdearen arteko komunikazioa ikertu dutenak nortzuk izan diren ikusiko da, eta gero Euskal Herriaren eta euskal diasporaren arteko komunikazioa zentratuko gara.

1.4.3 Diaspora, harreman publikoak eta diplomazia

Gure ikerketan diaspora, harreman publikoak eta diplomaziaren gaiak ikertzen dira. Hauen arteko eragina nolakoa izan den eta nola diasporako kideak, harreman publikoetako tresnak erabiliz, diplomazia publikoko agente bihurtzen diren. Ez dugu akademia mailan hiru esparru horiek batera aztertzen dituen ikerketarik topatu.

Harreman publikoei buruz egindako ikerketak kontzeptuaren historia eta eboluzioaz (Xifra 2011; Tye 1998; Bernays 1997; Coombs & Holladay 2010 eta Cutlip, 1962) harreman publikoen zereginez edota harreman publikoek dituzten betebeharrak desberdinez izan dira. Askotan, baita ere, harreman publikoen gaia protokolo eta hainbat esparrutako (instituzional, empresarial, politiko...) ekintzen antolaketarekin lotu dira. Ez dugu topa, ordea, harreman publiko eta diasporari buruzko ikerketarik.

Diplomaziaren kasuan bai topatu dugu diplomazia publikoa eta diaspora lotzen dituen ikerketarik (Aldecoa & Keating, 2001; Jiménez-Ugarte, 2006; Murrow, Noya, J. 2006; Oviacionyi Iyamu, 2004; Leonard, 2002; Nye, 2008; Fortner, 1994; De Lima, 2007; Cornago, 2009; Henrikson, 2000; Waller, 2007; Malone, 1985; Ryniejaska, 2009; eta Rasmussen, 2009; Ho & McConnell, 2017). Diaspora diplomazia da hau. Testuinguru zabal batean diasporaren eragin-kortasuna ikertu dutenen artean daude (Trent, 2012; Migration Policy Institute, RAD Diaspora Profile; Riddle, 2008; McConnell, 2017; Bjola, 2016; Jay Gonzalez Joaquín, 2014 eta Stead & Smewing, 2002).

RADek (Migration Policy Institute) Estatu Batuetan dauden diaspora desberdinen egoera ikertzen dute, hala nola, Etiopia, Kolonbia eta Mexikoko diasporak. Riddlek (2008) diasporak herrialde baten garapenean onuragarriak izan daitezkeela esaten du: “By investing their capital in existing business and setting up new ventures in their countries of origin” (Riddle, 2008:39). Aipatutako diasporaren eraginkortasunearen adibide erreal moduan, Jay Gonzalez Joaquín (2014) Filipinako diasporaren garrantziaz hitz egiten du. Orokorrean munduak Filipinei buruz duen irudia nahiko negatiboa izaten dela dio: sumendiak, atentatuak, eskandalu politikoak. Diasporari esker, irudi hori hobetzen da:

“Diaspora diplomacy enables the Philippines and other diaspora states to influence another country’s cultura, politics and economics. The primary drivers of diaspora diplomacy are the basic needs of home and family, as opposed to economy and security. Most migrants meet their family obligations while at the same time contributing to the betterment of their homeland” (Jay Gonzalez Joaquín, 2014).

Tigauk (2014) dio merezi duen garrantzia eman behar zaiola diasporari:

“Ya pasó o debe pasar la época en la que las diásporas eran ignoradas y deslegitimizadas por sus países de origen dentro de determinadas coyunturas históricas, precisamente porque eran consideradas “desnacionalizadas” –es decir, fuera del imaginario colectivo naciona” (2014:425).

1.4.4 Komunikazio (bideak)

Beti izan da diasporaren eta jatorrizko herrialdearen arteko komunikazioa mantentzeko gogoia eta beharra. Komunikazio hori, Ancien, Boyle & Kitchin-ek (2009:14) dioten moduan diasporatik jatorrizko herrialdera zuzendutakoa eta jatorrizko herrialdetik diasporara zuzendutakoa izan da.

1.4.4.1 Homeland diaspora

Jatorrizko herrialdetik diasporara bideratutako komunikazioan instituzioen lana eta instituzioetatik kanpo, gizarteak egiten duen lana dago. Jatorrizko herrialdetik egiten diren komunikazio tresnak ere Gsir & Mescoli-k (2015) ikertu dituzte. Gamlen-i (2006, 2008) erreferentzia egiten diote esanez: “In order to build their diaspora, countries of origin celebrate national holidays abroad, honor emigrants with awards, provide national language history education, etc”. Kenny-k (2013) jatorrizko herrialdeek diasporekin harremana eta komunikazioa mantentzeko burutzen dituzten ekintzen berri ematen du. Hauek ere esaten dute jatorrizko herrialdeek jaialdiak antolatzen dituztela herrialdea atzerrian zabaltzeko:

“In general terms we can state that countries of origin are keen to promote their culture abroad. They organize national or religious celebrations, cultural events or encounters including exhibitions, various artistic performances, seminar and discussions (e.g. the Germany China Tibetan Culture Week was a cultural event co-organized by Germany and China in Berlin and Munich)”.

Ikerketa honetan baita ere aipatzen dituzte zeintzuk diren jatorrizko herrialdeetatik bideratzen diren ekintza kulturalak (Gsir & Mesoli, 2015:21) eta Instituto Cervantes, Goethe Institutes eta Dante Alighieri bezalakoei garrantzi handia ematen die. Zentro edo instituto kultural hauek diplomazia kultural bezala ikusi daitezke.

Badaude diaspora sareei buruz ikerketak egin dituzten autoreak (Kuznetsov, 2006; Aikins & White, 2011; Ionescu, 2006). Diaspora sareei buruz hitz egiten denean Kingsley Aikinsen izena agertzen da gai hau ikertu dutenen artean erreferente bezala.

Autore hauek hainbat herrialdetako diaspora sareak ikertzen dituzte, hala nola, India, Armenia, Txina eta Hego Afrika. Ionescuk ere diaspora sareak aztertzen ditu eta bere lanean alde ekonomikoaz gain, sare hauetako parte diren alde soziala, humanoa, afektiboa, finantziora eta enpresariala ere aztertzen ditu (2006:9). Brinkenhoffek ere gai hau ikertzen du eta diaspora sareen garrantziaz hitz egiten du (2010:43). Kingsley Aikinsek eta Martin Russelek diasporarekin harremana mantentzeko eta sare horiek sortzeko arrazoiak zein zen esan zuten 2003 urtean “European Strand of the Global Diaspora Forum”-eko sarrera artikuluan. 25 arrazoi ematen dituzte diasporarekin harremana izatea beharrezkoa dela erakusteko. Pedro Oiarzabalek ere gehitzen du diasporarekin harremana mantentzeko arrazoiak sare transnazionalak sortzen direla da:

“Diaspora associations create transnational networks that maintain varying degrees of personal, institutional, cultural, social, economic, political and business ties with the homeland and with other countries where there is Basque presence: a globe-spanning network of attachments and allegiances” (Alonso & Oiarzabal, 2010:339).

Aikins ere Oiarzabalekin ados dago eta bere hitzetan sareek ez dituzte bakarrik pertsonen arteko komunikazioa eta trukea, jakinduria eta kapitala garatuko, horrez gain, garapen ekonomiko, politiko eta sozialean ere laguntzen dute (Aikins, Russel, 2013:15).

Kuznetsov-ek (2006) indiar eta txinatar diasporarekin sareak sortzeko beharra argi ikusten du bere ikerketan. Autore gehienek diaspora sareak zer diren azaldu eta gero, diasporako kide batek sare horretako parte izan nahi izateko jatorrizko herrialdeak diaspora estrategia bat izan behar duela esaten

dute. Diaspora estrategia ekimen politiko bat da estatu edo gizarteak aurrera eramango duena eta zeinen helburua jatorrizko herrialdea eta diaspora edo affinity diasporaren arteko harremana den (Ancien, Boyle, & Kitchin, 2009:14). Diaspora estrategia bat zer den aztertzen duten autoreen artean daude Aikins & White, 2011:31-40; Newland, Terrazas & Munster, (2010); Aikins, Sands & White, (2009); eta Ancien, Boyle & Kitchin, (2009) daude.

Ikerketa gehienetan hasieran diaspora eta affinity diaspora hitzaren definizioa zehazten dute. Gero diaspora estrategia zer den definitzen dute, diaspora estrategia bat estatu edo gizarteak aurrera eramango duen ekimen politiko bat da zeinen helburua jatorrizko herrialdea eta diaspora edo affinity diasporaren arteko harremana den (Ancien, Boyle & Kitchin, 2009:14). Aikins & White, (2011: 2) ere ados daude diaspora estrategia kontzeptua azaltzean eta helburua jatorrizko herrialdearen eta diasporaren arteko harremanean duen ekimen politiko edo ekimen politikoen seriea direla diote. Diaspora estrategia bat Aikinsen hitzetan: “An explicit systematic policy initiative or series of policy initiatives aimed at developing and managing the relationships between homeland and diaspora populations” (2009:3).

Instituzioetatik kanpo burututakoak, badaude diasporari zuzenduriko komunikabideen azterketa egin duten autoreak, eta horien artean, Karim, (1998, 2003); Mowlana, (1997); Ogunyemi, (2015); Riggins, (1992); Fogt & Sadvik, (2008); Goitom, (2010); Oyeleye, (2010); Gordano, (2009); Tandian, (2010), Smets (2011,2013), Leurs & Ponzanesi (2011), eta Georgiou, (2003) daude. Orokorrean diasporak euren jatorrizko herrialdearekin maila transnazionaleko harremanak izateko komunikabideak nola erabili dituzten ikertzen dute. Karimek diasporari zuzenduriko telebista kate batzuk aztertzen ditu, adibidez, Estatu Batuetako komunitate juduak idatzitako egunkaria, Zimbabweco diaspora egunkariak eta Bulgarian daude errumaniarren diaspora egunkaria.

Karimek dio medio digitalak diaspora eta jatorrizko herrialdearen arteko harremana estutzeko tresna direla. Horren harira, Bozdog, Hepp and Sunak ere diaspora medioa ikertzen dute: “Diasporic media as the media that are produced by and for migrants and deal with issues that are of specific interest for the members of diasporic communities” (2012:96) eta Ogunyemik ere berdina dio (2015:1). Ogunyemik bere liburuan diaspora mediaren kontzeptualizazioa egiten du beste autore batzuetan oinarrituta. Horrez gain identitate hori lortzeko komunikabideek duten papera oso garrantzitsua dela diote: “This implication is also possible today thanks to the extension of media coverage” (Gsir & Mesoli, 2015:17). Hori erakusteko diasporarekin

zerikusia duten hainbat komunikabide aipatzen dituzte (Gsir & Mesoli, 2015:18).

Diasporako kideek burutzen dituzten ekintzak nazioarteko harremanetan duten garrantzia aipatzen dute eta herrialdeak diasporaren garrantziz konturatzen ari direla diote (Paschalidis, 2009; Gsir, & Mesoli, 2015:23). Badaude jatorrizko herrialdetik diasporarekin komunikatzeko erabili diren komunikazio tresnen ikerketak egin dituztenak, ez da topa, ordea, horrenbeste ikerketa diasporatik jatorrizko herrialdearekin komunikatzeko egindako gauzena.

Era orokor batean diaspora eta jatorrizko herrialdearen arteko komunikazioa nola materializatu den ikusi ahal izan da. Euskal diaspora eta Euskal Herriaren artean ere, bi norabide topa ditzakegu komunikazioa: Homeland Diaspora, non erakundeek eta Euskal Herriatik burutzen diren ekimenak aztertuko ditugun; eta Diaspora Homeland, non diasporako kideek burutzen dituzten ekimenak aztertuko ditugun. Autore desberdinek euskal kasuan komunikazio bide hauei buruz esan dutena aztertuko dugu ondoren.

Gaira hurbilduz: Euskal Herriaren kasua

Euskal Herriatik kanpoan diren euskaldunei zuzenduriko komunikazioan erakundeen eskutik egindakoak eta erakundeetatik kanpo egindakoak daude. Euskal Herriatik diasporarekin harremana mantentzeko egindako ekintza instituzionalen ikerketak Ugalde eta de Castro Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak egin dituzte: Kanpo Harremanetako urterokoa (2004, 2005, 2006, 2007, 2008-2009, 2010, 2011-2012). Hor Kanpo Harremanetako ekintzen artean, euskal diasporara begira egiten diren ekintzen berri ematen dute: diasporari zuzenduriko diru laguntzak, euskal etxeentzako diru laguntzak, Gaztemundu Programa, bisita instituzionalak...2014, 2015, 2016 eta 2017 urteetan *Informe de la Secretaria General de Acción Exterior al Parlamento Vasco* argitaratu da, batez ere, Europan eta Europar Batasunaren baitan Euskadik duen partehartze eta lekuari buruzkoa baina ez da kanpoan bizi diren euskaldunei edo euskal etxeei buruzko urtekaririk idatzi Ugalde eta De Castroren azken urtekaritik.

Totorikaguenak ere jorratzen du gai hori eta diplomazia publikoa eta paradiploiazia aipatzen ditu. Boise State Universityko Bieter eta Ray irakasleek (2015) ere egin dute harreman honi buruzko ikerketarik.

Nazioarteko katea ere komunikatzeko bide esanguratsua izan da. Nazioarteko kateei (Canal Vasco, EtbSat) buruz idatzi dutenen artean Amezaga, (2004, 2008); Peñafiel, (2008); Gomez, (2008); Casado, (2008) eta Arroyabe, (2008) daude. Batez ere, euskal kateen nazioartekotzeaz hitz egiten dute, horiek kontsumitzen dituztenei egindako elkarrizketan bidez kateek izan zuten eta duten erabilgarritasuna ikertu dute. Peñafielek, Casadok, Fernandez de Arroyabek eta Gomezek GALEUSCA TVren ikerketa egin zuten. ETB, TV3 eta TVGrekin batera Ameriketako HISPASATen bidez emititzeko aukera aztertu zen, proiektu honen izena GALEUSCA TV izan zen, eta 1996 urteko abenduan hasi zen.

Amezagak satellite bidezko telebistei esker “komunikazio bidea zabaldu eta eremu nazionalak, pannazionalak, geostrategikoak, linguistikoak, diasporikoak eta globalak daudela dio” (Amezaga, 2004). Amezagak, baita ere, Canal Vascoren azterketa egiten du eta: “Nazionalismoaren garapenean prentsak izan duen garrantzia aipatzen duen bezalaxe ukaezina da hedabideak, oro har, komunikazi eremu estatu-nazionalaren eraikuntzan bitartez, nortasun prozesuetan izan duten eragina” (Amezaga, 2004:191).

Ikerketa honetan Euskal Herriaren eta kanpoan diren euskaldunen eta horiek bizi diren herrialdeen artean sortutako sare akademiko, kultural, familiar, eta enpresa artekoak aztertuko dira. Sare akademikoari dagokionez, Oiarzabalek badu Nevadako Center for Basque Studiesi buruz 2007an egindako lan bat *A Candle in the Night: Basque Studies at the University of Nevada: 1967-2007*. Center for Basque Studiesen sorrerari buruz da eta sare akademikoa uztartzen da. Liburua hiru partetan zatitzen du, lehen zatian Basque Studiesen historia kontatzen da, bigarrean zelan Basque Studiesen eboluzioa eta azkenekoan USAC-en sortzea eta honen eboluzioa. Hala ere, ez du hau sare akademiko baten sorrera moduan aurkezten.

Bestalde, lan horrez gain, ez dago euskal diaspora sareak aztertzen dituen lan akademikorik.

Insituzioetatik kanpo burututako ekintzen artean:

Euskal Herriatik diasporara begira egin dira hainbat ikusentzunezko produkzio. Asko kanpoan diren euskal komunitatera joan, grabatu eta Euskal Herrian horren berri emateko egin dira. Asko izan arren produkzio horiek, oraindik ez da egin horren inguruko ikerketarik. Lan honen beste ekarpenetako bat hori aztertzea ere izango da.

Euskal migrazioari buruz idatzi diren argitalpenei buruz egindako errepa-soa egin ondoren ikusi ahal izan dugu zeintzuk izan diren orokorrean emi-

grazioaren gaia ikertu dutenak, eta gure ikerketa gaira hurbilduz idatzi diren lanak. Ikusi ahal izan dugunez badira oraindik ikertu gabeko gai batzuk, eta gure helburua horiek aztertzea izango da. Ikertu bako gai horien artean, gure ikerketa gaia den Euskal Herria eta euskal diaspora komunikatzeko erabiltzen diren tresnak daude.

1.4.4.2 *Diaspora Homeland*

Kanpoan bizi diren euskaldunek Euskal Herriarekin eta beste herrialde batzutan zeuden edo dauden komunitateekin komunikatzeko hainbat era izan dituzte. Horien artean medio tradizionalak, jaialdiak, euskal etxeak, elkarteak eta diaspora ekintzak daude.

a) Komunikabideak

Komunikatzeko medio tradizionalak aztertu dituzten autoreen artean Andrés de Irujo, (1954); Amezaga, (2004, 2008); Peñafiel, (2008); Casado, (2008); Fernandez de Arroyabe, (2008); Gomez, (2008); Etxarri, (2001); Totoricaguena, (2001, 2007); Echeverria, (1984); Douglass, (1986,1999,2003); Urza, (1999); White, (1999) eta Zulaika, (1999); Azcona, (1992) eta García Albi Bil de Biedma(1992); Muru Ronda, (1992) daude. Guztien ikerketa lerroa ez da komunikazio bideak aztertzea, hala ere, zertzeladak ematen dizkiote atzerrian argitaratutako aldizkariari edo egunkariari.

Komunikatzeko bideen artean gehien ikertu dena atzerrian argitaratu diren aldizkariak eta egunkariak izan dira. Totoricaguenak egindako doktorego tesian aipatzen du 1885an Los Angelesen euskaraz idatzitako lehen egunkaria *Escualdun Gazeta*. Etxarrik (2001) Ameriketan zeuden euskal egunkarien berri eman zuen baita gerra garaian zabaldu ziren argitalpenei buruz ere. Javier Díaz Nocik (2012) euskal kazetaritzaren errepaso egiten duenean atzerriko euskal aldizkarien berri ematen du. Azconak, García Albik eta Muru Rondak ere Argentinara joandako euskaldunei buruz idatzi zuten liburuan (1992) badute “Diaspora eta Prentsa lokala”ri buruzko kapitulua. Aznar Soler-ek (2006) “Escritores, editoriales y revistas en el exilio republicano de 1939” en ere aldizkari horiek aipatzen ditu. Andrés de Irujok (1954) Ekin argitaletxearen nondik norakoak aztertu zituen “La editorial vasca Ekin de Bueno Aires” ikerketan. Koldo San Sebastianek 2018 urtean argitaratutako *NewYorktarrak* eta *Pagar por vivir, biografía de Jon Bilbao Azkarreta*-n New Yorken argitaratutako Euskal aldizkariak ere aipatzen ditu, adibidez, *Ambos Mundos*.

Atzerritik emititutako irratiei buruz badago egunkariko albistirenbat Radio Euskadi sortu zenekoa eta atzerritik izan zuen ibilbidea aztertzen duena. Iberlin D eta Romtvedt Dek (2011)an Buffalos KBBS Irratian Euskara Ordua entzuteko aukera zegoela esaten zuen (Iberlin & Romtvedt, 2011). Leire Arrietak Radio Euskadiren ikerketa egin zuen.

b) Jaialdiak, kongresuak eta biltzarrak

Gure ikerketan harreman publikoetako ekimenak euskal diasporaren eta jatorrizko herrialdearen arteko komunikazioan eragina dutela esaten dugu. Harreman publikoen munduan hainbat ikerketa egin dira harreman publikoen profilaz, euren eginbeharrez, komunikazio arduradunez, edo komunikazio instituzionalean harreman publikoek duten garrantziaz, ez da aurkitu, ordea, diaspora eta harreman publikoak biak batera uztartzen dituen ikerketarik.

Euskal diasporaren kasuan, badira jatorrizko herrialdea eta euskal diaspora konektatzeko antolatzen diren harreman publikoetako ekimenak, horien artean daude, jaialdiak eta kongresuak edo biltzarrak.

Jaialdiak dira diasporak bideratutako komunikazio motetariko bat. Euskal diasporak antolatzen dituen jaialdi esanguratsuenen artean Argentinako Semana Nacional Vasca eta Boiseko Jaialdia daude. Boiseko Jaialdiari buruz Douglasssek, (2003); Fdz. De Larrinoak, (1991) Bieter eta Ray-k (2013); Totoricaguenak, (2000); Echeverriak, (1999); Elustondok, (1998) eta Zubiriak, (1998), Goirizelaiak eta Iturreguik (2016) idatzi dute. Lan gehienetan Estatu Batuetan sortutako lehen jaialdia noiz sortu zen, nork hartu zuen parte eta helburua zein zen ikertu da. Aipatzekoa da, lan akademikoaz gain, hainbat dibulgaziorako lan egin direla Boiseko Jaialdiari buruz (EITBko dokumentalak eta argitalpenak egunkari eta aldizkarietan). Autore gehienek 1959.urtean Sparks-en antolatu zen jaialdia 1987 urtetik aurrera Boisen antolatzen den Jaialdiaren aurrekoa bezela ikusten dute. Fernandez de Larrinoak *The Western Basque festival* liburuan honen berri ematen du. Douglasssek eta Jon Bilbaok ere *Amerikanuak: Basques in the New World* liburuan jaialdi hauek aipatzen dituzte.

Douglasssek, Urzak, Whitek eta Zulaikak (1999) euskal diaporarekin antolatu diren kongresuak, baita euskal-amerikarrek biltzeko antolatzen zituzten jaialdiak Estatu Batuetako mendebaldean azaltzen dituzte. Horrez gain, Douglasssek ere, lehen euskal jaiari buruzko informazioa ematen du. Zubiriak (1998) Estatu Batuetako jaialdi edo ospakizunen azterketa egiten du eta 2016 urtean Mignaburuk eta Legarretak urteetan zehar antolatu diren euskal-argentinak kongresuen bilketa egiten dute.

Boiseko Jaialdiarekin aldaratuta, oso gutxi idatzi da Argentinan antolatzen den *Semana Nacional Vasca* edo *Buenos Aires Celebra al País Vasco* buruz. Semana Nacional Vasca urtero antolatzen den jaialdia da eta Erta eta Hego Ameriketako 50 euskal etxeetako ordezkariak, mundu osoko euskaldunak eta ordezkari instituzionalak biltzen dira. Hala ere, gutxi idatzi da horri buruz eta are gutxiago, edo ezer, maila akademikoan. Posible da garai horretako aldizkarietan begiratuz gero, *La Basconia* eta *Euzko Deya* bezalakoetan Argentinako Euskal Aste Nazionalaren inguruan idatzitako berriak aurkitzea. Bestalde, aurkitu ahal izan dugun artikulua bakarra Eduardo Torryren (2012) "La semana nacional vasca: una tradición del colectivo vasco argentino" izan da non Euskal Aste Nazionala informazioa ematen duen.

c) Euskal etxeak eta Elkarteak

Nahiz eta Euskal etxeen lehen helburua ez izan Euskal Herriarekin komunikazioa mantentzea, lortu duen zerbait da. Horrez gain, euskaldunak Argentina eta Estatu Batuak bezalako herrialde handietan zeudelez, distantziak handiak ziren eta ez zen erreza herrialde berean zeuden euskaldun eta euskal etxeen arteko komunikazioa. Horregatik elkarteak sortu ziren komunikazio horizontal hori errazteko. Elkarte hori, Estatu Batuetan NABO (North American Basque Organization) deituko zen eta Argentinan FEVA (Federación de Entidades Vasco Argentinas). Estatu Batuetako NABOri buruz ikerketak egin dituztenen artean Argitxu Camus (*A Historical Comparative Study of Basque Institutions in the United States*, 2008) eta Totoricaguena dauzkagu; eta Argentinako FEVAri buruz idatzi dutenen artean Josu Legarreta eta Magdalena Mignaburu (2016).

d) Komunikazio 2.0

Komunikazio 2.0 eta interneten erabilerari dagokionez, Fogt-ek eta Sadvik-ek (2008) internetek eta teknologia berriek kanpoan bizi diren herritarrak euren jatorrizko herrialdearekin komunikatzeko balio dutela diote. Goitomek (2010) interneten garrantzia azpimarratzen du eta dio minoritieak behartuta daudela komunikabide digitalak erabiltzera euren jatorrizko herrialdeari buruz informazioa jasotzeko: "Parents expect the digital media to construct the identity and sense of belongingness among their children" (Goitom in The Journalism of Diaspora Symposium, University of Lincoln Friday 10 September 2010). Amezagak berdina esaten zuen Canal Vascok Hego Ameriketako herrialdeetan zuen eragina ikertu zuenean.

Beraz, badaude diaspora digitalak (Laguerre, 2010; Gajjala, 2003), diasporeri zuzenduriko webguneak (Bernal, 2005) eta teknologia berriek diasporarengan duten eragina (Brinkenhoff) aztertzen dutenak. Pedro Oiarzabalek (2013) ere euskal diasporako elkarteak internetera egin duten saltua eta diaspora digitalaren garapena ikertzen du.

Ponzanesi & Leursek diote:

1848 urtean urrearen sukarra izan zen eta euskaldunak joan ziren bertara lan egitera. Aipatzekoa da, aurrerago esan bezala, Kaliforniara joandako euskaldun horietatik gehiengoak bigarren aldiz emigratzen zuela, hau da, lehenengo Hego Ameriketara emigratu zuten, eta handik Kaliforniara urrearen sukarrarekin batera. Nueva Yorkera joandakoak, ordea, beste era bateko lanak burutuko zituzten:

“Worked on the docks, in the ports, on the tugboats and ferries, in brick factories and sugar refineries, and on the railroads. They established grocery stores, restaurants, food and wine delivery business, and distribution centers for imported European foods. Worked as trailers and seamstresses, in furniture manufacturing, in the hotels, as artist, musicians, engineers, teachers, policeman and business leaders” (Totoricagüena, 2003:64).

Honekin lotuta, Valentín Aguirrek zioen: “The Spaniards have very little chance to work on the docks, for the Irish have all the jobs. They work instead in the power houses, factories, and in the kitchen or engine departments of the ships” (San Sebastian, 2018:93).

Asko, urrearen bila arrakastarik izan ez eta artzain sartu ziren. Euskaldunak izateak ez zuen esan nahi Euskal Herrian aurretik artzain lanetan ibiliak zirenik, are gehiago, gehiengoak ez zuen ia inoiz artzain lanik egin, eta gutxiago 2.000 ardi bururekin. Hala ere, hori izan zen euskaldunek hartu zuten ogibidea, eta hortik aurrera artzain aritu ziren mende ugariz.

Emakumeen kasuan, ordea, Estatu Batuetan burutzen zuten lana bestelakoa zen. Gehingoak euskaldunen etxe, jatetxe eta lagunartean egoteko leku ziren *boarding houses*etan lan egiten zuten (Douglass, Urza, White and Zulaika, 1999).

Hortik aurrera migrazio ugari lan kontuengatik edo politikagatik izan da. Euskal Herrian lanik topatu ez eta Ameriketara zuten familiarengana joaten ziren bertan lan egitera, dirua irabazi eta Euskal Herrira bueltatzeko ideiarekin. Asko ez ziren inoiz bueltatuko. Gerora ere, Estatu Batuetan lehen frontoiak sortu zirenean euskaldunak frontoi horietara joango ziren Jai Alai edo zestara jokatzera, eta horrek ere, sortu zuen frontoiak zeuden herri horietan euskal komunitate bat.

Arrazoi eta garai desberdinengatik, euskaldunek leku bat edo beste bat aukeratu dute euren bidaia hasi edo amaitzeko. Gure lanean, helmuga moduan Estatu Batuak aukeratu zuten Euskal herritarretan zentratuko gara. Estatu Batuetara joan eta bertan bizi bat sortu eta Estatu Batuetako euskal komunitateko kide diren horietan.

5.2 Euskaldunak Estatu Batuetan. Datu geografikoak

Orain arte ikusi dugu nolakoa izan den euskal emigrazioa mundu osora eta zeintzuk izan diren migrazio horren arrazoiak eta helmugak. Orain, Estatu Batuetan dagoen euskal komunitatean edo diasporan zentratuko gara. Zergatik immigratu zuten euskaldunek Estatu Batuetara, Estatu Batuetako zein estatutara joan ziren eta zer egin zuten estatu horietan? Hori ezagutu ahal izateko gaiari buruz idatzita dagoena irakurri dugu eta sakoneko elkar-irizketak egin ditugu estatu desberdinetan bizi diren euskaldunekin. Horrez gain, Estatu Batuetan bizi diren euskaldunen artean zabalduko inkesta bati esker (N=424) jakin al izan dugu zein den bertan bizi diren euskaldunen egoera, zein probintzitatik datozen, zein belaunalditakoak diren eta zein estatutan dauden euskaldunak.

Bostgarren atal honetan datu orokorrak emango ditugu, hau da, Estatu Batuetan bizi diren euskaldunenak estatuka edo zonaka banandu gabe. Ikerketa honek, ordea, aukera eman digu datu zehatzagoak eta ikerketa sakonago bat egiteko, horregatik, bederatzigarren atalburuan ikerketa esploratorio bat egin dugu, non Estatu Batuetako euskaldunak zonaldeka bananduko ditugun eta datuak ere, orokarrak barik, zona horien arabera atera ditugun. Argitu nahi dugu, ondoren erabiliko diren datuak *online* zabalduko inkesta baten erantzunetan oinarrituta daudela. Erantzun kopurua altua (N=424) da konklusioak atera ahal izateko baina errepikatu nahi dugu, badagoela komunitateko parte handi bat inkesta honetatik kanpo geratu dena.

Migrazioa, bai emigrazioa zein immigrazioa beti izan da Euskal Herriko historiako parte bat, eta, emigrazioaren kasuan, Estatu Batuak, beste herrialde batzukin batera, Euskal Herriko helmugetariko bat izan dira. Itsasoarekin duen lotura dela eta, euskaldunak Estatu Batuetako kostetara joan ziren XVI eta XVII.mende inguruetan bale eta bakailao arrantzan (Douglass et al., 1999:95), hala ere, euskal emigrazioaren garairik nagusienetakoa, beste hainbat europearrekin batera, XIX. mende amaieran eta XX.mende hasieran izan zen. Behin herrialde berrian kokaturik zeudela, migrazio katea hasiko zen, eta euren familia eta lagunak, lehen emigrante horiek zeuden lekuetara joango ziren lan bila.


Hori dela eta, Estatu Batuetako hainbat estatutan euskaldunak topa ditza-kegu eta egun, 38 euskal etxe daude herrialdean. Horrez gain, NABO (North American Basque Association) deritzen elkarteak ere dago, zeinek euskal etxe horien arteko harremana eta Estatu Batuetako Euskal etxe eta Eusko Jaurlari-

tzaren eta Euskal Herriaren arteko harremana bideratuko duen. 2000 urteko erroldaren arabera, egun Estatu Batuetan bizi diren pertsonetatik 57.793 diote euskal jatorria dutela eta ikerketa hau aurrera eramateko 2018 urteko maiatza eta ekaina bitartean egindako inkestaren erantzunek (N=424) diote erantzundakoen ia 100%ek euskalduntzat duela bere burua.

1. Irudia: Euskal identitatea Estatu Batuetan

5.- Do you consider yourself Basque? / Euskalduna sentitzen zara?

420 respuestas



Iturria: Autoreak egin a inkestaren 5. galderaren erantzunen bidez

Ehunera heltzeko falta den kopuru horrek dio euskal amerikarrak, euskaldunak baina ez dutela euskaraz hitzik egiten edota euskal mexikarrak direla. Inkesta hau 424 pertsonen erantzun dute, horietatik gehiengoak Bizkaian du jatorria eta bigarren belaunaldiko euskaldunak dira, hau da, euren aitona edo aita edo ama izan ziren Euskal Herritik Estatu Batuetara joan zirenak.

2 Taula: Estatu Batuetan dauden euskaldunen probintzia

PROBINTZIA	EHUNEKOA
BIZKAIA	%54,35
GIPUZKOA	%17,22
NAFARROA	%15,09
BEHE NAFARROA	%11,79
LAPURDI	%5,19
ZUBEROA	%1,65
ARABA	%3,07
Ez dakit	%9,43

Iturria: autoreak egin a inkestako erantzunekin

Belaunaldiari dagokionez, gehiengoa bigarren belaunaldikoa dira, hau da, euren aita edo ama Euskal Herritik Estatu Batuetara joan ziren:

3 Taula: Estatu Batuetan bizi diren euskaldunen belaunaldia

Lehen belaunaldia	Bigarren belaunaldia	Hirugarren belaunaldia	Urrunagoko harremana
%18,87	%42,92	%35,85	%10,61

Iturria: autoreak egina

Estatu Batuetara joandako euskaldunak hiru zonatan kokatu dira gehienbat. Alde batetik mendebaldera joandakoak (Arizona, California, Colorado, Idaho, Montana, Nevada, Oregon, Utah, Washington state Winnemucca eta Wyoming), bestetik Ekialde Iparraldera joandakoak (north east coast and mid-atlantic states), eta amaitzeko hegoaldera (Floridara) joandakoak.

4 Taula: Euskaldunen kopurua estatu desberdinetan

ERROLDA DATA 2000 URTEAN (people with one or more ancestry)	
CALIFORNIA	20,868
IDAHO	6,637
NEVADA	6,096
OREGON	2,627
FLORIDA	2,127
UTAH	1,361
NEW YORK	1,252
MARYLAND	399
MASSACHUSETTS	383
NORTH CAROLINA	330
CONNECTICUT	262

Iturria: US Census data 2000

Autore gehienak, mendebaldean dauden euskaldunei buruz idatzi dute, Nevada, Idaho eta Californiara joandakoei buruz, hain zuzen, baina Estatu Batuetako mendebaldean euskaldunak topa ditzakegu Arizona, Colorado,

Montana, Texas, Oregon, Utah, Washington state, Winnemucca eta Wyoming-en.

Mendebaldera joan ziren euskaldunek ez zuten prestakuntza profesionalik eta egiten zituzten lanak, batez ere, fisikoak ziren. Burutzen zituzten lanen artean ezagunena artzainena zen. NABOko president ohia eta egun Boiseko Euskal Museoko zuzendari den Annie Gavicaren hitzetan: “My great grandparents are from Ispaster and in the other side from Urepel. They emigrated over to Nevada, mostly and work with sheeps and cattle” (komunikazio pertsonala, 2018 urteko apirila).

Horrez gain, Kalifornia zonaldeko euskaldunek ere, lorategiak zaintzen irabazi zuten euren bizia edota esnearekin lotutako enpresetan: “...my uncle who worked on dairy farms in Southern California...” (Anne Marie Chiramberro, the responsible of the Hella Basque blog, active member in the Basque community in California, personal communication, April 2018, California).

Euskaldunek euren izena lortu zuten artzain eta langile fin moduan eta horrek migrazio katea sortu zuen Euskal Herriko herri batzuen eta Estatu Batuetako herri batzuen artean. Migrazio kate hori dela eta, Euskal Herriko herri batzuk ia gazte gabe gelditu ziren, denak Ameriketara joan zirelako.

Mendebaldetik ekialderantz bagoaz, New York, Boston, Connecticut, North Carolina eta Rhode Island topako ditugu bidean. Estatu horietara ere immigratu zuten euskaldunek baina bertara joateko arrazoiak edota bertan burututako lana desberdinak ziren. Alde batetik, marinel edo arrantzaleak denbora batez gelditzen ziren lekua zen; bestalde, New York izaten zen mendebaldera lanean joaten ziren euskaldunen lehen geltokia eta Valentín Aguirrek horrekin laguntzen zien:

“También recibía bastante gente que iba al oeste. Él les ayudaba con la conexión, billetes...El acogía a todos lo que venían y los que no tenían posibilidad, con que ayudasen un poco, les dejaba dormir” (Juan Jacinto Legarreta, active member of the Basque center in New York, personal communication, April 2018).

Bai ekialdean zein mendebaldean egindako elkarrizketetan Valentín Aguirreren izena agertu da. Pertsona ezaguna da New Yorkeko euskal komunitatean, helduberriak laguntzen zituen New Yorken kokatzen edota mendebaldera egin behar zuten bidaia prestatzen.

Zona honetara joandako euskaldunak hiru taldetan banatu ditzakegu: arrantzaleak eta XX.mende hasieran lan bila joandako euskaldunak; gerra garaian

Agirre Lehendakariarekin batera Euskal Herritik joan behar izan zutenak; eta XX.mende erdialdean zesta jokatzera joandako pilotari profesionalak eta azken urteotan garapen ekonomiko eta profesionalaren bila dabiltzan gazte kualifikatuak.

Amaitzeko, Floridako estatuan ere euskaldunak topa ditzakegu gaur egun. Euskaldun horiek zesta jokalaria profesionalak dira. Batzuk egun aktibo dirauten jokalaria gazteak, beste batzuk iada erretiratuta daudenak eta besteak eurekin batera etorritako bikote eta familia. Floridan lehen frontoia sortu zenetik, 1924 urtean Miamin, euskaldunak etorri izan dira Estatu Batuetako zonalde honetara eta egun, oraindik, hartu emon hori existitzen da.

Esan bezala, bederatzigarren atalburuan zonalde horietako euskaldunen nondik norakoak hobeto azalduko ditugu. Horra heldu arte, ikerketa orokorra izango da.

SEIGARREN ATALBURUA

HOMELAND DIASPORA KOMUNIKAZIOA

“Euskadi necesita a la diáspora vasca, así como la diáspora vasca necesita a Euskadi . La diáspora vasca necesita a Euskadi para que la savia vaya subiendo desde las raíces por el tronco a todas las ramas y a todas las hojas del árbol, para que el árbol siga vivo. Pero Euskadi necesita también a la diáspora para que Euskadi y los vascos de Euskadi no se duerman y para que mantengan viva la conciencia de que deben guardar, conservar y desarrollar la casa del padre, la casa común de todos los vascos” (Joseba Arregi, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailburua, Bahía Blanca 1990, Euskaletxeak aldizkaria, 1990 urteko urtarrila²⁷)

Euskal diasporaren eta Euskal Herriaren arteko komunikazioa garrantzitsua izan da hasieratik eta hori erakutsi dute harreman honetan alde batean zein bestean daudenak. Komunikazio horretan parte hartu izan dute familiek, indibiduo moduan; erakunde, komunikabide eta elkarteek, instituzio moduan; eta gizarte eta komunitateak, kolektibo bezala. Tesi lan honetan aztertuko da nola-koa izan den komunikazioa eta harremana Euskal Herritik eta diasporatik eta seigarren atal honetan, zehazki, Euskal Herritik diasporara. Ez ditugu aztertu,

²⁷ Euskal Etxeak aldizkaria, 1990 urteko urtarrila: http://www.ivap.Euskadi.eus/contenidos/informacion/06_revista_euskaletxeak/es_ee/adjuntos/08_c.pdf

gizarteak orokorrean martxan jarri dituen ekintzak, horrek bakarrik tesi oso bat beharko lukeelako eta nahiago izan dugu hori aurrerago egiteko utzi. Horrez gain, euskal kasuan zentratu baino lehenago, era labur batean, munduan beste diaspora eta herrialde batzuk burutzen duten lana aztertuko da.

Bai mundu zein Euskal Herri mailan ari garenean, azterketa bi ataletan banatuko da: alde batetik, medio eta komunikabideen lana, eta, bestetik, gobernu, instituzio, elkarten eta gizartearen lana. Euskal Herriaren kasuan, bi atal hauek garaitan banatuko digutu, errezagoa iruditu zaigulako lana horrela antolatzea. Beraz, bai medio eta komunikabide; zein instituzio eta elkarten lana bananduko dugu: Gerra Zibiletik Eusko Jaurlaritzara sortu zen lehen urteetara dagoen garaia (1937-1986); urte horretatik Kanpoan bizi diren euskaldunekin harremana izateko legea sortu zen urtera (1986-1994); eta urte horretatik gaur egun arte (1994-gaur egun). Hiru periodo horiek hito desberdinak markatu dituzte komunikazio eta harremanean eta horregatik banandu dugu lana horrela.

6.1 Munduan

Diaspora eta jatorrizko herrialdearen arteko komunikazioa hainbat eratakoa izan daiteke. Komunikazio bide eta tresna horien azterketa orokorra egin duten autoreen artean Kenny (2013) eta Ancien, Boyle & Kitchin (2009:14) daude. Beste diaspora komunitate batzuk ikertu dituztenen artean: Panagoula Diamanti-Karanou-k (2015) Grezia eta Estatu Batuetan bizi diren greziarren arteko harremana eta elkarteak aztertzen ditu; Daphne Naomi Winland-ek (2007) eta Ivana Djuric (2003), kroaziar diasporari buruz ikertu dute; eta Khachig Tololyan eta Ruben Yeganyanek (2013) armeniar diaspora ikertu dute.

Jatorrizko herrialdeetatik euren diasporetara bideratutako tresnen artean gobernuak martxan jarri dituztenak eta komunikabide edota medioenak identifikatu ditugu.

6.1.1 Gobernua

Jatorrizko herrialdeetako gobernuak diasporarekin harremana eta komunikazioa mantentzeko burutzen dituzten ekintzen artean, harreman publikoetako ekintzak (konferentziak, diasporaren eguna, ekitaldiak), ekimen instituzionalak (kooperazio proiektuak, kanpoan diren herritarrentzako bulegoa, jatorrizko hizkuntzako eskolak atzerrian, diaspora kideez sortutako aholkularitza komitea) (Kenny, 2013; Ancien, Boyle & Kitchin, 2009), diasporako kideei bideratutako diru laguntzak eta komunikazioa mantentzeko hileroko aldizkariak eta newsletterrak daude.

Gobernuek erabiltzen dituzten tekniken artean daude harreman publikoetako ekimenak, adibidez, diaspora konferentziak: "Governments are organizing events in the home country and inviting key members of the diaspora to attend and they are responding" (Aikins & White, 2011:121). Horien artean daude, adibidez, indiarrek antolatzen duten Pravasi Bharatiya Divas, urtarrilaren 9an antolatzen da eta Indiatik kanpo bizi diren indiarrek Indian egiten duten ekarpena eta honen garapenean laguntzen dutela gogoratzeko egiten den jaia da; Barbadoseko Gobernuak antolatzen duen Inaugural Barbados Diaspora Conference²⁸, non diasporako kideek Barbadosi egin diezaizkioketen ekarpenak nola kudeatu aztertzen dute, baita ere Barbadosen eta Barbadosetik kanpo bizi direnen artean harremana egiteko aukera izango dute; Cameroon Diaspora Economic and Trade Forum, Cameroon-eko diasporako 300 kidek brainstorming-a egiten dute ikusteko nola lagundu dezaketen herriaren garapen ekonomikoan; edota Euskal Kolektibitateen Mundu Biltzarra, lau urtero Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritzak antolatzen duen kongresua, Euskal Herritik kanpo bizi diren euskaldunekin izango diren harremanak kudeatzeko eta hurrengo lau urteetan izango duten estrategia finkatzeko.

Aikins eta White-k dioten moduan, ekitaldi hauetan jatorrizko herrialdeek euren diasporak entzun al izango dituzte eta: "Provide them with an opportunity to voice their ideas for ways they can engage with the homeland and home institutions" (2011:122). Armeniarren kasuan, 1998 urtean Presidentea zen Rober Kocharianek Armeniak bere diasporarekin zituen harremanak estutu behar zituela esan zuen eta 1999 urtean Yerevanen Armenia-Diaspora konferentzia antolatu zuten non 52 herrialdetako 800 ordezkari hartu zuten parte (Kenny, 2013:100).

Konferentzia horiez gain, diasporari merezi duten garrantzia emateko diaspora egunak ospatzen dituzte jatorrizko herrialdeetan (Ionescu, 2006:36). Indiarrek 2003 urtean Indiar Diasporaren eguna ospatu zuten eta Euskal Herriak, lehen aldiz, 2018 urteko irailaren 8an, Euskal Diasporaren Eguna ospatu zuen Gasteizen dagoen Lehendakaritzan. Kanpoan bizi diren euskaldunek Euskal Herriarentzako izan duten eta duten garrantzia gogoratu zen, hainbat euskal etxe eta herrialdeetako ordezkariak izan ziren eta aukera izan zen harremanak egiten hasteko edo jarraitzeko.

Bestalde, ekimen instituzional orokorrak daude eta horien adibide dira kooperazio proiektuak, irlandarren kasuan, Mary Robinson presidentarena dago. Robinsonek Estatu Batuetan ikasi eta gero bazekien irlandar amerikarrek zuten

²⁸ Invest Barbados plataformaren webgunea, non Inaugural Barbados Diaspora Conference-ri buruz informazioa ematen duten: https://www.investbarbados.org/newsmain_es.php?viewid=87

potere ekonomiko eta politikoa nolakoa zen, horregatik, eman zuen hitzaldi batean “Cherishing the Irish Diaspora”²⁹ esan zuen, eta “Celtic Tiger” (1995-2007) garaian (garai hori da Irlandak ekonomia hazkundera izan zuen garaia eta izen hori darama “East Asian Tigers”-engatik, Singapur, Hego Korea, Taiwan eta Hong Kong-ek 1980 eta 1990 urteetan izan zuten hazkunde ekonomikoa izendatzeko erabilitako izena) Irlanda eta kanpoan bizi ziren irlandarren arteko kooperazio proiektuak bultzatu zituen.

Ekimen instituzionalen artean ere kanpoan bizi diren herritarrei zuzenduriko organoak daude. Horiek, batzutan Ministerioak izango dira, hala nola armeniarren kasuan, Ministry of Diaspora; Israelen kasuan, Ministry of Diaspora Affairs; irlandarren kasuan, Minister of State For Diaspora; Jamaicaren kasuan, Minister of Foreign Affairs and Foreign Trade. Beste batzutan, bulego, idazkaritzak edo zuzendaritzak izango dira, adibidez, Euskal Herriaren Euskal Etxe eta Kanpoan den Euskal komunitatearentzako Zuzendaritza; txinatarren kasuan, The Overseas Chinese Affairs Office (OCAO); greziarren kasuan, The General Secretariat for Greeks abroad; kroaziarren kasuan, Organization of the State Office for Croats Abroad; eta galiziaren kasuan, Subdirección Xeral de Acción Exterior e de Cooperación Trasfronteiriza.

Diasporekin harremana erregulatzen duten zuzendaritza, bulego edo ministerio horiez gain, diasporen garrantzia kontutan harturik, gobernu batzuk diasporako kideez sortutako aholkularitza taldeak edota *Think Tank*-ak (ideia laborategiak, erreflexiorako zentruak edota ikerketa institutuak deritzenak) sortu dituzte. Talde horietan atzerrian bizi diren herritarren aholkua eskatuko da herrialdeko eta diasporari buruzko gaien inguruan. Adibide batzuk dira: 2004 urtean Jamaicak sortutako Diaspora Aholkularitza Taldea (10 kidez osaturiko aholkularitza taldea eta Jamaikako Gobernua eta atzerrian bizi diren jamaikarren arteko zubilana burutzen du); Dominikar Errepublikakoek sortutako [Comisión de Dominicanos Residentes en el Exterior](#) (Levitt 2001:142); Norbegiarrek sortutako Norwegians Worldwide (1907an Bjørnstjerne Bjørnson-ek sortu zuen sarea, 1.900 bazkide inguru ditu 47 herrialde desberdinetan eta helburua Norbегia eta munduan zehar dauden norbegiarren arteko loturak indartzea, kanpoan bizi diren norbegierri ahotsa ematea eta sare bat sortzea da); finlandarrek, Finish Expatriate Parliament (Ulkosuomalaisparlamentti) (1997 urtean sortu zen eta kanpoan bizi diren finlandarren interesak entzun eta finlandiar gizartearekin zubia dira; Frantziak, (Assemblée des Français de l'étranger); Suitzak (Organisation des Suisses de l'étranger); eta Indiak, Global Advisory Council of Overseas Indians (2009 urtean osatu zuten eta bere helbu-

²⁹ Mary Robinsonen hitzaldia, 1995 urteko otsaila, Cherishing the Irish Diaspora; On a Matter of Public Interest: <http://www.igp-web.com/Kerry/diaspora.html>

rua atzerrian bizi diren eta indiar jatorria duten pertsona “ospetsuen” espezialitatea eta ezagutza elkarbanatzea da).

Beste ekimen mota bat dira “reconnecting” edo jatorrizko herrialdera (denbora batez) bueltatzea ahalbidetzen duten programak. Elkarrizketetan erantzun digutenaren arabera, herrialdera bueltatzeak asko laguntzen du herrialdearekin daukaten harremanean. Israeleko herriak Taglit-Birthright programa dauka eta honi esker judutarrak edota ez judutarrak denborada batez Israelera joateko aukera dute, honela identitatea eta komunitatearekin harremana indartuko da. Herrialde askok programa hori erreferente bezala izan dute ber konektatzeko programak egin dituztenean. Abramsonek dio honen bidez lotura sortzen dela: “The homeland itself-as an embodied, affective, and symbolic site- is strategically used in order to cultivate diasporic attachments”(2017:14). Armeniarrek, adibidez, Hamazkayin Armenian educational and cultural society dute. Euren webgunean azaltzen duten moduan, elkarte honen helburuetako bat da: “The organization’s goals also include preserving national identity and cultural traditions in a people living outside its homeland.” Armenian Relief Society (1910 urtean sortu zen eta munduko hainbat herrialdetan presente dagoen armeniar elkarte bat da) elkarteko zuzendaria den Verginie Toulomianen hitzetan, Hamazkayin-ek asko laguntzen die atzerrian dauden armeniarrei euren herriarekin harremana mantzentzen eta: “Pretty much focuses on educational and cultural event, for example, they take kids from each region of the world (17-24) and they go to Armenia for two weeks” (komunikazio pertsonala, 2018ko martxoa).

Hainbat herrialdek burutzen dituzte ekimen horiek eta, nahiz eta gehienetan gobernuek antolatatu, batzutan diasporako kideek ere antolatzen dituzte horrelakoak, Estatu Batuetan den greziar diaspora kasu. Ionian Village udako kanpamentua da ameriketan bizi diren ume greziarrak Greziara joateko udan zehar baina hau Kleanthi Mavrogiannaki (Greek for Kids eskolako zuzendaria, greziera eta greziar kultura Massachusetts-en irakasten duen eskola) egindako elkarrizketan ezagutu ahal izan genuen moduan, Ameriketako elizak antolatzen du.

6.1.2 Medio eta komunikabideak

Medio eta komunikabideei dagokionez, herrialde ugariak newsletter edo webguneak erabiltzen dituzte euren diasporarekin komunikazioa mantentzeko. Karimek (2003), hainbat diaspora komunitateren “diaspora medioak” aztertzen ditu. Diaspora medioak izango dira Bozdog, Hepp eta Sunak diotenaren arabera: “Produce by and for migrants and deal with issues that are of specific

interest for the members of diasporic communities”(2012). Smets-ek diaspora kurduak erabiltzen dituen medioak aztertzen ditu; Georgiouk Europako diaspora medioak (2005) eta Agirreazkuenaga eta Larrondok, Radio Candela diaspora medioaren azterketa, non horri esker euskal latino identitatea nola sortzen den aztertzen duten.

Horiez gain, Karimek (2003) beste diaspora batzuk erabiltzen dituzten komunikabideak aztertzen ditu, beste batzuen artean: Indiakoa, arabiarra, armenianiarra, iranianiarra, judutarra, hispanikoa, turkiarra, mazedoniakoa, vietnamekoa, musulmana, txinatarra, greziarra, tibetarra eta ghaniakoa. Horrez gain daude Eskoziako Gobernuak sortutako ScotlandNow (munduan zehar dauden Eskoziarrei zuzendutako medioa), the Irish case, Emigrant News: “An independent organisation provides a weekly news summary, along with that supplied through the Emigrant Advice Network”(Ancien, Boyle & Kitchin, 2009:14). Hala ere, hauetatik asko diasporak berak sortuak dira, eta ez jatorriko herrialdetik diasporara bideratutakoak eta horregatik, hurrengo atalburuan aztertuko dira. Informazio gutxi topatu dugu jatorrizko herrialdeetatik diasporara bideratutako newsletter edo aldizkarietarako buruz.

Ikusten da, beraz, komunitate askok nahiko antzekoak diren ekintzak burutzen dituztela jatorrizko gobernuetatik euren diasporekin harremana mantentzeko. Orain, Euskal Herriaren kasuan burutzen diren ekintzen errepaso egingo dogu.

6.2 Euskal Herrian

Era labur batean beste herrialde batzuk euren diasporekin komunikatzeko dituzten tresnak aztertu eta gero, Euskal Herriaren eta kanpoan bizi diren euskaldunen artean komunikazioa eta harremana mantentzeko izan diren tresnen azterketa egingo da.

Analisia hiru garaitan bananduta egongo da: 1937-1986 zein “Euskal Herria eraikiz” deitu dugun; 1986-1994, “Lehen pausua” izenpean jarri duguna eta 1994-gaur egun, “Finkatutako estrategiak”-en barruan sartu duguna. Lehen bi garaiak ez ditugu atalka banatu baina azken garaia bai eta ondorengo taldeetan egin dugu: ekimen instituzionalak, komunikabideak, dibulgaziorako lanak eta teknologia berriak. Ekimen instituzionalen atalean, batez ere, Eusko Jaurlaritzatik martxan jarri diren ekimenak aztertzen dira; komunikabideetan Telebista (EITBren nazioarteko Telebista katea), egunkariak eta egunkari digitalak eta medio espezializatuak (Euskal Herritik informazioa bidaltzeko medioak ere sortu dira hasieran paperezko edizioan eta egun online eta oraindik bizirik diraute); dibulgaziorako lanen barruan, batez ere, akademia mailan egin diren

lanak eta diasporari buruzko dokumentalak, eta telesaiak; eta, azkenik, teknologia berrietan sare sozialak, hala nola Facebook sareak eta blog-ak.

Euskal etxeekin eta kanpoan bizi diren euskaldunekin harreman eta komunikazioan hainbat hito izan dira eta horien arabera ekintza desberdinak burutu dira. Hitoetako batzuk, Frankoren heriotza 1975ean, Garapenerako lankidetzeta eta Kanpoan ziren euskaldunekin harremana izateko zerbitzuaren Sorrera 1991an eta horren banatzea 1995ean, maiatzaren 27ko 8/1994 legearen sorrera (Euskal Autonomi Elkarteaz kanpoko Euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarako) eta teknologia berrien etorrera. Hito horiek desberdintasun bat suposatu dute kanpoan bizi diren euskaldunen eta Euskal Herriaren arteko komunikazio eta harremanari dagokionean.

6.2.1 1937-1986: Euskal Herria eraikiz

Komunikazioa eta harremana aztertzen badugu, kontutan izan behar da 1937 urtetik 1979ra Eusko Jaurlaritza erbestean izan zela, beraz, harremana eta komunikazioa zuzena zen, Gobernua ere, diasporako parte zelako. Bere gurasoak New Yorken Agirre Lehendakariarekin lanean egon ziren Anna Mari Aguirre-ren hitzetan: “The relation between the Lehendakari Aguirre and the Basque community of New York when he was in NYC - I know he frequently attended events and dinners of Centro Vasco Americano” (Komunikazio pertsonala, 2018 urteko apirila). Urte hauetan burutu ziren komunikaziorako ekintzak, batez ere, ekintza instituzionalak, harreman pertsonalak eta dibulgaziorako lanak izan ziren. Esan bezala, nahiz eta Eusko Jaurlaritza erbestean izan, ekimen instituzional garrantzitsu batzuk izan ziren. Urazandiren 24. liburuan Euskadiko Ordezkaritzei buruz informazioa ematen da eta garai horietan izan ziren ordezkaritzen nondik norakoak azaltzen dira.

“De este modo, el Gobierno Vasco, primero desde su sede en Bilbao, y posteriormente desde los sucesivos exilios en Barcelona, París y América, establecería una red de delegaciones en cerca de una veintena de países diferente sen prácticamente todos los continentes. Con mayor o menor fortuna, estas delegaciones representarían durante años del franquismo, y sobre todo durante las primeras décadas del exilio, al entramado a través del cual se expresaban ante la opinión pública internacional las ideas políticas de buena parte del país, que habían quedado proscritas bajo la dictadura” (Urazandi 24, Eusko Jaurlaritza 2010:108).

Ondoren dagoen taulan munduan zehar izan diren ordezkaritzen zerrenda dago 1948. urtera arte.

5 Taula. Euskal Ordezkaritzak Munduan

URTEA	HERRIA
1936	Madrileko ordezkari
	Pariseko ordezkari
	Baionako ordezkari
	Bordeleko ordezkari
	Mexikoko ordezkari
1937	Valentzi-Alikanteko ordezkari
	Bartzelonako ordezkari
	Belgikako ordezkari
	Londreseko ordezkari
	Irlandako proto-ordezkari
	Donibane Lohitzuneko ordezkari
1938	New Yorkeko ordezkari
	Buenos Aireseko ordezkari
1939	Ginebrako ordezkari
	Dominikar Errepublikako ordezkari
	Kubako ordezkari
	Panamako ordezkari
	Kolonbiako ordezkari
1940	Uruguayko ordezkari
	Caracaseko ordezkari
1941	Puerto Rikoko ordezkari
	Santiago de Txileko ordezkari
1942	Estatu Batuetako ordezkari
	Peruko ordezkari
1945	Ordezkari Manilan, Filipinak
	Belgikako ordezkari
1948	Erromako ordezkari

Iturria: elaborazio propioa Urazandiko Delegaciones de Euskadi liburuko datuekin

Kanpoan bizi diren euskaldunekin harremana mantentzeko tresna komuna izan dira harreman publikoetako ekintzak, eta horien artean, kongresuak. Honen adibide da 1956 urtean Agirrerren Gobernuak Parisen ospatu zeun Euskal Kongresu Mundiala. Ugaldek kongresuaren helburua gogoratzen du:

“Tratar el “problema vasco en forma global, estudiando todas las facetas que encierra nuestra vida nacion al”, intentando reunir a representaciones de los vascos de todos los matices, ideologías, clases y profesiones, “residan actual-

mente en la patria o en cualquier país del mundo”, para “contrastar ” todo tipo de “experiencias ” y “obtener útiles conclusiones”” (Ugalde, 2005:1).

Kongresu honen ondorio bezala, CEVA (Confederación de Entidades Vasco Argentinas) sortu zuten Caracasen izango zuelarik egoitza.

1956 urtean baita ere ekimen instituzionaletik kanpo dagoen ekintza bat topa dugu: euskaraz grabatu zen lehen filma. Euskal Herriko Unibertsitatean dokto-rea den Josu Martinezek bere doktoregorako ikerketa egiten ari zela Gure Sor Lekua (1956) filmarekin egin zuen topo, ezezaguna zen garai horretan filma Euskal Herrian. Filmaren helburuetako bat atzerrian zeuden euskaldunei Euskal Herriko irudi batzuk bidaltzea eta euren herrimiña asetzea zen. Nahiz eta oraindik filmaren ahotsa ez den topatu, euskaraz egindako lehen film-a da. Filmaren autoreak buruan zituen atzerrian bizi ziren euskaldunak eta horiekin harremana mantentzeko helburuarekin hau egin zuen.

Garai horretan Euskal Herriaren eta kanpoan bizi ziren euskaldunen arteko komunikazioa mantentzeko era komunena gutunak, noizik behiniko telefono deiak, Euskal Herrira familia bisitatzeko egiten zituzten bidaiak eta Euskal Herriak kanpoan zituen ordezkari eta horiek diasporako kideekin zuten harremanean oinarritzen zen. Francoren heriotzak kanpoan bizi ziren euskaldunekin zegoen harremanean eta komunikazioan eragin handia izan zuen. Bere garaiak Kanpoan den Euskal Komunitatearekin eta Euskal etxeekin dagoen harremanaz ardurten den Zuzendaritzako zuzendaria zen Josu Legarretak garai horri buruzko informazio asko eman digu berarekin egindako sakoneko elkarrizketan. Gainera, komunikazio eta harreman horren eboluzioa nolakoa izan den irudikatzen lagundu digu. Estatu Batuetako euskaldunetan zentratuko garen arren, badaude lanean momentu batzuk zeintzutan Argentinara bideratutako komunikazio eta harremanari ere erreferentzia egiten zaion.

Agirrereren Gobernua eta Eusko Jaurlaritzaren erbestean zeuden bitartean (1936-1960ra arte Agirrerekin eta 1960tik 1979ra Leizaolarekin) Jaurlaritzak euskal etxeekin zuen harremana oso estua eta jarraia zen. Legarretaren hitzetan Eusko Jaurlaritzak “Euskal etxeak “erabiltzen” zituen, maitasunagatik, interesagatik...”, Franco hil eta gero, ordea, 1975 urtean alderdi guztiak zuten harremana asko hoztu zen Euskal Herria eraiki behar zelako eta indar guztiak horretara bideratu behar zituztelako. 1980 urtean diasporatik erreklamoa izan zen, kanpoan bizi diren euskaldunak konturatuko dira instituzioei dagokionez, ez zegoela aurretik zegoen harremana: “Politiko danak dedikatzen direlako herri honen eraikuntzan. Eta eraikuntza horren kanpoan daudenak gelditzen dira kanpoan” (Josu Legarreta, komunikazio pertsonala, 2017ko maiatza). Erreklamoa

hori, batez ere, Argentina aldeko euskaldunen eskutik etorri zen eta 1980 urte inguruan atentzioa erreklamatzeko.

Ordutik aurrera esan daiteke harremana apur bat gehiago hurbiltzen dela, eta hor hasten dira ekimen instituzionalak indar gehiago izaten. Horren adibide dira euskal politikarien bisitak euskal diaspora kokatzen zen herrialde batzutarara: Labayenen (EAJko politikaria, Donostiako alkatea eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua izan zen) bisita Necocheara (Argentina) Euskal Aste Nazionalera Alkain (Donostiako alkatea) eta Tolosako alkatearekin:

“Eusko Jaurlaritza lehen aldiz Necochean antolatutako Aste Nazionalen agertu zen, 1981.urtean. Ramón Labayen, Garaikotxearen gobernuan hezkuntza sailburua zena, izan zen ordezkari lideratu zuena. Ordutik aurrera, Eusko Jaurlaritzak beti bidali izan du Jaurlaritzatik ordezkariaren bat” (Xabier Zubillaga, Necocheako Euskal argentinarra, Argentinako Euskal komunitatean pertsona aktiboa, komunikazio pertsonala, 2015).

Interesgarria da politikariek Argentinako Euskal Aste Nazionalera egin dituzten bisitak puntu honetan gogoratzea. Ibarretxe Lehendakaria izan zenetik (2009), 2018 urtera arte, Lehendakaria ez da joan Euskal Aste Nazionalera. Aurren, ordea, lehen aldiz Urkullu Lehendakaria Argentinara joan da. Diaspora eta kanpoan bizi diren euskaldunen garrantziari buruz asko esaten duen zerbait da hori.

Josu Legarretari egindako elkarrizketan esan zigun Euskal Herriaren eta euskal diasporaren arteko komunikazioan izan zela garrantzitsua izan zen irrati programa bat, Floren Torrelledók gidatzen zuen irrati programa. Horregatik, gehiago jakiteko, elkarrizketa bat egin genion Torrelledó-ri. Kontatu zigun nola 1976 urtean Euskal Herritik Otxote Danok Bat taldea Argentinara joan zen. Bertan, “Euskadi ” izeneko ikuskizuna Argentinako antzerki hoberenetan zabaldu zuten eta bera, Torrelledó, zen ikuskizunaren aurkezlea. Parte ziren, baita ere, beste batzuen artean Rotaetxe, Gorka Knorr eta Boni txistularia. Handik bueltatzean, 1977an, Radio Euskaditik deitu zioten eta “Vascos en América” irrati programa egiteko proposamena luzatu zioten:

“Al haberme ofrecido en Argentina la opción de hacer un programa todas las semanas lo supieron aquí. Y no sé cómo si fue allí o Radio Euskadi , pero surgió la idea de hacer un programa para los vascos en América. Como ya allí me conocía “todo hijo de vecino” entonces empecé a hacer aquí el programa, un programa cada semana y luego se enviaba allí” (Floren Torrelledó, komunikazio pertsonala, 2017ko ekaina).

Horrela, garai horretan iada, bazegoen buruan diaspora zuen irrati programarik.

Ekimen instituzionalekin jarraituz, Eusko Jaurlaritza sortu eta bi urtera, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak Boisen (Idaho) izan ziren, Estatu Batuak eta Euskal Herriko politikarien arteko harremanaren hasieran izango zena. Boise State University-n dituzten artxibo eta kolezio berezietan ikusi ahal izan dugu "Idaho Trade Mission to the Basque Country, 1982" deritzon dokumentua non euskal politikariak Idahora joan zireneko informazioa dagoen. Alberto Amorrortu (Kultura Sailburua) eta Jose Salaba (Agrikultura Sailburua) Idahora joan ziren bi gobernuen arteko harremana garatzeko eta aukera enpresarialak lortzeko. Aurrerago ere bisita hori ikertuko dugu Euskal Herria eta Estatu Batuen arteko sare komertziala ikertzean.

1982.urtean harreman publikoetako ekintzekin jarraituz Garaikoetxearen Gobernuko Kultura Sailak Ameriketako Euskaldunak Euskadin. Lehen Batzarrea (*I Congreso de Vascos de América en Euskadi*) antolatu zuen Donostian irailaren 2tik 7ra. Ugalderen lanaren arabera, kongresu honetara 9 herrialdeetako 203 ordezkari joan ziren (86 Argentinatik, 14 Venezuelatik, 9 Txiletik, 8 Estatu Batuetatik, 5 Uruguaitik, 4 Kanadatik, 3 Kolonbiatik, 3 Mexikotik, 2 Perutik eta begirale bat Filipinetatik (Ugalde, 2007:135). Harremanean garatu behar ziren sei puntu ukitu zituzten eta horien artean hirugarrena komunikazioarekin eta komunikabideekin lotuta zegoen.

"La tercera Comisión redactó un informe sobre los Medios de comunicación entre América y Euskadi. Se concluía la necesidad de solucionar la deficiente comunicación en ambos sentidos sugiriendo la estructuración de un sistema de intercambios permanente y efectivo. Para ello se propusieron ideas como la puesta en marcha de noticieros por telex; elaboración de reportajes; programa sen euskera; producción de programas de radio; y creación de una revista" (Ugalde, 2007:136).

Munduan zehar zeuden euskaldunek eskatu zutena kontutan izanda, komunikazio alorrean Euskal Herria eta euskal diaspora komunikatzeko aldizkari baten beharra zegoela ikusi zuten. Horrela hiru hilean behin etxetara bidaltzen zen paperezko aldizkaria jarri zuten martxan. Aldizkari hori euskal etxeak aldizkaria izan zen, 1989.urtean sortu zen eta Euskal Herriaren eta euskal diasporaren inguruko albisteak ematen zituen.

Toticaguenak bere doktorego tesian aldizkariari buruzko informazioa ematen du eta ondorengo informazioa ematen du honi buruz: "Journal published for the diaspora communities three or four times a year by the Basque Government with news and information regarding Euskal Herria and Basques from all over the world"; horrez gain, Toticaguenak bere lanean euskal identitatea diasporan nola mantentzen den aztertzen du eta horretarako euskal etxeak aldizkaria-

ren garrantziari buruz galdetzen die diasporako kideei. Bere hitzetan ikusi daiteke zein garrantzitsua izan zen aldizkari honen sorrera komunitate batu eta diaspora antolatu baten sentimentua izateko:

“Being an organized and mobilized diaspora community is socially and psychologically significantly different from being just one more descendant of another immigrant in their host society...This publication has been the most effective to date in creating a united diaspora mentality that demonstrates to all Basques who encounter it the similarities between the diaspora populations” (Totoricaguena, 2000:217).

Aldizkaria etxean hartzeko interesa erakusten zuten guztiei bidaltzen zitzairen. 2011 urtetik aurrera aldizkaria online formatura pasatu zen eta orain ostiral guztietan bidaltzen den newsletter batean bihurtu da.

Ardanza Lehendakariak agintea hartu zuen 1985 urtean eta Jokin Intxausti izendatu zuen euskal etxe eta euskal komunitateekin harremanetarako ardura-dun (Ugalde, 2007:47). 1986 urtean, harreman honetan oso garrantzitsua izango den aurrerapausu bat eman zen: Euskal Etxeekin eta kanpoan bizi diren Euskaldunekin harramana izateko zerbitzuaren sortzea (Ugalde, 2007:47). 1986 urtetik euskal etxeekin harremanak eramateko ardura Kultura eta Turismo sailak zuen. Gerora bihurtuko zen bere Zuzendaritza propioan. 1987 urtetik aurrera, komunikazioa garatzen hasi zen eta horretarako erabili zituzten tresnak: bisitak, telefax-a eta telefonoa izan ziren. Legarretaren hitzetan, lehenik eta behin jada existitzen ziren euskal etxeak bisitatu eta ezagutu zituzten (komunikazio pertsonala, 2017ko maiatza). Telefaxaren ondoren telefonoa erabiltzen zuten, baina telefonoaren bidez zeukaten harremana pertsonala zen, eta Zuzendaritza ez zen pertsona batentzako bakarrik, guztientzako zen.

Ikus dezakegu beraz, lehen urte hauetan burutu ziren ekimenak batez ere, ekimen indibidualak eta instituzionalak izan ziren: familien arteko komunikazioak, harreman publikoetako ekintzak, konferentziak, aldizkari instituzionalak eta gobernuko ordezkariekin harremanak.

6 Taula: 1959-1986 komunikazio eta harremana

DATA	EKIMENA	EKIMEN MOTA
1956	Gure Sor Lekua film-a	Film-a
1956	Congreso Mundial Vasco, Parisen	Ekimen instituzionala
FRANKOREN HERIOTZA 1975		

DATA	EKIMENA	EKIMEN MOTA
1976	“Euskadi ” antzerkia Argentinan	Ekintza kulturala
1977	“Vascos en América” Irrati Programa	Komunikabideak
1982	Ameriketako Euskaldunak Euskadi n. Lehen Batzarrea	Ekimen instituzionala
1985	Euskal etxe eta kanpoan diren Euskal komunitateekin harremana eramango duen Eusko Jaurlaritzako Aholkulariaren izendapena: Jokin Intxausti	Ekimen instituzionala
1986	Euskal Etxekin Harremana eramango duen Zerbitzuaren sorrera	
ZERBITZUAREN SORTZEA 1986		

Iturria: norberak egina

6.2.2 1986-1994: Lehen pausuak

1986 urtetik 1994ra, oraindik, ekimen instituzionalak eta pertsonalak izango dira batez ere protagonistak, hala ere, maila akademikoan edota komunikabideen munduan harreman eta komunikazioa indartzeko saiakerak emango dira.

1986. urtean Eusko Jaurlaritzatik kanpoan bizi diren euskaldunekin harremana mantentzeko zerbitzua sortu zen.

1989an Euskal etxeekin harremanetarako zerbitzuak Euskal Etxeen I Kongresu Mundiala antolatu zuen Bahía Blancan (Argentina). 1986 urtean, nahiz eta sortua zen jada kanpoan bizi ziren Euskaldunekin eta Euskal etxetik harremana izateko bulego bat, 1991 urtean izan zen, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza sortu zen urtea. Orduetik Idazkaritza hau Lehendakartzaren parte izan da: “Adscripción de la Acción Exterior de modo directo a la figura del Lehendakari como representante máximo de la voluntad popular directamente elegido” (Urazandi 24, Eusko Jaurlaritza 2010:103).

Garai honetan, batez ere, ekimen instituzionalak burutu ziren kanpoan bizi ziren euskaldunekin harremana izateko eta horien artean daude: Euskal etxeekin harremana izateko zerbitzua (1986), Euskaletxeak aldizkariaren sorrera

(1989), Argentinan euskaraz programa (1990), Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren sorrera(1991) eta 8/1994 Legearen sorrera eta horren barruan dauden puntu guztiak.

Euskal diasporako kideek euskal identitatea mantentzeko dituzten gauzen artean euskara, (janariaren ondoren) oso garrantzitsua dela azpimarratzen dute:

“Los vascos, eran hombres y mujeres con una gran claridad de conceptos, sabían que el futuro de una nación reside en gran parte en su lengua, que es la que imprime una forma de pensar, de sentir y de ser” (2000 urteko Mundu Biltzarreko aktak, Eusko Jaurlaritza, 2001:231).

Horrela, 1990 urtean ekimen instituzionalen barruan “Argentinan Euskaraz” programa sortu zuen Eusko Jaurlaritzak. Lehen saiakera Macachinen (Argentinan) izan zen eta 35 gaztek eman zuten izena. Horrekin ari zirela Argentinako Unibertsitateekin harremanak eta euskal kulturako katedrak sortu ziren (Josu Legarreta, Kanpoan den Euskal komunitatearentzako Zuzendaritzako zuzendari ohia, komunikazio pertsonala, 2017ko maiatza).

Aurrerago HABEk hartu zuen proiektua lideratzeko kargua.

2 Irudia: Lehen euskara kurtsoa atzerrian



Macachin fue el escenario de esta primera experiencia de cursos intensivos de euskera.

Ventitrés jóvenes de los Centros Vascos en Argentina han realizado la primera experiencia de un curso intensivo de Euskera de las Euskal Etxeak. Utilizando sus meses de vacaciones han dedicado ocho horas diarias a conocer y profundizar en el Euskera.

Macachin es una pequeña ciudad de 5.000 habitantes, situada en la Pampa húmeda de Argentina. En ella se encuentra el Centro Vasco Euzko Aikartasuna, Hotel y Centro Vasco al mismo tiempo, con tres directivos animadores de la actividad cultural de la propia ciudad y del Centro Vasco. Los Señores, Unamuno y Alazne y Alejandro Iruetagoiena han sido los verdaderos artífices que han trabajado para conseguir las mejores condiciones posibles para que 23 jóvenes de los Centros Vascos de Argentina hayan podido realizar la primera experiencia de un curso de euskera, intensivo, en los Centros Vascos de todo el mundo.

Curso de Euskera en Macachín

seña sólo el Euskera) de Arrigoriaga y Amorebieta (Vizcaya), que viajaron expresamente hasta Argentina.

De enero a marzo, en los meses de verano argentino, estos 23 jóvenes han dedicado sus vacaciones al aprendizaje de la lengua más antigua de Europa, nuestra lengua el Euskera. Con profesoras y materiales remitidos desde el País Vasco, estos jóvenes han participado en las ocho horas de clase diarias. Un récord de programación, de asistencia y de aguante por amor a la lengua que hablaban sus abuelos o bisabuelos que llegaron a Argentina.

Los resultados obtenidos han sido realmente buenos. El grupo de los 23 alumnos se ha dirigido al Gobierno Vasco solicitando se les organice cursos similares el próximo mes de julio, para quince días, y de diciembre a marzo de 1991.

Nuestra felicitación por su esfuerzo y por los resultados obtenidos: Zorionak. ■

Dos profesoras de Euskadi

El curso empezó el 7 de enero, bajo la dirección de las profesoras Gurutze Arrieta y Miren Josu Uriarte, directoras de los Euskaltegis (Colegios en que se en-

EUSKAL ETXEAK 21

Iturria: Euskal etxeak aldizkariaren lehen aleatariko bat. Eskuragarri Eusko Jaurlaritzako webgunean, non euskal etxeal aldizkariaren paperezko bertsioak digitalizatuta dauden: <http://www.Euskadi.eus/gobierno-vasco/-/comunidad-vasca-en-el-externo-revista-Euskal-etxeak/>

Programa honekin batera, Zuzendaritzaren parte ziren beste ekintzak ere jarri ziren martxan.

7. Taula: 1986-1995 Komunikazio eta harremana

DATA	EKIMENA	EKIMEN MOTA
1986	Euskal Etxeekin harremana izateko Zerbitzua (Kultura eta Turismo Sailaren barruan)	Ekimen Instituzionala
1989	Munduko Lehen Euskal Kongresua (Bahía Blancan, Argentina)	Ekimen Instituzionala
1989	Euskaletxeak aldizkaria	Ekimen Instituzionala
1988-1990	Press Clipping Euskal Herriko Unibertsitatea	Dibulgazioa
1990	Argentinan Euskaraz programa	Ekimen Instituzionala
1991	Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia sortzea (Lehendakaritza barruan)	Ekimen Instituzionala
8/1994 LEGEAREN SORTZEA		

Iturria: norberak egina

6.2.3 1994-gaur egun: Finkatutako estrategiak

Aurreko bi garaitan instituzioen eskutik, eta, batez ere, Eusko Jaurlaritzatik sorturiko ekintzak badira nagusi ere, 1994tik aurrera komunikabideak eta beste era bateko elkarteak ere hasiko dira komunikazio hau indartzeko lanean. Gainera, interneten indarrak ere komunikazio horretan parte hartzen duten aktoreen ugaritzea ekarriko du, eta lehen, batez ere instituzioen esku bakarrik zegoena, gizartearen esku ere egongo da.

6.2.3.1 Ekimen Instituzionalak

“The Basque Government need the diaspora for the Public Diplomacy for the Paradiplomacy, the Basque Government needs all these networks of Mikel Prieto, Steve, Herman...they need them. They need the Euskal Etxeak for the public diplomacy, for the books fair, for the Jaialdis...they have a positive social image, but they cannot control what happens. There are too many networks, relations. And diaspora members...they don't need the Basque Government for anything” (Gloria Toticaguena, personal communication, April 2018).

Pausu ugari ematen ari ziren kanpoan bizi ziren euskaldunekin zerikusia zutenak, eta horien artean aipagarrienetakoa da 1994 urtean sortu zen maiatzaren 27ko 8/1994 legea, Euskal Autonomi Elkarteaz kanpoko Euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarakoa. Beste herrialde batzuek bazuten euren diasporarekin edo kanpoan bizi ziren herritarrekin harremanetarako legerik. Euskal Herriaren kasuan hori falta zen eta horregatik maiatzaren 27ko 8/1994 legea sortu zuten. Lege honen sortzearen eta lege honen barruan dauden ekintza guztiei buruzko informazio zehatza eta osatua dago Alexander Ugalde eta Jose Luis de Castrok, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak, argitaratutako liburuan “La Acción Exterior del País Vasco (1980-2003)”. Horrez gain, Ugaldek eta De Castrok Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanei eta Kanpo Harremanetako ekintzei buruz argitaratutako urtekariak daude (2004, 2005, 2006, 2007, 2008-2009, 2010, 2011) eta hauetan, beste gauza batzuen artean legerari esker betetzen diren ekintzen errepasoa egiten dute. Guk era labur batean azalduko ditugu lege honen ondorioz burutzen diren ekintzak Euskal Herriaren eta euskal diasporaren arteko harremanerako bide moduan aurkeztuko ditugu.

Ekimen instituzionalei dagokioenean 8/1994 legea sortu ondoren (1995ean) banandu egingo dira ordura arte bat ziren Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritza eta Kanpoan diren Euskal etxe eta Euskaldunekin harremana izateko Zuzendaritza (Ugalde, 2007:53). Iñaki Agirre Arizmendi izendatzen dute diasporako zuzendari (1995tik 1999ra). 1999tik 2009ra Kanpo Harremanetarako Idazkari orokorra izan zen. Iñaki Agirre Arizmendiren ondoren, Josu Legarreta izan zen diasporarekin harremanetarako zuzendaria (1999-2009), ondoren Julián Celaya (2009-2012), Asier Vallejo (2013-2016) eta gaur Gorka Álvarez Aranburu.

1995.urtean, ordutik bost urtean behin antolatzen den Kanpoan den Euskal Kolektibitateen Lehen Mundu Biltzarra antolatu zen. Biltzar hau, aurrerago esan bezala, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza barruan dagoen Euskal Kolektibitate eta Euskal etxeekin dagoen harremanaz arduratzen den Zuzendari-tzak antolatzen du, bi-hiru egunez munduan zehar dauden Euskal etxeetako ordezkariak Euskal Herrira etortzen dira, hitzaldiak eta mintegiak antolatzen dituzte eta datorren lau urteetan Euskal Herritik euskal diasporarekin izango den harremana planifikatzen da. Kanpoan bizi diren euskaldunetz gain, Euskal Herrian gai hauek ikertu edo gai hauekin lan egiten dutenak ere izaten dira. Harreman publikoetako ekimen moduan aurkezten dogun ekimena da, zeinek oso emaitza positiboak dakartzan bai Euskal Herriaren eta kanpoan bizi diren euskaldunen arteko harremanean, baita kanpoan herrialde desberdinetan bizi diren Euskaldunen artekoan ere. Lehen Biltzarra 1995 urtean antolatu zen, gero lau urtean behin 1999, 2003, 2007, 2011 eta 2015ean. Eusko Jaurlaritzak biltzar hauetako ponentzi eta egitaraua biltzen dituen liburuak ateratzen ditu Kongre-

sua egin eta gero. Biltzar hauei buruz informazioa lortzeko bide hobereana liburuok irakurtzea da. Argitaratu dituzten liburuen artean daude 1995ko Biltzarreko liburua “Euskaldunak Munduan, Building the future”; 1999koa “Euskadi munduan eraikitzen. Congreso Mundial de Colectividades Vascas 1999”; 2003 urtekoa “Aurrera goaz. III Congreso Mundial de Colectividades Vascas”; 2007koa “Zubigintzan IV. Congreso Mundial de Colectividades Vascas”. 2011 urtekoa “Guztion artean” eta 2015 ekoa “Diasporizatu” (ez dago azken urteko Biltzarreko libururik). Liburu hauek Lehendakariaren agurra, Kongresuan diasporako kideek, adituek eta ordezkari instituzionalek emandako hitzaldiak, eta Kongresuko argazkiak daude.

Nahiz eta instituzioen lana izan nagusi, izan ziren, baita ere, dibulgazioarako lanak, euren artean testimonioen bilketa (Eusko Ikaskuntza 1995) eta press clipping-a³⁰ Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik (1988-1990).

Zuzendaritzaren eta legearen sorrerak eragin handia izan zuen komunikazio eta harremanean, baina, elkarriketetan esan digutenaren arabera, teknologia berriak izan dira komunikazioan eragin gehien izan dutenak. Diasporako kideek eta instituzioetako ordezkariak gogoratu dute ordenagailuak eta internetek Euskal Herriaren eta kanpoan bizi ziren horien artean zegoen komunikazioan aurrerapausu itzela suposatu zuela. Izan ere, ez da bakarrik komunikazio instituzionala hobetuko baina baita ere indibiduo, familia eta lagunen artekoa. Totoricaguenak ere, bere doktorego tesian hori azpimarratu zuen: “Internet access will likely provide the most significant catalyst for exponential increases in intradiasporic communications” (2000:216). 1995 urtean, Euskal Kolektibitateen lehen biltzarren ondorioetako bat izan zen Euskal etxeetan ordenagailuak jartzea. Biltzarreko aktetan irakurri dugun moduan, biltzarreko ondorioetako bat izan zen Eusko Jaurlaritza eta euskal etxeen arteko komunikazioa hobetu behar zela, eta, horregatik “se decide que se van a instalar sistemas informáticos en todos los centros vascos”. Honek komunikazioan hito bat suposatzen du, liburuan dioten moduan:

“Eso supone un antes y un después en la comunicación. A finales de 1995 se logró una partida extraordinaria de 40 millones de pesetas para dotar a todos los centros vascos oficialmente reconocidos de material informático, que les permitiera por una parte una comunicación rápida, barata y eficaz con el GV y por otra parte el acceso, vía Internet, a toda una información disponible en la red” (Eusko Jaurlaritza, 1999 urteko Kongresuko aktak, 2000:46).

³⁰ Maila akademikoan ere gaiak bere garrantzia irabazi zuen eta 1988 eta 1990 urteetan Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle batzuk (Óscal Alvarez Gila, Alberto Angulo Morales eta José Bernardo Marcilese) Press clipping-a egin zuten.


1995 urteko ekainaren 21ean lehen Euskal Giza taldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordea izendatu zen, helburu bezala lau urteko plangintza egitea izango zutelarik. Ikusi dugun moduan, hainbat gobernuak, euren diasporarekiko harremana mantentzeko estrategia bezala, jatorrizko herrialdera bueltatzeko bi aste inguruko bidai laburrak antolatzen dituzte. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, hori jarraituz, 1996 urtean Gaztemundu programa sortu zen. Programa honen helburua zen:

“Impulsar la intervención de las y los jóvenes en las actividades de las Euskal Etxeak, siendo éstas consideradas <<el cauce preferente de relación entre los miembros de las colectividades vascas y las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi >> (Ley 8/1994 de relaciones con las colectividades y Centros Vascos en el Exterior de la Comunidad Autónoma del País Vasco).

Gure aburuz Gaztemundu programa diaspora estrategia bat da. Diaspora gaie-tan aditua den Aikins-ek (2009) diaspora strategiak: “An explicit systematic policy initiative or series of policy initiatives aimed at developing and managing the relationships between homeland and diaspora populations” direla dio. Uste dugu programa honek diasporako gazteen eta jatorrizko herrialdearen arteko harremanean eragina dutela, eta horregatik, Eusko Jaurlaritzaren diaspora estrategia bat dela.

Gaztemunduk urtero gai bat jorratuko du: dantza, musika, euskara edo etorki-zuneko liderren prestakuntza. Gai horrekin lotuta, euskal etxeetako ordezkari gazte egokienak etorriko dira. Egonaldi horretan diasporako gazteek euskal kultura ezagutuko dute, Euskal Herrian egongo dira, euskaldunekin harremanak sortuko dituzte eta euskaltasuna hurbiletik sentituko dute. Gaztemundu programa lehen aldiz 1996 urtean egin zen, hau da, Kanpoan diren euskaldunekin harremana mantentzeko 8/1994 Legea irten eta bi urte geroago.

3 Irudia: Gaztemundu programari buruzko informazioa:



EUSKAL ETXEAK

Los jóvenes de las Euskal Etxeak visitaron el Dolmen de "La choza de las brujas en la Rioja Alavesa" (foto Idoia Barroñak)

**PARA RECUPERAR SUS RAÍCES
HIJOS Y NIETOS DE EMIGRANTES
VASCOS, VISITAN EUSKADI**

Sesenta jóvenes, hijos o nietos de vascos e integrantes de las Colectividades Vascas de Sudamérica visitaron durante quince días Euskadi para participar en unos encuentros entre jóvenes vascos del exterior y acercarse a la realidad actual del País Vasco.

Los jóvenes, cuyas edades oscilaban entre los 20 y 30 años y procedían de Argentina, Uruguay, Venezuela, Chile, Puerto Rico, Perú, El Salvador y México, fueron invitados por la Secretaría de Acción Exterior y el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Con esta iniciativa el Gobierno Vasco pretendía que los jóvenes discutieran sobre su papel en los Centros Vascos y sobre aquellos temas que les interesan especialmente como la formación, el empleo, la cultura, las nuevas tecnologías, etc., dado que conseguir una mayor implicación de los jóvenes es precisamente uno de los objetivos que se recogen en el Plan Cuatrienal aprobado en el Congreso Mundial de Colectividades celebrado a finales del pasado año. Pero, el objetivo principal de este viaje

era, sin duda, que los jóvenes vascos conocieran de cerca la realidad vasca. Por esta razón, el programa incluía entrevistas con altos cargos del Ejecutivo vasco, visitas a las Instituciones vascas y a las instalaciones de ETB, Mondragón Corporación Cooperativa y Parque Tecnológico de Zamudio, contactos con responsables de la Universidad del País Vasco y de Deusto y encuentros con jóvenes empresarios vascos y con representantes del Consejo de Juventud de Euskadi. Y por supuesto, visitas turísticas a Vitoria-Gasteiz, a la Rioja Alavesa, a Orduña, Bilbao, Gernika, Lekeitió, Fuenterrabía, Hendaia, San Sebastián, Elizondo y Saint Jean de Pied de Port. Los jóvenes además, mantuvieron un encuentro con el Lehendakari José Antonio Ardanza y con el Vicelehendakari Juan José Ibarretxe quienes les dieron la bienvenida y les expusieron diversos aspectos de la realidad del país.

En la clausura de las jornadas los participantes presentaron sus conclusiones ante el Secretario de Acción Exterior del Gobierno Vasco, Andoni Ortu-

zar y la Consejera de Cultura, Mari Karmen Garmendia. Unas conclusiones muy similares a las planteadas pocos meses antes por los participantes en el Congreso Mundial de Colectividades Vascas. Los jóvenes quieren tener un papel más activo en las Euskal Etxeak de sus respectivos países e introducirse en las Directivas de las mismas; se quejan de la falta de comunicación entre las Euskal Etxeak entre sí y con Euskadi y muestran su preocupación por captar y retener a las nuevas generaciones de jóvenes vascos con el fin de no perder su identidad. Y para ello, proponen crear entre los jóvenes una estructura a nivel mundial.

En su intervención Andoni Ortuazar se mostró satisfecho con el resultado de este programa porque, a su juicio, se han cumplido los objetivos del mismo, es decir, escuchar sin intermediarios a las nuevas generaciones de vascos, que éstas conocieran de primera mano Euskadi y sus instituciones sociales, económicas y culturales, que el viaje les sirviera para "cargar las pilas". Estas jornadas pretendían analizar qué se puede hacer para difundir la vasca a partir de las Euskal Etxeak y fundamentalmente, que los jóvenes supieran con toda certeza de donde provienen. Ortuazar además, mostró su deseo de que en el año 2050 siga habiendo Centros Vascos en todo el mundo y para ello y, dado que la realidad vasca es muy cambiante, manifestó su intención de dar continuidad al programa para ofrecer así una oportunidad a los jóvenes de conocer esa realidad tan cambiante.

Mari Karmen Garmendia por su parte, aseguró que "todos formamos parte de esta nación llamada Euskal Herria. Os necesitamos porque debemos ser capaces entre todos de tejer el futuro" y con un "gero arte" se despidió de los jóvenes. ■

Ameriketarik datoz baina denak euskaldunak dira, euskaldunen semeak eta hilobak, hain zuzen ere. Arbasoen lurra ezagutzera etorri dira, Jaurkitzek gorbidutako, kanpoan bizi diren gazteek gaur egungo Euskal Herria ezagutu dezaten. Harekotasun egun izan dituzte handik eta hemendik ibiltzeko eta kultura, ekonomia eta politikako ardekariek biltsako; besteak beste, Jose Antonio Ardanza Lehendakariarekin bildu ziren. Bixita honi esker, gazte hauen hobe eta ezagutzen dute Euskadi, baina bere zeregina hasi besterik ez da egin. Izan ere, orain, izan dituen esperientziak hitzegin beharko diete euren herrietako gainontzeko euskaldun gazteei, Euskaldun sentimendua gal ez dadin.

12

Iturria: Euskal etxeak aldizkaria 1996 urtea. Eusko Jaurlaritzako web-gunean eskuragarri daude aldizkariaren paperezko bertsio digitalizatuak: <http://www.Euskadi.eus/gobierno-vasco/-/comunidad-vasca-en-el-exterior-revista-Euskal-etxeak/>

Interesgarria da ikustea Gaztemundu Programak zelako eragina izan duen komunikazioan. Programa honen bidez beste herrialde batetik datozen euskaldunak harremanak egiten dituzte Euskal Herrian, jendea ezagutzen dute, dantza

taldeetako eta bestelako talde kulturaletako kideekin harremana sortzen dute eta euren familiarekin denboradatxo bat pasatzen dute. Programan parte hartzen duten gehienak programak irauten dituen bi astean igaro eta gero, Euskal Herrian gelditzen dira eta hemen duten familia eta lagunak bisitatzen dituzte. Gaztemundun parte hartzen dutenetatik asko berriro ere bueltatzen dira Euskal Herrira familia, lagun edo bikoteekin, baita ere, Euskal Herriko Unibertsitateetan egonaldiak egitera ere. Gehiengoak Facebook edo sare sozialen bidez Euskal Herrian sortutako harremanak mantentzen dituzte (esperientzia pertsonala 2015 urtean Gaztemundu Programan parte hartutakoekin).

1999 urtean Andrés De Irujo Saria sortu zuten. Benan Oregik (Eusko Jaurlaritzako teknikaria) egindako lanean azaltzen du nola sortu zen Andrés de Irujo saria:

“Euskal Gizataldeen I. Mundu Biltzarrean, 1995eko urrian, lehen lau urterako plan instituzionala onartu zen (1996-1999). Plan horretan lehenengo aldiz jaso zen emigrazioaren historiaren inguruko aipamen bat. Horrela zioen: “diasporako Euskaldunen historia eta bizipenak ezagutzera eman beharra dago, eta komeni da lehia-keta bat antolatzea helburu horrekin bat datozen lanak saritzeko”. Gomendio horri erantzunez, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak “Andrés de Irujo” saria eratu zuen 1999 urtean, urtero ateratzeko asmoarekin. Sariaren helburua XX. mendean zeharreko Euskal emigrazioarekin zerikusia duten ikerketa lanak edo sorkuntzakoak saritzea da, eta emigrazio orokorra izan dezakete gaitzat, edo baita ere bizipen pertsonalak” (Oregi, 2007:55).

Andrés de Irujo sariaren helburua zen euskal gaien inguruan, emigrazioan, historian etab. ikerketa lanak egin eta hauek saritzea.

2003 urtean Latinoamerikako Euskal gizataldeetako gazteen prestakuntzarako diru-laguntzak arautzen dituen 125/2003 Dekretua irten zen, zeinek “Euskal Herrirantz” proiektuan izan zuen oinarria.

“El proyecto se orientó a posibilitar el retorno de jóvenes miembros de los Centros Vascos residentes en América Latina, mediante el acceso al sistema formativo vasco, y facilitar su inserción laboral en su mercado de trabajo” (Joseba Azkarragak, Justizia Sailburua, aurkeztutakoa Mundu Biltzarrean Eusko Jaurlaritzara 2003:248).

Hego Ameriketako herrialdeetako egoera ekonomikoa kontuan harturik, kasurako, Argentinako korrallitoa, Eusko Jaurlaritzatik herrialde horietako euskaldunei zuzenduriko proiektua jarri zuten martxan. Helburua Euskal Herrian lana behar zen sektoreak identifikatu, herrialde horietako euskaldunak Euskal Herrira ekarri, arlo horietan formatu eta lana bilatzea zen. 2002tik 2006ra 220 pertsonak hartu zuten parte proiektu honetan, zeinek 2.021.585 euroko gastua izan zuen (Ugalde, 2007:267). Proiektuaren helburuak betetzen ez zirela ikusi

zuten eta bertan behera gelditu zen. Benan Oregi, proiektu horretan lanean egon zen Eusko Jaurlaritzako teknikariaren hitzetan, bertan parte hartu zuten asko egun Euskal Herrian bizi dira, laguntzarekin euskara ikasi zuten eta hemen gelditu ziren (komunikazio pertsonala, 2018ko azaroa).

Nahiz eta 2018 urtean onartu zen, 2003³¹ urtean Diaspora Eguna ospatzea proposatu zen. Abramsonek dio, diasporizatzeko “diasporization³²” estrategia direla: “Cultural events abroad, festivals, or conventions at the country of origin” (2017:15). Jatorrizko herrialdeak erabiltzen dituen estrategiak direla diaspora identitatea sortzeko.

2004 urtetik diaspora sareak sortu izan dira, horiek zortzigarren atalburuan aztertuko dira baina aurreratu dezakegu diaspora sare horien artean daudela: (Eusko Sare, ThinkTank, Global Basque Network, BizkaiaTalent, EHU Diaspora Akademikoa). Sare horiek Euskal Herriaren eta diaspora egun bizi den herrialde horren arteko harremanean oso lagungarriak dira.

2005-2006 urteetan Euskal Museoa edo Emigrazioaren Interpretazio Zentroa proiektuarekin hasi ziren bueltaka Eusko Jaurlaritzan. Bi proiektu izan ziren: bata Ikeder enpresak landu zuena, eta bigarrena, landuagoa, Xabidek (2008an) (Oregi, komunikazio pertsonala 2018ko abendua). 2006 urteko Euskal Etxeak aldizkariaren 76. alean emigrazio zentroaren ideiarekin hasi zireneko informazioa dago. Ale horretan Europako beste komunitate batzuk dituzten zentroyen berri ematen da, kasurako, San Marino emigrant museum, Ulster American Folk park (A museum and research center dedicated to Irish emigration), edota Portugaleko Museu da emigração, Fafe.

Nahiz eta proiektua bere garaian martxan jarri ez, berriro hasi dira 2018an honi bueltaka eta Oregik dioen moduan “Emigrazioaren historiaren dokumentazio-zentrorako agiriak jasotzen hasiak gara”.

2007 urtean euskal hizkuntza eta kultura munduan zehar zabalduko zuen Etxepare Euskal Institutua sortu zen. Gsir & Mescoli-k (2015) honen inguruko ikerketa interesgarria egin zuten eta jatorrizko herrialdetik kultura atzerrian zabalatzeko modu bezala zentro kulturalak aipatzen dituzte: “The historical

³¹ Establecimiento de un Día de la Diáspora que se celebre simultáneamente en todas la Euskal Etxeak y en Euskadi , durante Julio o Agosto, y que se desarrolle en forma rotativa, en diferentes localidades de Euskadi , sirviendo como punto de encuentro para los miembros de la diáspora que hayan retornado a Euskadi , y aquellos que se encuentren de visita. (2003 urteko kongresuan lau urteko planean ondorengoa baloratu zen: pag.259)

³² Diasporization refer to the process, through which scattered individuals become part of an imagined collectivity oriented towards a real or imagined homeland (Abramson 2017:15).

perspective of Paschalidis on cultural institutions spread abroad mainly by France, Britain, Germany and Italy offers insight to better understand various interests that some states have in promoting their culture abroad and fostering interactions with their diaspora" (Gsir & Mescoli, 2015:21).

Etxepare Euskal Institutua/Basque Institute sortzeko eta arautzeko, Eusko Legebiltzarrak 3/2007 Legea onartu zuen, ahobatez, 2007ko apirilaren 20an. Benan Oregik (2007) dio Institutua ez dela hutsetik hasiko. Badira urte mordoxka bat HABEtik euskarazko klaseak antolatzen direla atzerrian. 1990 urtean "Argentinan Euskaraz" izenarekin jaio zen programaren bidez, gaur "Munduan Euskaraz" bihurtu dena, 2000 ikasle inguru dira mundu guztiko Euskal etxeetan euskara ikasten ari direnak (horietatik 900 inguru Argentinan). Prozesu horren arrakasta informatikak ekarri du alde batetik (Hezinet klase presentzialetatik Boga sistemara pasatzean, bakoitzak bere etxean egin ditzake aurrera pausuak, gero tutorearen premia izan arren). Baina baita ere, ezin uka, munduko leku askotan euskara irakasleak prestatzeari ekin zitzaiola lehenengotik, eta jarraitzen dira prestatzen.

Kanpoan diren Euskal etxe eta Euskal komunitateekin harremana daraman Zuzendaritzako kideak 2007 urtetik AEMIk (Association of European Migration Institutions) urtero antolatzen duen mitegira joaten dira. Urte horretatik elkarreko kide dira eta horrek aukera ematen die beste herrialde eta komunitate batzuk esparru honetan burutzen dituzten ekintzen berri izateko. Horrela, ikusi zuten San Marinoko errepublikak erakusketa egin zuela Ellis Island-en eta bertara joan ziren hori ikustera AEMIren Kroaziako bilkuratik bueltan. Hori bisitatu, Euskaldun ugari ere hortik pasatu zirela gogoratuz, pentsatu zuten "Guk zergatik ez?" (Oregi, komunikazio pertsonala, 2018ko azaroa). Oregik, erakusketaren antolakuntzan eta ejekuzioan ibili zenak, erakusketaren nondik norakoak azaldu zizkigun.

Zuzendaritzakoak hilabete batzutura New York-era egin behar zuten bisita bat aprobetxatuz, Ellis Island-ekoekin bildu ziren.

4 Irudia: Eusko Jaurlaritzako ordezkariak Ellis Island-era egin zuten bisitan



The Basque Government delegation at Ellis Island

Iturria: Euskal Etxeak aldizkaria, 76. alea.

Ondoren, Boiseko Euskal Museoarekin harremanetan jarri ziren eta proiektua landu zuten. Lehen proiektua atzera bota zuten baina 2009an aurkeztu zutena onartu egin zuten. Proiektuaren izena “Hidden in Plain Sight: The Basques” izan zen eta 2010urteko otsailaren 6tik maiatzaren 12ra egon zen Ellis Island-eko museoan. Erakusketa honek abiapuntu bezala izan zuen Lucy Garatea Aboitiz euskaldunaren testigantza, zein 1920 urtean Ellis Islandetik pasatu zen.

5 Irudia: Lucy Garatearen bizitzari buruzko pasartea

THURSDAY, NOVEMBER 18, 2010
IDAHO STATESMAN • IDAHOSTATESMAN.COM

IDAHO STATESMAN
WEDNESDAY, NOVEMBER 17, 2010

Luciana C. Garatea
1905 ~ 2010



On Monday, Nov. 15, we lost our beloved Ama, Amuma, Tia and friend, Lucy Garatea, at the age of 105. Lucy passed peacefully at her home in Plantation Place, surrounded by many loved ones.

Luciana Aboitiz Goitia was born March 3, 1905 in Lekeitio, Bizkaia, and was the oldest of eight children. At fifteen, Lucy received a letter from her aunt Gabina (Goitia) Aguirre requesting she come to Idaho to help with her children and work at the Star Boarding House. Lucy had never been away from her family or her village in the Basque country, and she admitted being scared and not wanting to come. After a long ocean voyage, she arrived at Ellis Island where she spent 11 days standing in lines, walking the hallways, sleeping in what she described as "chicken coops," and being amazed by the sea of humanity from nations all over the world. She soon boarded a train and eventually arrived in Boise on Sept. 6, 1920.

frequent phone calls.

Lucy sold the Plaza Hotel in 1965 and returned to Boise. She moved to a condominium in the Imperial Plaza at the age of 78, where she decided to rent instead of purchasing a unit, since she thought she didn't have many years left. However, she ended up living on her own until the age of 104, when she decided it might be nice not to have to do all of her own cooking and cleaning. Last year, she moved into Plantation Place, where she met many new friends and was treated as "the queen" by the staff and the other, often much younger, residents.

In 2009, Lucy was honored in a featured exhibit at Ellis Island in New York City, entitled "Hidden in Plain Sight: The Basques." If she hadn't already been a celebrity before that, she certainly became one after the exhibit. In her last several years of life, she gave countless interviews which appeared in both local media and in Spain. For the 2010 Jaialdi Festival, Lucy was interviewed by television crews from Spain and was visited by friends and relatives from all over the country. She was also honored by a personal visit from the President of the Basque Country, Patxi Lopez, who presented her with gifts and a plaque confirming her standing as the oldest Basque immigrant in the United States.

When asked, as she often was, how she made it through the last century—leaving her home, making her way through an unfamiliar country, losing her husband and

Garatea, Luciana, 105, of Boise died November 15, 2010 at a local care center. Arrangements are pending at Cloverdale Funeral Home.

Iturria: Boiseko Euskal Museoaren webgunea

<https://basquemuseum.eus/person/luciana-lucy-c-aboitiz-garatea/>

Euskaldunak izan ziren erakusketa horretan parte hartu zuten Estatu gabeko herria. 2019an galiziarrek ere egin zuten.

“Ellis Islanden egiten den guztiak bermatuta ditu bisitari kopuru handiak” (Oregi, komunikazio pertsonala, 2018 urteko abendua). Ferry konpainien datuen arabera, erakusketak iraun zuen tarte horretan 300.000 pertsona pasatu ziren Ellis Island Museotik (Oregi, komunikazio pertsonala, 2018ko azaroa). Ezin da jakin horietatik zenbatek igo zuten bigarren solairuko erakusketa ikustera, baina ez dago zalantzarik milaka eta milaka izan zirela.

Bisita instituzionalak ere erakundeen aldetik egindako inizatibak dira. Bisita insituzionalak gehienetan bisita komertzialak ere izaten dira eta horien helburua atzerrian bizi diren euskaldunak bisitatzeari aparte, bizi diren herrialde horietako politikari eta enpresariekin biltzea izaten da.

2008 urtean Konpondu.net³³ sortu zen, Ibarretxe Lehendakariak bakearen erai-kuntzan herritarren ahotsa entzuteko martxan jarri zuen proiektua eta, ekimen horretan, diasporako kideen ahotsa ere entzun nahi izan zen:

“Konpondu.net es una iniciativa impulsada desde el Gobierno Vasco con el objetivo de ofrecer a los ciudadanos la posibilidad de participar activamente en el proceso de construcción de la paz, aportando sus opiniones y propuestas en esta página web. El proyecto asegura tener muy en cuenta a la Diáspora, por lo que está impulsando la creación de foros de diálogo en las Euskal etxeas y comunidades vascas. Al final del proceso de debate las contribuciones de los distintos foros serán incluidas en un informe general que se hará llegar a partidos políticos e instituciones del país”
Konpondu Ekimenari buruzko albistea Euskalkultura.com-en 2007 urteko otsailean: <http://www.Euskalkultura.com/espanol/noticias/la-iniciativa-konpondu-net-invita-a-la-diaspora-a-aportar-sus-reflexiones-en-los-foros-de-dialogo-para-la-paz>

2016 urtean Kanpo Harremanetarako Aholku Batzordea³⁴ sortu zen zeinetan kanpoan bizi diren euskaldunen ordezkari bat izango duen. 2018 urteko irailaren 8an Euskal Diasporaren Eguna ospatu zen lehen aldiz.

6.2.3.2 Komunikabideak

1995 urtetik aurrera, komunikabideak hasiko dira kanpoan bizi diren euskaldunei begira lan gehiago egiten. Komunikabideak oso garrantzitsuak dira atzerrian bizi direnekin lotura mantentzeko:

³³ Ez dago iada webgune hori erabilgarri.

³⁴Euskal Herriko Agintaritza Aldizkaria, Kanpo Harremanetarako Aholku Batzordeari buruzko informazioa: <https://www.Euskadi.eus/y22-bopy/es/bopy2/datos/2016/07/1602939a.shtml>

“Los medios de comunicación vascos con alcance internacional, tanto televisivos como escritos en Internet, son vehículos importantes para mantener una relación informacional estable con Euskal Herria y difundir cultura. Cada uno de ellos presenta, por su parte, dificultades específicas: en el caso de la televisión las problemáticas referidas a la distribución de la señal por parte de las compañías locales de cable en la diáspora (sobre todo en los países en los que el cable no está tan desarrollado). En el caso de los medios periodísticos en Internet la barrera fundamental es el tenue compromiso con la información de primera mano provista desde Euskal Herria: la mayor parte del colectivo vasco se limita a informarse con los medios locales en sus países de residencia. Existen pocas iniciativas para integrar los diferentes soportes en pos de una comunicación integral de Euskal Herria con el mundo, proceso en el cual la diáspora juega un papel fundamental. Por eso, sostenemos que existe una ventana de oportunidades que debemos aprovechar hoy mismo” (2003.urteko Mundu Biltzarreko Aktak, Eusko Jaurlaritza 2004:38).

Komunikabide horien artean daude telebista, egunkariak, medio espezializatuak eta dibulgaziorako lanak: publikoaren esku jarriko diren dokumental, Telebista saioak edota pelikulak.

a) Telebista

1997an Eitbk EtbSat eta Canal Vasco (Peñafiel, Casado, Arroyabe, Gómez, 2008) nazioarteko Telebista kateak sortu zituen. Munduan zehar dauden diaspora gehienak euren jatorrizko herrialdearekin komunikatzeko eta euren jatorrizko herrialdean gertatzen denaren berri izateko nazioarteko telebistak erabili izan dituzte eta Euskal Herriaren kasuan 1997an eman zen pausu hori.

6 Irudia: Nazioarteko katea atzerrian

CENTROS VASCOS

Euskal Etxeak

El Canal Vasco de ETB consigue llegar a 2 millones de hogares en América en sólo 9 meses

Canal Vasco, la cadena creada para América por Euskal Telebista ha conseguido llegar a dos millones de hogares en tan sólo 9 meses de funcionamiento. Además, tiene presencia en todos los países de América a través de cien cableoperadores y se ha convertido en una cadena de televisión de referencia para los centros vascos repartidos por todo el continente americano.

Todos estos datos fueron dados a conocer por el Director General de EITB, Andoni Ortuzar y el Director de EITB Internacional, José Félix Azurmendi, a casi un centenar de profesionales de la publicidad y representantes de empresas vascas y del ámbito universitario en un acto que fue clausurado por el portavoz y Consejero de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, Josu Jon Imaz, y por la Consejera de Cultura Mari Carmen Garmendia.

Garmendia ha remarcado la importancia del Canal Vasco como nexos de unión de la cultura vasca con el resto del mundo y especialmente con el conti-

nente americano donde la presencia de personas cuyo origen hunde sus raíces en Euskadi es muy importante.

Por su parte, Josu Jon Imaz, ha afirmado que "Iberoamérica no es ya tan sólo un destino tradicional de la emigración vasca, sino que se ha convertido en el segundo mercado, tras la Unión Europea, del Comercio Exterior vasco. Un mercado creciente, no en vano las exportaciones vascas a Latinoamérica han pasado de 36.000 millones en 1990 a 125.000 en 1999. En términos relativos, Latinoamérica representaba en 1990 el 6% de las exportaciones vascas y en 1999 supuso ya el 8% del total".

El Director General de EITB, Andoni Ortuzar ha confirmado que "en este primer año de experiencia de Canal Vasco, hemos constatado que existe un gran interés en América por un Canal de las características del nuestro. Con contenidos de información y entretenimiento, con una programación de calidad europea, que habla el *idioma de América* y que cuenta con exclusivas importantes en el campo del deporte".

El Director General ha recordado que "EITB inició su internacionalización el día 31 de diciembre de 1997, con la puesta en marcha de ETB Sat, comenzando a dar respuesta a la demanda unánime del Parlamento Vasco de extender su servicio a todos los vascos de la diáspora. A partir del 20 de mayo del pasado año 2000, esta internacionalización de EITB avanza en dos líneas muy importantes: En primer lugar desdoblamos ETB Sat, diferenciando la emisión para el Estado que realizamos a través de Vía Digital, del nuevo Canal Vasco. Y en segundo lugar, ponemos en marcha el sitio eitb.com".

Ortuzar ha anunciado que "ahora nuestro próximo reto es lograr la difusión en Europa de nuestra programación. Algo que esperamos poder hacer realidad este mismo año." ■

Iturria: Euskal Etxeak aldizkaria, 2001 urteko alea


Nazioarteko telebista kateek Euskal Herriaren eta euskal diasporaren arteko komunikazioa erraztu zuten eta, duda barik, komunikatzeko bide bihurtu zen. Euskal Herriaren kasuan, badaude euren identitatea CanalVasco edo EitbSat bezelako kateak ikusten indartu dutenak. Josu Amezagak "Televisión por satélite en el mundo: nuevos retos para viejas lenguas"-en dio satellite bidezko telebistari esker komunikatzeko bidea zabaltzen dela.

Estatu Batuetan bizi diren euskaldunen artean Eitb kontsumitzen zutenen zenbakia zenbatekoa zen ezagutu nahi izan dugu eta horretarako 2018 urteko maiztza-abuztua bitarte martxan izan genuen inkestaren erantzunak berreskuratu ditugu.

7 Irudia: Euskal Telebistaren kontsumoa Estatu Batuetan diren euskaldunen eskutik:

25.- Do you watch Euskal Telebista? / Euskal Telebista ikusten duzu?

411 respuestas



Iturria: norberak egina inkestako 25. galderaren erantzunekin

Inkesta erantzun dutenen %20,2ak kontsumitzen du Euskal Telebista. Hipotesi moduan planteatzen genuen, portzentaia hori desberdina dela diaspora komunitatearen eta generazioaren arabera, eta horrela dela probatu dugu. Adibidez, Floridan bizi diren lehen generazioko euskaldunetatik gehiengoak, bai kontsumitzen dute Euskal Telebista, eta Conquistador del Fin del Mundo bezalako saioak jarraitzen dituzte. Bestalde, bigarren edo hirugarren generazioko euskaldunek, beste era batera izaten dute Euskal Herriko albisteen berri, adibidez, sare sozialen bidez. Informazio eta komunikazio teknologia berriek, beraz, aukera ezberdinak ematen dizkiete diasporako kideei Euskal Herriarekin komunikatzeko eta beren euskaltasuna etengabe berreraikitzeke, batez ere, internet eta satellite bidezko telebistak (Amezaga, 2004:128). Horrekin lotuta, Patty Millerrek, Boiseko Euskal Museoko zuzendari izandakoak, bere izeko aipatzen du, eta gogoratzen du, nola satellite bidezko Eitb ikusiz Amezagak aipatzen duen "Euskaltasun" hori berreraiki edo sikieran, bizirik mantentzen duen: "I don't watch eitb but my aunts, who is 86 she does. It is wonderful because she can see somebody she knows and that keeps her close."

Nazioarteko Euskal Telebista sortzea aurrerapen ikaragarria izan zen kanpoan bizi diren Euskaldunekin komunikazioa hobetzeko, hala ere, hau ikusten duten gehienak lehen generaziokoak dira eta kopurua nahiko baxua da, %20,2a. Egindako sakoneko elkarrizketetan ikusi ahal izan dugu Eitb-ko webguneko arduradunak onartzen duela euskal diaspora ez dela kontutan hartzen albistek eta informazioa zabaltzerakoan. Garai batean bai izaten zuten korrespontsal bat

Boisen (Idaho) diasporako albisteak ematen baina ade batera utzi zuten pentsatzen zutelako euskal diasporak Euskal Herrian bizi den jendearen interes berdinak zituztela eta hemengo albiste propioak kontsumitu nahi zituztela. Diasporari buruzko albisteek ez zuten oihartzunik izaten. Denborarekin ikusi zen jariora gero eta gutxiago zela. Ez ziren kontsumitzen: “Hemengoari interesatzen zaio gauza puntaletan (Jaialdia, Athletic, Eibar doanean, gauza oso adierazgarria denean edo oso sinbolikoa denean) gainontzeko gaitan ez” (Lontzo Sainz, EITB bertsio digitaleko arduraduna, komunikazio pertsonala, 2016 urteko ekaina).

Eitb-ren nazioarteko kateen sorreraz eta hauen eboluzioaz hitz egiteko Jose Felix Azurmendirekin elkarrizketa egin genuen, nazioarteko EITB-ren difusiorako zuzendaria izandakoa baina, horrez gain, Venezuelan urte asko igaro eta diaspora ondo ezagutzen duena. Gogoratzen du, nola, hasieran satelite bidezko telebista ezin izaten zutela ikusi, eta, horregatik, euskal etxeetan antena eta dekodifikadorea jarri zituztela. Hala ere, euskal etxeetan zegoela, ikusi zuen bai jolasten zela kartetan etab. baina ez zela ikusten telebista, hori etxeetan egiten zutela. Estrategia aldatu eta etxeetan katea sartzen saiatu ziren. Horrez gain, uste zuen interesgarria zela hango gauzak ere hemengo programazioan sartzea, eta, horregatik “Vasco-americanos”, “Vasco-argentinos” eta horrelako programak egin zituzten. Bere hitzetan, denoi gustatzen zaigu telebistan agertzea, eta, horregatik, Argentinan edo Uruguain zeudenak, hemengo telebista katea ikusteko, era on bat zen bertako zerbait programazioan sartzea.

Orain dena interneten aurki daitekeela dio eta, bere ustez, urteak aurrera egin ahala, ez zaiola ematen behar besteko garrantzia nazioarteko kate hauetan eskeintzen den parrillari: “Luego llegó la crisis económica: sospecho que ya no hay demasiada preocupación por el deterioro del programa internacional, de su contenido” (Jose Felix Azurmendi, EITB nazioarteko Telebista kateen arduraduna, komunikazio pertsonala, 2017 urteko uztaila).

b) Egunkariak eta egunkari digitalak

Bertsio digitalak sortu arte, egunkariak noizbehinka ematen zuten kanpoan bizi ziren euskaldunei buruzko informaziorik baina, ez zuten balio komunikazioa izateko, izan ere, oso zaila zen kanpoan bizi ziren horientzako, Euskal Herriko egunkariak irakurtzea. Elkarrizketetan jakinarazi digutenez, kasu batzutan, Euskal Herrian bizi ziren familiako kideek egunkariak bidaltzen zizkieten koreoz, eta hauek Estatu Batuetan irakurtzen zituzten hile batzuk geroago. 90. hamarkadan internetera saltoa eman zen eta horrek aldaketa eta aurrerapausu bat suposatu zuen mundu osoaren komunikazio orokorrean, eta diasporarekin komunikatzekoan. Garai hontan euskal komunikabideen lehen bertsio digitalak sortu ziren.

Deia egunkariak 1999 urteko abenduaren 27an eman zuen internetera saltoa; “Gara egunkaria 1999ko urtarrilean kaleratu zen, 2002. urtean @garanet edizio jarraitu (albisteak sartuz) eta 2012ko ekainean NAIZ sortu zen” (Iñaki Altuna, Garako bertsio digitaleko arduraduna, 2016 urteko ekaina); El Correok 1994 eman zuen saltoa eta eta Berria egunkariak paperezko edizioarekin batera sortu zuen digitala 2003.urtean. El Diario Vascok 1994 urtetan.

Ikerketa lanarekin hasi ginenan, elkarrizketak egin genituen Deia, Naiz, El Correo eta Berria egunkarietako bertsio digitaletako arduradunekin. Ikusi ahal izan genuen, egunkari batzuk bai ematen zituztela diasporari buruzko albisteak, baina, gehienak, euren agendan ez zutela hori kontenplazten. Izan ere, euskal komunitatearentzako garrantzitsuak ziren albisteak, garrantzitsuak ziren baita ere kanpoan bizi ziren euskaldunentzako:

“Euskara da gure ardatza, eta euskaldun guztiengana zuzentzen gara, baita diasporakoengana ere, noski. Kanpoan dagoen euskal komunitateari zuzentzen gatazkieko aktualitateak hala eskatzen duenean, alegia, Euskal Herritik kanpora begira ekimen edo albiste interesgarriak daudenean eta kanpoan Euskal Herrian interesgarriak diren ekimenak antolatzen direnean (Euskal asteak, gatazka-karen konponbidearen aldeko ekimenak, diasporako euskara ikasleak)” (Jon Ordoñez, Berria.eus-eko arduraduna, komunikazio pertsonala, 2016 urteko ekaina)

Beraz, albisteak ez ziren beti diasporari buruz, gainera, lan hori, batzuen hitzetan, Euskalkultura.com-ek egiten zuen (Lontzo Sainz, EITB.eus -eko arduraduna, komunikazio pertsonala).

Horren harira, diasporako kideei egindako elkarrizketetan bi ikuspuntu desberdin topatu ditugu. Alde batetik, komunikabideek informazio nahiko ematen ez dutela uste dutenak: “Media don’t give enough information”(Argia Beristain, Idaho eta Nevadako Euskal komunitateko kide esanguratsua, komunikazio pertsonala, 2017 urteko apirila), eta bestetik, nahiz eta ez eman, informazio horren beharrik ikusten ez dutenak (Anita Anakabek, Nevada eta Idahoko Euskal komunitateko kide aktiboa, komunikazio pertsonala, 2017ko apirila).

Manuel Arroyok ere, Elcorreo.com-eko arduradunak, antzekoa den zerbait dio, albisteak bai Euskal Herrian zein Euskal Herritik kanpo bizi direnentzako di-rela: “There is no Basque diaspora-specific content: we consider that any of the news stories published on the leading news site in the Basque Country, that is on elcorreo.com, could be of interest to them”.

Bestalde, Grupo Noticiasek, estrategia desberdin bat aukeratu du eta Deia.com-eko arduradunak, Josetxu Rodriguezek dio, nahiz eta espreski diasporari buruz den atal bat ez izan, bai argitaratzen dituztela lotura duten gaiak: “No tenemos

secciones específicas destinadas a la diáspora, pero solemos realizar series de entrevistas o reportajes semanales con personas que tienen relación con ella” GARAKo online webguneko arduradunaren hitzetan, diasporako kideetara heltzeko apostua egin dute: “Egina duela bai, baina emaitza ez da, oraindik bederen, behar bestelakoa izan. Seguru asko, diaspora bat baino gehiago dagoe-lako, eta ez garelako gai errealitate ezberdin horiekin behar bezala bat egiteko” (Iñaki Altuna, Garako bertsio digitaleko arduraduna, 2016 urteko ekaina).


Azpimarratu nahi da, elkarrizketak egin genituenetik gaur egun arte, ikusi du-gula eboluzio bat egon dela diasporari buruzko albisteetan eta artikuluetan eta 2018 urtean, gai honi buruz idatzitako artikulua eta albisteak, gehiago direla.

Estatu Batuetan bizi diren euskaldunen eta Euskal Herriaren arteko harremanaren egungo egoera zein den ezagutzeko, 2018 urteko maiatza-ekaina hileen bitartean inkesta bat zabaldu zen. Horren arabera ezagutu nahi genuen nola-koak diren Estatu Batuetan bizi diren euskaldunen eta Euskal Herriaren arteko komunikazio joerak, bai familiar eta indibidualak, baita ere, albiste zein Euskal Herriari buruz orokorrean, duten komunikabideen kontsumoa eta nola gusta-tuko litzaieke komunikazio hori hobetzea. Inkesta 424 pertsonak erantzun dute eta horietatik %92,9ak Euskal Herriarekin loturaren bat duela dio.

8 Irudia. Euskal Herriaren lotura

8.- Are you connected to the Basque Country? / Baduzu loturarik Euskal Herriarekin?

420 respuestas




Iturria: inkestaren 8aren galderaren erantzuna

Konexio hori, batez ere, familiarengatik dute, baina horrez gain, identitatea eta kultura ere badira arrazoia.

9 Irudia. Konexioa Euskal Herriarekin

9.- Which is your connection to the Basque Country? / Zein da zure lotura Euskal Herriarekin?

419 respuestas




Iturria: inkestaren 9en galderaren erantzuna

Galdetu dugun beste galderetariko bat izan da, ea Euskal Herrian familia edo lagunik duten. Familia dutenen portzentaia altuagoa da baina, ugari dira, baita ere, Euskal Herrian lagunak dituztenak:

10 Irudia: Familia Euskal Herrian

12.- Do you have family in the Basque Country? / Badaukazu familiarik Euskal Herrian?

417 respuestas




Iturria: inkestaren 12.galderaren erantzuna

11 Irudia: Lagunak Euskal Herrian

14.- Do you have friends in the Basque Country? / Baduzu lagunik Euskal Herrian?

420 respuestas




Iturria: autoreak egina inkestako 14-galderaren erantzunekin

Familiarekin eta lagunekin komunikatzeko maiztasuna antzekoa da eta inkestaren erantzunek erakusten dute astero familiarekin hitz egiten dutenen portzentajea %27,7koa dela eta astero euren Euskal Herriko lagunekin hitz egiten dutenena %24,3.

Aztertu nahi izan dugu, baita ere, zein medio edo tresna erabiltzen duten diasporako kideek euren familia edota lagunekin komunikatzeko eta baita Euskal Herriari buruz informazioa izateko. Interesgarria da, kasu honetan, WhatsApp tresnari buruz nola hitz egiten duten entzutea. Hurrengo grafikan ikusi dezakegun moduan, aplikazio hori ez da komuna Estatu Batuarren artean:

12 Irudia: Whatsappen erabilera Estatu Batuetan




Iturria: <https://www.statista.com/statistics/740654/whatsapp-app-chat-usage-usa/>

WhatsApp-en erabilera Estatu Batuetako jendearen artean

Euskal diasporako kideak, ordea, hori erabiltzen dute Euskal Herriko senitartekoekin komunikatzeko.

13 Irudia: Euskal Herriko jendearekin komunikatzeko medioa

16.- How do you communicate with the people from the Basque Country? / Nola komunikatzen zara Euskal Herriko jendearekin?



Iturria: inkestaren 16.galderaren erantzuna


Galderetako batean “komunikatzeko beste era batzuk” izendatzeko eskatzen genien eta erantzun horietatik 21ek Skype eta Facetime aukerak gehitu dituzte. Horiez gain, aipatu dituzte tresna digitalak: Google Hangouts, Instagram, Snapchat, videocalls eta ez digitalak: Euskal Herrira bisitak, Gabonetako txartelak, harreman interperersonala, Euskal Herrira doan jendeak daramatzan mezuak eta Jaialdiak. Hala ere, tresna komunenak Skype eta Facetime dira.

Aztertu da, beraz, norekin komunikatzen diren, zein den komunikazio horren maiztasuna eta ze tresna erabiltzen dituzten komunikazio hori aurrera eramateko. Horrez gain, jakin nahi izan dugu baita ere, Euskal Herriko albisteak jarraitzen dituzten:

14 Irudia: Euskal Herriko medioen kontsumoa

21.- Do you follow the news about the Basque Country? / Interesatzen zaizkizu Euskal Herriko albisteak?

421 respuestas



Iturria: inkestaren 21.galderaren erantzuna

Gehiengo handi batek bai jarraitzen ditu albisteak (%79,1) eta albisteak kontsumitzeko gehien erabiltzen dituzten bideak sare sozialak eta egunkari digitalak dira, baina, batez ere, eta beste bide guztiekin aldaratuta, sare sozialak. Familia, lagun edota ezagunen arteko sare interperersonalak ere nahiko zenbaki altuak eman ditu.

8. Taula: Zenbatero kontsumitzen dituzte Euskal albisteak diasporako kideek?

Nola?	Egunero	Astean baten	Hilean baten	Urtean baten	Ezer ez
Sare Sozialak	%39	%11	%11	%5	%12
Egunkari digitalak	%25	%17	%17	%6	%8
Interpertsonala	%13	%11	%11	%5	%12
Telebista	%11	%10	%8	%6	%21
Irratia	%8	%7	%6	%7	%24

Iturria: elaborazio propioa inkestako erantzunetan oinarrituta

Egunkarietan zerbait gehiago sakondu dugu eta jakin nahi izan dugu zeintzuk diren irakurtzen dituzten egunkariak. 424tik 298 pertsonak erantzun dute galdera hau eta ondorengo taulan Berria, Deia, Naiz, El Correo, Diario Vasco, El País, Sudouest eta La République irakurtzen dutenen portzentaia atera ditugu.

9. Taula: Zein egunkari kontsumitzen duzue?

Egunkaria	Irakurleak
Diario Vasco	%20,13
El País	%19,46
Berria	%19,13
El Correo	%17,45
Deia	%17,11
Naiz	%12,08
Sudouest	%7,38
La République	%1,68
Bat ere ez	%24,50

Iturria: autoreak egina inkestako erantzunetan oinarrituta

Taula honetan ikus dezakegu inkesta erantzun dutenen %69,4ak erantzun duela egunkarien galdera. Horietatik kopuru altuenak, %20,13, Diario Vasco egunkaria kontsumitzen dute, ondoren, zenbaki nahiko antzekoekin El País eta Berria egunkaria daude. Ondoren El Correo eta Deia eta gero Naiz. Frantziako egunkari bi ere sartu genituen. Gure metodologia balidatzeko helburuarekin, inkesta diasporako bost kideri bidali genien eta horietako baten gomendioa izan zen Iparraldeko euskaldunak izanik ere, beharrezkoa zela Frantziako egunkari horiek sartzea. Egunkari horiek irakurtzen dituztenen kopurua baxua da, baina Iparraldeko Euskaldunen kopurua ere, hegoaldekoekin aldaratuta, baxuagoa da.

Komunikabide hauez gain, egindako inkesten emaitzak erakusten digute diasporako kideek beste egunkari edo komunikabide batzuk ere kontsumitzen dituztela. Horiek hiru taldetan banandu ditugu: jatorrizko herrialdekoak, egun bizi diren herrialdekoak eta diasporako kideek kudeatutakoak. Jatorrizko herrialdekoak dira Diario de Noticias de Navarra, La Vanguardia, Kirolezkoak (Marca), Herria, El Confidencial, Hitzza, Gara, El Mundo, Ara, Avui (egunkari katalanak), El Mundo, Expansion eta Basque Tribune. Estatu Batuetakoak New York Times, Financial Times eta Idaho Statesman, eta diasporako kideek kudeatzen dituztenak Local Basque Museum Newsletter, Astero, MediaBask eta EuskalKulturErakundea.

Diasporari buruz albisteak publikatzeak ez du suposatuko diasporako kideek egunkari hori irakurtzea. Izan ere, ikusten da, diasporari buruzko albisteak argitaratzen dituzten egunkariak ez direla gehien irakurtzen direnak. Albiste horiek, difusioa emango dio eta ezaguna egingu du euskal diaspora Euskal Herriko irakurleen artean, baina hainbat medioetako arduradunek esan bezala: "Diaspora, euskal komunitateko parte da, eta beraz, albiste berak interesatuko zaizkio, izan edo ez izan, diasporari buruz" (komunikazio pertsonalak, 2016 urteko maiatza).

c) Medio espezializatua

Komunikabideekin jarraituz, 1998. urtean, Euskalkultura diaspora medioa sortu zen. 1998 urtean "Kulturaren Aldeko Euskal Fundazioak", beste subjeto batzuekin batera (sakoneko elkarriketen arabera Juanito Celaya ezaguna eta Joseba Intxausti idazlea) Euskal Herriaren eta euskal diasporaren arteko komunikazioa garatzeko helburuarekin sortu zuten eta Joseba Etxarri kazetaria izendatu zuten horren arduradun. Kulturaren aldeko Euskal fundazioaren helburua zen:

“Euskararen eta Euskal kulturaren eta hauen ezagutza eta praktika, garapen, transmisio eta zabalkundearen aldeko edozein motateko iharduera sustatu, burutu, antolatu, lagundu eta finantziatu da, iharduera hauen perspektiba eta agerpeidea edozein direlarik ere” (Euskal Fundazioa Fundazioaren estatutuak³⁵)

Etxarrik bazeukan jada urte askoren ondoren lortutako diasporaren inguruan ezaguera eta jakinduria, baita hainbat kontaktu eta harreman estu kanpoan bizi ziren euskaldunekin. Bere garaian Kalifornian eta Txilen emandako denboraldiaren ondorioz diasporako kideez osaturiko sare interesgarria zuen. Horrez gain, lan ugariaren autorea zen (elkarrizketak eta liburuak). 1988 urtean Muga izeneko aldizkaria argitaratu zuen eta 1989an Pete Cenarrusari, Idahoko Estatu Idazkariari, egindako elkarrizketa ere argitaratu zuen. Garrantzitsuak dira elkarrizketa hauek garai horretan, oraindik, ez zegoelako diasporako gaia jorrazten zuen lan askorik. Horrela apurka apurka ezaguna egin zen Euskal diasporako kideen artean eta: “Euskal Komunitateetako parte izaten hasi nintzen zeinek urteetan ezagutza bat eman zidan” (Joseba Etxarri, Euskalkultura.com-eko arduraduna, komunikazio pertsonala, 2017ko urria). Gero irratsaio bat egiten hasi zen Euskadi Irratiarentzat 11 urtez “Euskaldunak Ameriketan” eta beste 3 urtez Radio Euskadin. Beraz, Etxarri aukeratu zuten lan hau egiteko 1989an. Hasiera batean buletina Txileko Santiagon argiratzatzen zen eta gero Argentina, Uruguay, Venezuela, Panama, Puerto Rico, Mexico eta Estatu Batuetara zabaldu zen. Buletinak 2001ean digitalera eman zuen saltoa eta Euskal Kultur Fundazioaren menpe egotetik, Joseba Etxarriren menpe pasatu zen, egun mantentzen den moduan. Orduan Euskalkultura.com sortzen da:

“Euskalkultura.com Euskal diaspora eta kulturaz espezialdutako buletin eta webgunea da, Euskal Herriaren eta munduan barreiatutako Euskal komunitateen arteko zubilana egitearren Basque Heritage Elkartearen izeneko irabazi-asmorik gabeko elkarteak sortu eta garatua” (Euskalkultura.com-en webgunetik hartuta)


Hau diaspora medio moduan aztertuko den 2.0 komunikazioaren barruan sartuko dugu. Egun Euskalkultura.com-ek 5.500 harpidedun dauzka eta, gure analisiaren arabera inkesta erantzundakoen artean %34,5ak kontsumitzen du medioa.

³⁵ Euskal Fundazioaren estatutuak: http://www.Euskadi.eus/contenidos/fundacion/181/eu_def/adjuntos/fatorrizkoEstatutuak.pdf

15 Irudia: Euskalkultura.com-en kontsumoa

26.- Do you read Euskalkultura.com ? / Irakurtzen duzu Euskalkultura.com ?

411 respuestas



Iturria: elaborazoi propioa inkestaren 26. Galderaren erantzunetan oinarriturik

Komunikabide bezala aurkeztu dezakegu baina oraindik zehatzago izan nahi dugu, eta Hepp, Bozdag eta Sunak (2012) eta Ogunyemik (2015) dioten diaspora media dela esango dugu. Euskal Herrian dagoen "diasporic media" bakarra dela esango genuke. Euskalkultura.com ek "reinforce the identities and sense of belonging" (Georgiou, 2006), eta Euskaletxeak.net en bertsio digitala "product of culturally relevant and locally vital information to immigrants in the host country" (Yin, 2015.). Euskal Herriko jenteak eta diasporako euskaldunek idatzita, batzutan kanpoan bizi diren Euskaldunei egindako elkarrizketetan oinarrituta dago. Horrez gain, baditu korrespontsal, bata Argentinan eta bestea Estatu Batuetan, zona horietako albisteak kubritzen dituztenak. Hau diasporic media bezala ezagutu daiteke, hau da, "produced by and for migrants and deal with issues that are of specific interest for the members of diasporic communities" Hepp, Bozdag & Suna (2012:97). Euskalkultura irakurtzen dutenen kopurua %35,3 Euskal Telebista ikusten dutena %20,2 baino zenbaki apur bat altuagoa da baina, hala ere, nahiko baxua, kontutan izanda, Euskalkultura.com-ek egunero buletina bidaltzen duela emaitetara. Beraz, jende askora heltzen da baina agian ez dute irakurtzen.

Euskal Herritik badago irratia saio bat, medio espezializatu bezala kategorizatu duguna. Hori da 2004an sortu zen Zortzi Probintziak elkarte, euren webgunean “Euskal diasporaren irratsaio” bezala aurkezten dira eta: “Hilabetero lehen igande guziz, arratseko 20tik 21:30ak arte (Euskal Herriko tenorenean). Zuzenean eta lau hizkuntzetan (Euskara, Frantsesa, Ingelesa eta Española)”³⁶. Elkar-tearen oinarri eta helburuak euskaldun eta euskal elkarte guztien arteko loturak baloratzea eta indartzea da.

6.2.3.3 Dibulgazioarako lanak

Dibulgaziorako lanak izango dira publiko bati zuzenduriko eta euskal diasporari buruz instituzioek, gizarteak edota komunikabideek argitaratutako lan bai akademiko zein ez akademikoak.

1995ean Eusko Jaurlaritzak, Eusko Ikaskuntzak eta unibertsitateek testimonioen bilketa jarri zuten martxan:

“En terreno de fuentes orales, Eusko Ikaskuntza (1995), y pocos años más tarde Center for Basque Studies de la Universidad de Nevada, Reno y el Basque museum and Cultural Center de Boise, Idaho, pusieron en marcha sendos programas de recopilación de entrevistas a emigrantes vascos” (2007 urteko Mundu Biltzarreko aktak, Eusko Jaurlaritza 2008:116).

1997 eta 2003 urteen bitartean Eusko Ikaskuntzak Euskalamerikarren bibliografiak³⁷ bilduko zituen proiektua jarri zuten martxan.

2000 urtean Andrés de Irujo Sarira aurkezten ziren baina saria irabazten ez zuten lan horiekin zerbait egitea pentsatu zen (Oregi, komunikazio pertsonala, 2018ko azaroa). Horregatik, 2000 urtetik 2007 urtera Euskaldunak Munduan argitalpena egin zen, eta hor argitaratuko ziren, Andrés de Irujo Saria irabazten ez zuten, eta argitaratzea merezi zuten lanak.

1999 urteko Euskal Kolektibitateen Mundu Biltzarrean William Douglasssek Euskal diasporaren historia biltzea premiazkoa zela esan zuen. Horrela, 2003ko Mundu Biltzarrean, horren erantzun bezala Urazandi Bildumako 15 liburu aurkeztu zituzten (Oregi, komunikazio pertsonala, 2018ko azaroa).

“2003ko uztailean bildumaren lehen hamabost liburuak aurkeztu ziren Vitoria-Gasteizen, 3. Euskal Gizataldeen Mundu Batzarrean. Bilbon, 4. Batzarrean, “Urazandi Digitala” aurkeztu zen, 134 euskal aldizkari digital moduan barne. Horrela, Urazandi bildumak jarraitzen du munduko euskaldunei buruzko ikerketa eta he-

³⁶ Zortzi Probintziak-en webgunea: <https://8probintziak.com/?lang=eu>

³⁷ “Eusko Ikaskuntza puso en marcha, entre 1997 y 2003, un equipo de recopilación de la bibliografía sobre las colectividades vascoamericanas, que se integraba en un proyecto más amplio de recopilación de historiografía sobre EUSKAL HERRIA” (Eusko Jaurlaritza, 2008:116)

dapena lanarekin” (Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko webgunetik hartua)³⁸

Liburu hauek komunitate garrantzitsuak zeuden tokian tokiko akademiko eta ez akademikoek idatzi zituzten. 2002 urteko abenduan Urazandi Bilduma kale-ratu zen, euskal diaspora eta euskal etxeei buruzko informazioa bilduko zuena, eta Euskal etxeak kulturatik maila akademiko batera eramango zituena. Euskal etheen historia idatziko zuten euskal etxeetako eta euskal komunitateko kide aktiboek, adibidez, Mikel Ezkerrok eta Gloria Toticaguenak, baina, baita ere Euskal etxeetatik kanpo zeuden akademikoak. Mikel Ezkerrok, adibidez, Buenos Aireseko Laurac Bat Euskal etxearena idatzi zuela. Mikel Ezkerro Argentinako euskal komunitatean oso ezaguna eta partehartzailea den pertsona bat da. Hainbat artikulua idatzi ditu Argentinako euskaldunei buruz, harremana du ia probintzi guztietako Euskaldunekin eta bere Facebook-ean Euskal identitateari eta Euskal Herritik kanpo bizi diren euskaldunei buruz hainbat gogoeta egiten ditu. Buenos Aireseko Laurac Bat da askoren hitzetan munduan dagoen euskal etxerik zaharrena, 1877 urtean osatu zuten 13 Euskaldunek. Gloria Toticaguenak ere, Boiseko eta Idahoko Euskal komunitateko kide ezaguna eta aktiboa da, baina ez bakarrik komunitateko kide bezala, Toticaguenak euskal diasporari buruz hainbat artikulua akademiko idatzi ditu.

Beste autore asko, esan bezala, euskal etxeetatik kanpo zeuden unibertsitate irakasleak ziren. Ideia Euskal etxeak zer ziren publikatzea zen, informazio hori euskal etxeetan eta Euskal Herrian zabaltzea.

Oso lan aberasgarria gai honi buruz ikerketarik egin nahi duen ororentzat. Bil-dumako liburu guztiak eskuragarri daude Idazkaritza nagusiko webgunean³⁹.

³⁸ Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko webgunetik hartua
<http://www.Euskadi.eus/kanpoan-den-euskal-komunitatea-urazandi-argitalpenen-bilduma/web01-s1leheki/eu/>

³⁹Urazandi Kolekzioa: <http://www.Euskadi.eus/comunidad-vasca-en-el-exterior-coleccion-de-publicaciones-urazandi/web01-s1leheki/es/>

16 Irudia: Urazandi proiektua

Euskal Etxeak**CENTROS VASCOS****PROYECTO URAZANDI**

La Dirección de Relaciones con las Colectividades Vascas ha puesto en marcha una nueva iniciativa que ha llamado "Urazandi" (allende los mares), cuyo principal objetivo es la recopilación de la historia de los quince principales centros vascos en forma de colección.

Esta iniciativa, que se sufragará con cargo a la convocatoria anual de subvenciones dirigida a los centros vascos, se llevará a cabo a lo largo de los ejercicios presupuestarios de 2001 y 2002, de forma que para el 31 de diciembre de ese último año estén redactados y concluidos los trabajos recopilatorios (en los que, además, se anexarán testimonios orales, etc. de los protagonistas).

Urazandi viene a paliar una asignatura pendiente ya que desde ámbitos académicos como la Universidad del País Vasco y la Universidad de Reno se venía avisando de la perentoria necesidad de acometer esta tarea. De hecho, varios Departamentos universitarios han comenzado a realizar tareas de recopilación de documentos y testimonios.

El objetivo que se ha marcado la Dirección de Relaciones con las Colectividades Vascas no es otro que el poder presentar esta Colección durante la celebración del próximo Congreso de Colectividades Vascas (a celebrar en otoño de 2003), como contribución de la Secretaría General de Acción Exterior a la Historia del pueblo vasco. ■



Iturria: Euskal etxeak aldizkariaren 2001urteko alea.

2008 urtean Euskaldunak Prentsa Amerikarrean irten zen. Proiektua Euskal Etxe eta Kanpoan bizi diren Euskaldunekin harremana mantentzeko zuzendari-tzarik irten zen eta hasieratik Euskal Herriko Unibertsitatearekin jarri ziren harremanetan. Óscar Álvarez Gila irakasle eta adituak koordinatu zuen proiektua.

Lan honek esparru desberdinetako jendea bildu zuen, euskal etxeetako jendea euren inguruetako unibetsitateekin komunikatzea lortu zuen baita Euskal Herriko Unibertsitate eta Unibetsitate horien artean ere. 8 egunkari aukeratu ziren eta denbora 1897 urtetik 1920rako izan zen. Eusko Jaurlaritzatik Josu Legarretak abian jarri zuen proiektu bat izan arren, komunikazio bidirezionalerako proiektu bat zen eta bi aldeetakoek parte hartu zutena. Proiektuaren helburua Amerika osoan argitaratu ziren euskal notizi guztien digitalizazioa egitea zen. Proposamen honek, alde batetik herriaren memoria mantentzeko balio zuen, bestetik, historiaren berri izateko garaiko berrien bidez eta, azkenik, laguntza ekonomiko ona zen lan hau egiten zuen ororentzat (dólar bat ordaintzen zuten albisteko) (Josu Legarreta, komunikazio pertsonala, 2017 urteko maiatza). Proiektua ez zen guztiz amaitu, baina hala ere, badaude 15.000 bat berri inguru Euskaletxea.net webgunean nahi duenak ikusi eta irakurri ahal izateko.

2014-2016 urteetan Memoria Bizia proiektua martxan jarri zen. Honen helburua euskal migrazioaren nondik norakoak azaltzea da Estatu Batuetan eta Kanadan dauden euskaldunen testimoniak erabiliz. Proiektu transnazonala da, izan ere, Deustuko Unibertsitatea, Renon dagoen Nevadako Unibertsitatea Center for

Basque Studies eta Boiseko Basque Museum & Cultural Center dira honen parte.

Bestalde, unibertsitatearekin batera egindako lan horiez gain, gizarteak, produktorak eta komunikabideek ere dibulgazio lanak egin dituzte. Komunikabideei dagokionez ikusi dugu hainbat dokumental egin direla euskal diaspora dutenak protagonista.

10 Taula. Dokumentalen zerrenda urteka eta zonaldeka bananduta:

URTEA	HEGO AMERIKA	IPAR AMERIKA	OROKORRA
1998 (1)		John Garamendi ⁴⁰	
2002 (2)		Euskal Artzainak Iparameriketean	Euskaldunak Munduan zehar
2004 (1)		Bietertarrak	
2005 (2)		La Fiebre de Oro: Pete Aguererberryren Frontoitik sukaldera	
2006 (6)		Ameriketatik Ameriketean Euskaraz Manuel de Irujo Bihotzean sua Idaho-Kalifornia bidaia mendebaldean barrena Galindez, Espioia edo Abertzalea	
2007 (7)	Vascos en Uruguay Vascos en Rio de la Plata Argentinan Barrena	Urtain Boiseko Euskaldunak Jaialdia 2000	Vascos por El mundo Baskonia Amerikana
2009		Kurtziatik Kaliforniara	

⁴⁰ Jatorriz euskalduna den Kaliforniako gobernadorearentzako hautagai demokrata.

URTEA	HEGO AMERIKA	IPAR AMERIKA	OROKORRA
(1)			
2010 (1)		Amerikanuak	
2011 (3)	Vascos en la Tierra Moroni El Roble y el Ombú	Pete Aguerberry	
2012 (2)	Guk, Nosotros	Pakea Bizkaia Groelandia eta Ternuara Bidaia	
2013 (1)		Basque Hotel	
(3)		Euzko Etxea, 100 años en New York Artzainen buelta Ameriketara	Gure Bizitzaren Pasarteak
2015 (2)		Boiseko Euskaldunak Jaialdi eskuak zabalik dokumentala atera zuten	Jai Alai blues
2016 (3)		Washington, Ongi Etorri "Origen"	Agirre Lehendakaria: Orain 80 urte
2018 (1)			Euskalonski
2019 (1)		Bai bagara!	

Iturria: autoreak egina

Guztira 36 dokumental identifikatu ditugu.

Komunikabideei dagokionez, 1998 urtean John Garamendiri buruzko dokumentala aurkeztu zen, jatorriz euskalduna den Kaliforniako gobernadorearentzako hautagai demokrata. Hainbat izan dira ordutik atera diren dokumentalak. 2002 Euskaldunak Munduan zehar dokumentalak eta Euskal Artzainak Iparameriketara egin zituzten. Ameriketara joandako artzainen inguruko dokumentalak ziren hauek. 2004ean Idahon bizi den Bieter familia Euskaldunari buruzko erreportajea atera zuten Julian Iantzik aurkeztuta eta 2005 urtean La Fiebre de Oro: Pete Aguerberryren dokumentala atera zuten. Pelotari moduan etorri baina Mendebaldean urre bilatzaile amaituko zuen gizonaren istorioa. 2006

urtean kanpoan bizi ziren Euskaldunei buruzko hainbat dokumental atera ziren: Ameriketatik; Euskal arrantzaleek AEBetan eraikitako traineruen inguruko erreportajea; Ameriketan Euskaraz eta Manuel de Irujo. Bihotzean sua (Manuel Irujo abertzalearen biografia). Idaho-Kalifornia bidaia mendebaldean barrena dokumentala zeinek Boise (Idaho) eta Bakersfield (Kalifornia) hirien arteko ibilbidea kontatzen du dokumental honek. Galindezi buruzko dokumentala ere atera zen Galindez, Espioia edo Abertzalea izeneko. 2007 urtean ere hainbat dokumental atera ziren: Vascos por El mundo, Vascos en Uruguay, Vascos en Rio de la Plata, Urtain, Argentinan Barrena eta Baskonia Amerikana eta Boiseko Euskaldunak Jaialdia 2000. Hainbat dokumental urte berean. 2009 urtean beste dokumental bat atera zuten Kurtziatik Kaliforniara, hau, John Garamendi Kaliforniako gobernadoreordeari buruzko bigarren dokumentala izango da. Hurrengo urtean AMERIKANUAK dokumentala irten zen.

2011 berriro ere Pete Aguerberryren dokumentala atera zen, urte beran Vascos en la Tierra Moroni, El Roble y el Ombú. Hurrengo urtean 2012an Pakea Bizkaia Groelandia eta Ternuara Bidaia, Guk, Nosotros. 2013an Basque Hotel, Euzko Etxea, 100 años en New York, Jai Alai blues, Artzainen buelta Ameriketara, Gure Blitzaren Pasarteak, eta Artzainen Itzulera Kaliforniara.

2015 Boiseko Euskaldunak. Jaialdi eskuak zabalik dokumentala atera zuten. 1987. urtetik bost urtetik behin Boisen ospatzen den Euskal jaia handiaren inguruko dokumentala. Hurrengo urtean, Washingtonen antolako zen Smithoniana aitzaki, Washington, Ongi Etorri dokumentala atera zuten. Erreportaje Xabier Lapitzek aurkeztu zuen. Urte berean Jai Alai Blues dokumentala atera zuen Berdeak Produksioak-ek, ez zen espreski Euskal komunitateari buruz baina bai Floridako Euskal komunitateak praktikatzen duen Jai Alaiari buruz, bearz, komunitate hori agertzen zen. New Media produktorak 2016 urtean Diaspora aitzaki izango zuen lehen Telebista programa egin zuten "Origen" saioa. Hainbat arrazoigatik Euskal Herritik joan behar izan zuten Euskaldunen ondorengoak Euskal Herrira ekarri zituen euren jatorria ezagutzeko eta hemen dauden familiarrekin elkartzeko. 2016 urtean, Eusko Jaurlaritzaren 80 urte bete zirela, Agirre Lehendakariaren inguruko hainbat dokumental atera ziren.

Dokumental hauetan, uste dugu garrantzitsua dela aipatzea Julian Iantzik izan duen papera. Izan ere, Julian Iantzi Eitb-ko kazetari eta aurkezle ezaguna Ameriketan jaio zen, Kalifornian, hain zuzen. Horregatik, oso presente izan ditu beti atzerrian bizi diren euskaldunak, eta hainbat telesai egin ditu Estatu Batuetako estatuetan eta Euskaldunak dauden munduko beste leku batzutan.

6.2.3.4 Teknologia berriak

Komunikazioa aztertzen ari gara eta ezinezkoa da hori egitea, komunikazioan hain garrantzitsuak diren teknologia berriak aipatu gabe. Egun, teknologia be-

rriei esker oso erraza da kanpoan bizi diren herritar, familia edota lagunekin komunikatzea. Hala ere, hori ez da horrela izan beti, eta azken urteotan eboluzio nabaria eman da komunikazio honetan. Beste diaspora askorekin gertatzen den moduan, ikerketa aurrera eramateko burutu diren elkarrizketek erakutsi dute komunikazioa asko aldatu dela azken 100 urteotan, eta teknologia berriak oso garrantzitsuak izan dira eboluzio honetan.

Esan bezala, internet heldu baino lehenago atzerrian bizi ziren euskaldunen eta Euskal Herrian bizi ziren euren familia lagun eta herritarren arteko komunikazioa eskasa zen, telefonoz hitz egiten zuten, kartak bidaltzen zituzten, edota Euskal Herrira egiten zituzten bisitei esker mantentzen zuten harremana (komunikazio pertsonalak); eta batzuetan ez zuten urteetan hitzik egiten. Estatu desberdinetako euskal komunitateetako kideei elkarrizketak egin zaizkie eurek bizi izan dutena ezagutzeko eta askok, euren esperientzi propioaz gain, euren ama-aita edota aitona-amonena ere oroitu dute eboluzio hori izan dela erakusteko. Boiseko Euskal museoko langile baten hitzetan: “We had occasional telephone calls, maybe getting a letter or picture”. Patty Millerrek, Basque Museum and Cultural Centerreko zuzendari ohia eta egun Memoria Bizia proiektua aurrera eramaten ari den pertsona aktiboak bere amaren garaiak gogoratzen zituen esanez: “There wasn’t a lot of communication in my mother times and I think I just saw her talking on the phone twice” eta Elkoko (Nevada) Anita Anakabek, Nevada eta Idahoko Euskal komunitateko kide aktiboa, ere antzekoa den zerbait esan zigun: “My mother, I remember she could start a letter and I don’t remember how many months she could be to finish the letter. We never trust on the mail, we never knew if they get it or not”. Elkarrizketetan ezagutu ahal izan dugu, familiaz gain, Euskal Herriari buruz informazioa izateko eta komunikazioa mantentzeko beste era bat inguruko Euskaldunekin biltzea zela. Egun Euskal Herriaren eta Estatu Batuetan bizi diren Euskaldunen arteko komunikazioan referente den Anne Marie Chiramberro, Hella Basque blog-eko arduradunak dio, bere aitak Euskal Herriari buruz albisteak izateko era bakarra komunikazio interpersonala zela: “My dad used to call home every week on Sundays. Before the internet the only way that I knew to know about Basques was going to the Basque center every week, festivals, dancing, dinners, and visiting my family”.

Leurs eta Ponzanesi-k (2014:12) dioten bezala gutunak, telefono deiak eta komunikazio interpersonala ziren, beraz, bai familiarekin komunikatzeko zein Euskal Herriari buruz albisteak izateko medio bakarra; hala ere, esan bezala, ez zegoen inondik inora orain dagoen komunikazio maila. Orain, sakoneko elkarrizketetan ikusi ahal izan dugu euskal diasporako kideek internet eta WhatsApp komunikatzeko bide hoberen eta gehien erabiltzen dituztenen moduan aurkezten dituztela: “Now, with the internet is really easy to com-

municate with the family and friends. Facebook, myspace, e-mail and Whatsapp. We have a family group in whatsapp, it is fantastic!" (Teresa Franzoia, Boise, personal communication, March 2017).

Sakoneko elkarrizketetan WhatsApp eta Facebook aipatzen dute gehiengoak. Miamin ia 40 urte bizitzen daramatzen pilotari baten emazteak dio, lehen telefonoz deitzen zutela, orain: "Oin telefonotik eta Facebooketik nire ahizte bategaz. Nik Whatsappik ez, ni Facebooken na egun guztixe. Messengerretik da hor be deitu ein zeinke. Bestela nik, normalmente danakin telefonotik da beste ahizte bakarraz Facebooketik baia pribautik" (komunikazio pertsonala, 2018 urteko maiatza).

Facebook 2004 urtean sortu zen sare soziala da. Statista datuen arabera, 2018 urtean Facebook-ek 2.27 bilioi erabiltzaile ditu eta horien artean diaspora komunitateak daude, zeintzuk Facebook-i esker, euren jatorrizko herrialdearekin konektatuta izateko bide bat topatu dute.

Tesi lan hau aurrera eramateko egin dugun inkestaren distribuzioan Facebook-en eragina oso nabaria izan da. Izan ere, distribuzioa sare hau erabiliz egin dugu, eta erantzuna oso positiboa izan da. Diasporako kideak konektatuta izaten laguntzen du eta euren eta Euskal Herriaren arteko hartuemana indartzen du. Euskal diaspora digitala dagoenaren seinalea.

Diaspora ugarik euren Facebook taldeak dituzte eta horiei esker munduan zehar dauden jatorri bereko kideekin komunikazioa mantentzen dute. Pedro Oiarzabalek euskal diasporaren inguruko hainbat ikerketa egin ditu, eta horien artean diaspora komunitate digitala aztertu zuen eta nola euskal diasporako instituzioek mundu digitalera salto egin zuten. Ikerketa 2010 urtean egin zuen eta esaten zuen, orduan bazegoela iada, diasporak online izango zuen presentzia aurreikusterik:

"Although it is not wise to prognosticate about any future trends of the Basque diaspora presence on the Web, evidence shows an increasing tendency for articulating an online presence. For example, from the beginning of 2004 to the end of 2005, 13 new diaspora institutional Web sites were created, and from October 2005 to June 2007 another 30, the majority of which are Basque clubs, or Euskal etxeak, and mainly from Argentina" (2010:339).

Apurka apurka instituzioek eta elkarteek saltoa egin zuten eta egun Facebook-eko bilatzailean "Euskal etxe", "centro vasco", "Basque center" edo "basque diaspora" hitzak jarrita ehundaka erabiltzaile agertzen dira.

Euskal etxeek euren Facebook kontuak dauzkate eta munduko beste euskal etxe batzuekin konektatzen dira egiten dituzten ekintzak ezagutu eta esperientziak konpartitzeko.

Horrez gain, aipatzekoak dira 2004 urtean sortu ziren Facebook-eko taldeak. Talde hauek, beste hainbat komunitaterentzat bezala, oso erabilgarriak dira diaspora komunitateentzat. Facebook talde hauek diaspora sareak dira eta horien artean aztertu ditugu EuskalDiaspora eta BasqueIdentity. Taldeok mundu guztian zehar dauden euskaldunak bai Euskal Herrian zein Euskal Herritik kanpo daudenak komunikatzeko tresna dira.

17 Irudia: EuskalDiaspora taldea Facebooken

Iturria: Facebookeko orria

Talde honek 2.873 kide ditu (2018 urteko azaroan) eta mundu osoan zehar dauden euskaldunak dira. Euskaldiaspora sarea Pedro Oiarzabalen doktorego tesiaren ondorio bezala sortzen da. Bere ikerketaren helburua hiperbinkuluak sortzea zen, euskal diaporako instituzioek online zuten presentzia aztertze eta mapeatzeko eta instituzioetatik haratago zeuden indibiduak nortzuk ziren ezagutzeko. Diaspora sare batean bihurtu da eta komunikazio mantentzeko balio du (Pedro Oiarzabal, Desutu Unibertsitateko irakaslea, diaspora gaietan aditua, komunikazio pertsonala, 2017 urteko abendua).

Horrez gain, Eitb-ren barruan dagoen Basque Identity 2.0 taldea dago. Talde hau ez dago diasporari zuzendua baina diasporako kideak ere parte dira eta Pedro Oiarzabalek ere eramaten dut.

a. Blog

Internetarekin lotuta, ezinbestekoa da blog-en presentzia aipatzea. Blog-ak komunikabideen taldean ere sartu daitezke ematen duten informazioa albiste eguneratuak eta publikoaren interesakoak badira. Azpimarratzekoa da, euskaraz sortu zen lehen blog-a, BUBER, Estatu Batuetan sortu zela. Bere gurasoak Ameriketara joan eta Idahon jaio zen Blas Uberuagak sortu zuen blog-a da, 1994 urtean eta Internet jaio berri zenean, Euskal Herriari buruz hitz egiten zuen lehen webgunea sortu zuen.

Blog euskal amerikarrei dagokienean, 2007 urtean “A Basque in Boise” blog-a sortu zuen Henar Chicok eta Eitb-ren barruan dago.

18 Irudia: A Basque in Boise blog-aren irudia



Source: <http://www.blogseitb.US/basqueboise/>

Blog hau sortu baino lehenago Eitb-k bazituen korrespontsalak hainbat lekutan:

“Korrespontsalak interneterako albisteak idazten zituzten Euskal komunitateari buruz. Albiste gutxi ziren eta Eitbk ordaindu egiten zien. Atal bat zegoen web-ean eta albiste horiek jartzen ziren. Alde batera utzi zuten pentsatzen zutelako Euskal diasporak EHko albisteak kontsumitzeko hamengo jenteak moduan egiten zuela”⁴¹ (Lontzo Saínz, Eitb.eus arduraduna, personal communication, june 2016).

Henar Chico, Eitb-ren proposamena onartuz, Estatu Batuetako euskaldunei buruz eta Euskal Herriari buruz idatziko zuen blogarekin hasi zen. Blog-aren arduradunaren hitzetan, blog-a albisteak zabaltzeko medio bat da, baina, horrez gain komunikazio bidirekzionalean ere eragina du eta asko dira berarekin harremanetan jartzen diren bai Euskal Herriko euskaldunak zein Ameriketakoak: “Badakit nire blogaren bitartez Boisen ikasi nahi zuten gazte batzuk hemengo familiak aurkitu dituztela” edo “Euskal Herritik, Boisera ikastera edo lan egi-tera etorri nahi dutenak edo senideen bila dabiltzanak nirekin harremanetan jartzen dira”. “Bestalde, Euskal Herritik eta AEBtatik berriak zabaltzeko eskaerak ere jasotzen ditut” (komunikazio pertsonala, 2017ko ekaina).

⁴¹ Honekin esan nahi duena da, Euskal Herrian bizi direnak irakurtzen dituzten albiste berdinak irakurtzen direla.

19 Irudia: A Basque in Boise. Harreman horren adibide bat:

The image shows a screenshot of a Facebook post from the page 'A Basque in Boise' (@ABasqueInBoise). The post is titled 'Argitalpenak' (Publications) and is dated 'Atzo (20:58)'. The text of the post reads: 'Hello friends! I got the following message from a Basque student coming to Boise in the fall. If any of you can rent her a room or know of a place that could work for her, I'm sure she'd be grateful to know about it! Eskerrik asko!' Below the text is a blurred image of a message and a reply. The reply says: 'Kaixo! Hello! I am a basque exchange student who will be in Boise to study for the fall term. I have not found off-campus housing anywhere (because I am only he...'. The post has three interaction buttons at the bottom: 'Atsegin dut' (Like), 'Iruzkindu' (Comment), and 'Partekatu' (Share).

Source: "A Basque in Boise"-ren Facebook horma

2010 urten "About Basque Country" sortu zuen Javier Perezek. About Basque Country Blog-en bat izan daiteke, Euskal Herriko bloga da. Webgunean euskal kultura eta Euskal Herriarekin lotuta dauden berriak irakur daitezke. Munduan zehar argitaratzen diren albisteak edota euskal komunitatearentzat interesgarriak izan daitezkeenak. Hau "Euskaldunak Prentsa Amerikarrean" proiektuaren ondorengoa izan daiteke, nahiz eta ofizialki ez izan, antzeko lana egiten du baina paperezko edizioan argitaratutako albisteak aztertu barik, edizio digitalean argitaratutakoak aztertzen ditu: "Recoger de una manera amena e interesante las informaciones que los medios de comunicación (en su sentido más amplio) publican en torno a los vascos".

Taula honek laburbiltzen du atal honetan ikusi ditugun komunikatzeko tresnak dataren, ekimenaren eta ekimen motaren arabera sailkatuak.

11 Taula: 1994-gaur egun komunikazio eta harremana

DATA	EKIMENA	EKIMEN MOTA
1994	8/1994 Legaren Sorrera	Ekimen Instituzionala
1995	Testimonioen Bilketa	Eusko Ikaskuntza

DATA	EKIMENA	EKIMEN MOTA
1995	Garapenerako lankidetzako Zuzendaritza eta Kanpoan diren Euskal etxe eta Euskal komunitateentzako Zuzendaritzaren banaketa	Ekimen Instituzionala
1995	Euskal Kolektibitateen Mundu Biltzarra	Ekimen Instituzionala
1995	Ordenagailua, E-maila "Instalación del sistema informático"	Ekimen Instituzionala
1995	Euskal Gizataldeekin Harremanetarako Aholku Batzordea	Ekimen Instituzionala
1996	Gaztemundu	Ekimen Instituzionala
1997	Recopilación bibliográfica	Eusko Ikaskuntza
	EITB Nazioarteko Telebista Kateak	Komunikabideak
1998	Euskalkultura	Euskal Diaspora Media
	John Garamendi	Dokumentala: Dibulgazioa
1999	Andrés de Irujo Sarea	Ekimen Instituzionala
1999	Komunikabideen bertsio digitalak	
2000	Euskaldunak Munduan	Argitalpena
2002	"Euskal Herrirantz" proiektua	Ekimen Instituzionala
	Euskal Artzaina Ipar Ameriketan Euskaldunak Munduan Zehar	Dokumentala: Dibulgazioa
2003	Urazandi Bilduma	Argitalpena
2003	Diaspora Egunaren proposamena	Ekimen Instituzionala
2004	Facebook-eko Diaspora Taldeak	
2004 2007 2015	Eusko Sare Pentsamendu Global Basque Network	Ekimen Instituzionalak
2005	La Fiebre de Oro: Pete Aguerenberry Frontoitik Sukaldera	Dokumentalak: dibulgazioa

DATA	EKIMENA	EKIMEN MOTA
2006	Ameriketatik Ameriketan Euskaraz Manuel de Irujo Bihotzean Sua Idaho-Kalifornia bidaia mendebaldean barrena Galindez, Espioia edo Abertzalea	Dokumentalak: dibul- gazioa
2007	Ettxepare Euskal Institutua	Ekimen Instituzionala
	Hidden in Plain Sight: The Basques	Ekimen Instituzionala
	A Basque in Boise	Komunikabideak
	Urtain Boiseko Euskaldunak Jaialdia 2000 Vascos en Uruguay Vascos en Rio de la Plata Argentinan Barrena Vascos por el mundo Baskonia Amerikana	Dokumentala: dibul- gazioa
2009	Kurtziatik Kaliforniara	Dokumentala: dibul- gazioa
2010	“About Basque Country”	
	Amerikanuak	Dokumentala: dibulgazioa
2011	EuskalEtxeak birtuala	Komunikabidea, eki- men Instituzionala
	Pete Aguerberry Vascos en la Tierra Moroni El Roble y el Ombú	Dokumentala: dibul- gazioa
2012	Pakea Bizkaia Groenlandia eta Ternuara Bidaia Guk, Nosotros	Dokumentala: dibul- gazioa
2013	Basque Hotel	Dokumentala: dibul- gazioa
2014- 2016	Memoria Bizia (Living Memory). The Basque Diaspora Living Heritage Project 2014-16. United States and Canada.	Testimonioak: Dibulgazioa
2014	Euzko Etxea, 100 años en New York Artzainen buelta Ameriketara Gure Bizitzaren pasarteak	Dokumentala: dibul- gazioa
2015	Boiseko Euskaldunak. Jaialdia Eskuak Zabalik Jai Alai blues	Dokumentala: Dibulgazioa

DATA	EKIMENA	EKIMEN MOTA
2016	Kanpo Harremanetarako Aholku Batzordea	Ekimen Instituzionala
	Origen saioa	Dokumentala: Dibulgazioa
	Agirre Lehendakaria: Gure Izaeraren Ispilu Washington Ongi Etorri "Origen"	Dokumentala: Dibulgazioa
	BIZKAIA: Diaspora 2.0, Bizkaia Talent	Ekimen Instituzionala
2018	Euskal Diasporaren Eguna	Ekimen Instituzionala
2018	Euskalonski	Dokumentala: dibul- gazioa
2019	Bai bagara	Dokumentala: dibul- gazioa

Source: own elaboration

ZAZPIGARREN ATALBURUA

DIASPORA HOMELAND KOMUNIKAZIOA

Aurreko atalburuan jatorrizko herrialdetik diasporarekin komunikazioa mantentzeko martxan jarri diren ekimenak identifikatu, ordenatu eta kategorizatu dira, zazpigarren honetan, diasporatik martxan jarri direnak aztertuko dira.

7.1 Munduan

Diasporaren eskutik jatorrizko herrialdearekin komunikazioa eta harremana mantentzeko ekintzak burutzen dira, baita ere, leku desberdinetan dauden diaspora komunitateek euren artean harremana izateko. Nahiz eta herrialde desberdinetako diasporak izan, burutzen dituzten ekintza horiek nahiko antzekoak izaten dira orokorrean, eta horien artean daude: diaspora elkar-teak (erlijiosoak, politikoak, sorospeneoak edo kulturalak), hizkuntza eskolak, ekintza kulturalak (dantza, musika, janaria, kirola), diaspora medioak,

umeentzako udalekuak, dibisa bidalketak, eragin sozialak (Levitt, 1998), jaialdiak edota festibalak.

7.1.1 Diaspora elkarteak

Herrialde berrira heltzean, immigrante taldeak edo sortuko diren diaspora komunitateek euren herritarrekin harremana bilatuko dute, eta horretarako, diaspora elkarteak sortuko dituzte. Elkarre horiek, batez ere, sorospen elkarteak, erlijiosoak edo elkarte kulturalak izaten dira. Sorospen elkarte eta elkarte erlijiosoak gehienetan batera joaten dira. Horien adibide da, armeniar diasporak 1906an sortu zuen *The Armenian General Benevolent Union* (AGBU) eta 1910 urtean sortu zuen *Armenian Relief Society*:

“By women who were trying to come together to really help these orphans that were, that lost their parents during the Armenian genocide, or just those needed assistance, and they formed it in NY. So, the fact that, it’s an Armenian association and it is not formed in Armenia, as a start is already diaspora is forming” (Verginie Touloumian, Executive Director of Armenian relief society international office, komunikazio pertsonala, 2018ko otsaila)

Armeniarrek, baita ere, identitatea mantendu eta komunitatea sortzeko 1933 urtean *Armenian Youth Federation* (AYF) elkarte sortu zuten. Sorospen elkarteekin jarraituz, kroaziar diasporak 1894 urtean *Croatian Fraternal Union* (CFU) sortu zuen Pennsylvanian. Ipar Ameriketako dagoen kroaziar elkarterik zaharrena da; elkarte politiko, kultural eta sozial handiena da eta 100.000 inguru bazkide ditu. Beste diaspora batzuen kasuan, elkarte erlijiosoen inguruan sortuko zuten komunitatea. Greziarren kasuan, adibidez, Estatu Batuetara iritsi ziren lehen greziarrak elizetan bilduko ziren:

“The first Greek Orthodox Church on American soil was established in Saint Augustine, Florida in 1777 by the Greeks who fled the New Smyrna colony. The oldest church that is still operating is Holy Trinity in New Orleans, which was established in 1864 by Greek merchants” (Kontargyris, 1964: 92-93)

Horrela sortu zen *Greek American Archiocese-a*, gaur egun ere oraindik aktiboen elkarteak. Kontargyris-ek (1964) dioenaren arabera, elkarteak ere osatu zituzten ingurumen greziarra izateko eta identitatea mantentzeko helburuarekin: “These local societies contributed not only to the preservation of a social support network and of an emotional bond with their place of origin but also to the social and economic development of their home towns in Greece” (Kontargyris, 1964: 137). Bai greziar zein armeniar komunitateak dauden lekuetan, elizarekin batera, eskolak egoten dira. Hizkuntza eta kultura eskolak oso ohikoak dira diaspora komunitateak antolatzerakoan. Greziarrek Estatu Batuetan duten eliza bakoitzeko eskola bat dute:

“As the language is one of the ways to maintain the Greek identity in the United States, almost every church has a school. There should be many more than 500 churches but there are 500 with schools and they were created at the same time as Churches were, some even before. These schools are predominantly afternoon, they go once or twice during the week or Saturday mornings. Its language, national celebrations, and a little bit of history, culture, traditions, customs, big parties...things like that. Few schools existed during the day. There were some but many of them closed. This helps to create community” (Panagoula Diamanti, professor at Northeastern University and expert in Greek diaspora in the United States, komunikazio pertsonala, 2018ko otsaila)

Kroaziarrek ere kroaziera irakasteko eskolak dituzte⁴². Eskola hauek normalean arratsaldetan edo asteburuetan izaten dira eta hizkuntza, kultura eta herrialdeko tradizioak irakasten dituzte. Armeniarren kasuan, baita ere: “It is important to know also that all the Armenian communities have their church, center and school” (Verginie Touloumian, Executive Director of Armenian relief society international office, komunikazio pertsonala, 2018ko otsaila) eta ondorengo dio diasporako kide batek:

“First you are Armenian by birth, by language, by religion, by your life style and culture. So, for us education is important and religion is important and language too. Religion and language are important, and if you don’t have those two, how do you consider being Armenian? Convince me” (Marine Sargsyan, Estatu Batuetan bizi den armeniarra, komunikazio pertsonala, 2018ko otsaila).

7.1.2 Diaspora ekintzak

Komunitate gehienetan janaria eta dantza dira, hizkuntza eta erlijioaz gain, identitate hori mantentzeko burutzen dituzten ekintzak. Festibal eta jaialdietan bi horiek biltzen dira, batzutan, kirolarekin batera.

Jaialdi horien adibide dira: Greziarrek⁴³ eta armeniarrek⁴⁴ elizetan antolatzen dituztenank; edota Irlandarrek San Patrick eguna munduko hainbat lekutan ospatzen dutenean.

Horrez gain, esandako identitea mantendu eta jatorrizko herrialdearekin harremana izateko, diaspora komunitate ugari udalekuak antolatzen dituzte; horrela, euren jatorriarekin harremanetan jarriko dira denboraldi batez berriro ere euren egungo herrialdeetara bueltatu arte (Kevin,

⁴² Bostonen, adibidez, Croatian School of Boston, 2009 urtean sortua:

<https://www.croatianschoolofboston.org/about-1/>

⁴³ Cambridge (MA) antolatzen duten Greziar Jaialdia Saints Constantine eta Helen Greek Church-en .

⁴⁴ Watertownen (MA) antolatzen duten armenian Jaialdia St. James elizan, Annual Picnic.

2013:101). Udaleku horiek jatorrizko herrialdean edo egun bizi diren herrialdean antolatzen dituzte. Greziarren kasuan *Ionian Village* deitzen den udalekua antolatzen dute, zein, nahiz eta Amerikako elizak antolatu, Grezian burutzen den, Peloponisen, hain zuzen:

“But you have to be 15-16 or older. So they teach you about the churches, archeological sites...and you don't have to be with your parents. Now a lot of people go there” (Kleanthi Mavrogiannaki, grezierako eskola batetako zuzendaria, komunikazio pertsonala, 2018ko martxoa)

Armeniarren kasuan, baita ere, udalekuak Armenian bertan burutzen dituzte. Gazteak Armeniara joango dira eta han emango dute denboraldi bat kultura, hizkuntza eta herria ezagutzen. Armeniarrek antolatzen dituzten udalekuen artean daude: *Hamazkayin educational and cultural society*-k antolatzen duen *Hamazkayin Summer Forum*-a⁴⁵; *AYF camp*⁴⁶ (Estatu Batuetan); eta *Armenian Relief Society* udalekua Georgian.

7.1.3 Diaspora medioak

Diaspora komunitateak euren artean komunikazioa mantentzeko tresnak daukate, eta horien artean daude diaspora medioak. Oyungemyk (2015) diaspora medioak definitzen ditu diasporak sortuak eta diasporarentzako medio bezala. Armeniarrek *The Armenian Weekly* dute, 1899 urtean⁴⁷ sortu zena; Kroaziarren kasuan, *Croatian Fraternal Union*-ek *The Fraternalist* medioa sortu zuen “the most influential Croatian diasporic organization in North America” (Djuric, 2003:89). Greziarrek *The Greek-American Press* eta *The National Herald* daukate. Horrela ikusten dogu, diaspora gehienek dutela diaspora medio bat, zeinek aldi berean, jatorrizko albisteak eta orain bizi diren herrialdekoak emango dituen eta askotan, bi hizkuntzetan.

⁴⁵ Hamazkayin Summer Forum can be one of the most memorable experiences in an Armenian students' life. It aims at bringing together Armenian students in an Armenian atmosphere, to convey the Armenian past and present, history and traditions, together with our complex existence, and our concerns and opportunities for preserving our cultural values. The Forum is also a medium where the social and national problems of the Armenian youth, as well as the Armenian student's duties to his nation are discussed (From their Facebook page, Novembre 2018).

⁴⁶ AYF Camp was established to provide an opportunity for Armenian youth living in the Diaspora to learn their history, reconnect with their heritage and foster life-long friendships. Today, the unique program includes social, cultural and educational activities that promote healthy development and strengthen Armenian identity within our youth. From <https://www.ayfcamp.org/>

⁴⁷ “The Armenian Weekly” egunkariaren historia laburra euren webgunean: <https://armenianweekly.com/history/>

7.2 Euskal Herrian

Munduko ekintzen errepassoa egin ondoren, Estatu Batuetan dauden euskaldunek burutzen dituzten ekintzak aztertuko ditugu. Estatu Batuetan euskal identitatea mantendu eta jatorrizko herrialdearekin komunikazioa eta harremana izateko dauden bideen artean, besteak beste, hauek atzerrian sortutako euskal etxeak; euskal etxeen elkarteak; frontoiak; euskara eta dantza ikastaroak; euskal kirolak; udalekuak; medio tradizionalak; festibalak; eta diaspora sareak daude. Nahiz eta ekimen guzti horien helburua hasiera batean ez izan Euskal Herriarekin komunikatzea, baizik eta euskal etxeen kasua, adibidez, herrialde berri batera heltzen ziren euskaldunei lagundu eta herrialde horretan zeuden euskaldunen arteko laguntza eta elkartze leku izatea, egia da urteak aurrera joan ahala bai bihurtu dela komunikatzeko eta harremanetarako bide, eta euskaldunak oporretan, lanean edo beste arrazoi batengatik herrialde horietara doazenean, komunikazioa eta harremana sortzen da bertan daudenekin eta bisitariekin.

Jatorrizko herrialdetik diasporara burututako ekintzekin egin dugun moduan, diasporatik jatorrizko herrialdera bideratutakoetan ere alde batetik, komunikatzeko bide diren komunikabideak aztertuko ditugu, eta, bestetik, harremana garatzeko ekintzak, zeintzuk kasu askotan, harreman publikoetako ekintza bezala kategorizatu ditugun.

7.2.1 Komunikazio bideak:

a) Aldizkariak, irratiak, telebista, eta medio digitalak

Komunikazioari dagokionez, diaspora eta jatorrizko herrialdearen arteko komunikabideen artean aldizkariak, irrati saioak, egunkariak eta Telebista daude. Euskal diasporaren kasuan, batez ere, aldizkariak, egunkariak eta irrati saioak jarri dira martxan eta aldizkariak eta egunkariak izan dira gehien ikertu direnak. Totoricaguenak bere doktorego tesian aipatzen du 1885an Los Angelesen euskaraz idatzitako lehen egunkaria *Escualdun Gazeta* izan zela. Horrez gain, diasporaren erresistentziari buruz informatzeko Euskal Herrian banatu ziren Mexiko eta Argentinako euskaldunek argitaratutako egunkari eta buletin berri ematen du. Euskaldunek euskal zentroen bidez jasotzen zuten informazioa (Totoricagunea, 2001). Joseba Etxarrik (2001) Ameriketara zeuden euskal egunkarien berri eman zuen baita gerra garaian zabaldu ziren argitalpenei buruz ere. Javier Díaz Nocik (1991) euskal kazetaritzaren errepassoa egiten duenean atzerriko euskal aldizkarien berri ematen du. Edorta Arana, Josu Amezaga eta Patxi Azpillagak 2010ean publikatu zuten *Euskarazko hedabideak* liburuan ere, erbestean argitaratutako

aldizkari eta irratiak aipatzen dituzte era labur batean. Autore gehienek Estatu Batuetako aldizkari moduan *Escualdun Gazeta* (1885-86) eta *Californiako Eskual Herria* (1893-1897) aipatzen dituzte baina Koldo San Sebastianek, bere azken liburuan, New Yorken argitaratu ziren aldizkarien berri ere ematen du. New Yorkeko euskaldunek ere argitalpen batzuk egin zituztela dio, horien artean Aberri <<Órgano del Partido Nacionalista Vasco>>⁴⁸, 1925 urteko irailan (San Sebastian, 2018:173).

Euskal etxeak aldizkariaren 23.alean (1993.urtea) Estatu Batuetako euskaldunei buruz idazten da, mendebaldean eta ekialdean aurkitzen diren euskaldunei buruz, eta hor aipatzen ditu, baita ere, ekialdeko zona horretan argiratzatzen ziren aldizkari batzuk:

“La comunidad vasconewyorkina ha conocido, asimismo, publicaciones como “Aberri” (publicado en los años 20 por un grupo afín al PNV), “Basques” (auspiciado en 1943-44 por el Gobierno Vasco en el exilio), y “Argia” (revista cultural en euskara, también en los 40)

1943 urtean Eusko Jaurlaritzako ordezkariak bere bulletin propioa hasi zuen: *Basques: Bulletin of the Basque Delegation in the USA*. Sei publikazio egin zituen 1944 urteko abuztura arte. Honekin Espainiako eta Euskal Herriko egoeraren irudi erreala zabaldu nahi zuten⁴⁹, Ameriketako prentsak egiten zuten interpretazioaren ondoan. Ale bakoitza ingelesez publikatzen zen eta Manuel de la Sotaren argitalpen zerbitzuan egiten zen. Buletinaren luzeera zortzi eta hogeit hamar bitartekoa zen eta New Yorkeko Euskal komunitatearen artean zabaltzen zen, baita ere “to Catholic elite and influential lay and clergy, and to academics and journalists”⁵⁰. New Yorken dagoen Eusko Jaurlaritzako ordezkariak saiatu zen bere egunean buletin hori berreskuratzen:

“Guk ordezkarietan berreskuratu genduan garai bateko, Galindez eta egoazan garaiko, boletina eta holan deitu geuntzon ganera, Boletin Basque, eta harek oso harrera ona izan zuen. Mailing bat izateko oso harrera ona. Orain dana dau zentralizata Gasteizen, Euskaletxeak.net. Baina nik uste dot eduki beharko gendula bertoko tresna bat. Hamengo Euskaldunen artean “diaspora medio” antzekoa. Nahiz eta guk eroan,oso harrera ona izan zuela. Nik uste dut dela, Think Global Act Local hori, ba azkenean, jakin in behar dozu hemengoek zer nahi daben entzun. Eta haiei be, askotan Euskalkultura edota Euskaletxeak.net en datozen be-

⁴⁸ A partir del número 2 lo fue de Acción Nacionalista Vasca (San Sebastian, 2018:174).

⁴⁹ Koldo San Sebastianek bulletin horretan tratatzen ziren gaie buruz idatzi zuen: “Los temas tratados fueron los comunes que definieron la estrategia americana del Gobierno Vasco: demostrar la vinculación franquista con los países del eje y de esotos con Iberoamérica. Defender la postura vasca en la guerra civil y la verdad sobre el holocausto de Gernika” (San Sebastian, 2018:213).

⁵⁰ Toticaguena, The Delegation of the Basque Government-in-exile in the United States, Eusko news: <http://www.Eusko news.com/0252zvk/kosmo25201.html>

riak, hango barriek dire, edozein perioduktan lortu ahal dabe, hori kontsulta iten dabe beste zeozelan baina hemengo sentipena, berton enpresa Euskal amerikarrak zer iten dabe?

Gure buletina hori zan, enpresa bat etorri, delgazino bat etorten zanean, zer egin dogu....jendeak jakiteko Estatu Batuen barnean zer egiten dan. Baina eguneroko martxa batean“ (Ander Caballero, Eusko Jaurlaritzako ordezkari ohia Estatu Batuetan, komunikazio pertsonala, 2018ko apirila).

New Yorken, baita ere, Jose Antonio Aguirrek 1946 eta 1947 urteen bitartean *Ambos Mundos* aldizkaria argitaratu zuen eta bere helburua komunismoaren sarrera frenatzea zen (San Sebastian, 2018:213). Hiri bardinean, aurrerago esan dugun moduan, *Argia* aldizkaria argitaratu zuten euskaraz.

Eusko Jaurlaritzak egin zuen Urazandi Digital⁵¹ bildumari esker jakin dezakegu zeintzuk izan ziren atzeritik argitaratu ziren aldizkariak, bakoitza non argitarau zen eta posible da aldizkari horietako aleak irakurtzea.

12 Taula: Euskal aldizkariak Estatu Batuetan orden kronologikoan

ESTATUA	ALDIZKARIA	URTEA
Los Ángeles	Escualdun Gazeta	1885-1886
Los Ángeles	Californiako Eskual Herria	1893-1897
New York	Aberri	1925-1928
New York	Basques	1943-1944
New York	Ambos mundos	1945
San Francisco	Californien	1963-1979
Reno	The Basques Studies Progam Newsletter	1968-2006
Reno	Zazpiak bat Basque club	1970-2004
Elko	Euzkorria	1971-1972
Boise	Euzkotaran Abotza	1972-1973
Nueva Cork	Euzko Albistaria	1973

⁵¹Urazandi Digitala, Hemeroteca de la Diáspora Vasca-ren webgunea: <http://urazandi.euskaletxeak.net/default.html>

ESTATUA	ALDIZKARIA	URTEA
Boise	Alkarteko Berriak	1974
Boise	Voice of the Basques	1974-1977
Maitland	Chula	1975

Iturria: elaborazio propioa Urazandi Digitaleko datuak erabiliz

Erbestean argitaraturiko lehen aldizkarietako bat Laurac Bat izan zen Montevideon, Uruguain, 1877. urtean.

20 Irudia: Laurac Bat aldizkaria

AÑO I. MONTEVIDEO, ABRIL DE 1877. NÚM. 1.º

LAURAC-BAT

ORGANO DE LA SOCIEDAD PROTECTORA DE INMIGRANTES VASCONGADOS

Gerencia—CALLE COLON, NUM. 57

Nuestro programa

El objeto de la sociedad *Laurac-Bat* tiene por principal objeto llevar al conocimiento de sus asociados todo asunto que á ella se refiere, tanto en la parte concerniente á sus documentos oficiales como á todo lo que tenga conexión con la Gerencia de la misma.

En el primer número hemos creído no debíamos pasar en silencio los conceptos mas ó menos apasionados y erróneos de que ha sido objeto antes y despues de su institución.

En los siguientes empezaremos la publicación de todo lo que debe caracterizar la índole de esta publicación.

Mas tarde, tan pronto como la cantidad de materiales lo permitan, daremos cuenta de aquellos acontecimientos mas notables de nuestro pais, relatando los hechos de que nos den cuenta nuestros socios correspondientes y los diarios de las cuatro Provincias.

Escusado es decir que dada la imparcialidad de una Sociedad de este género, nos limitaremos á consignar aquellos asuntos que hagan referencia á ella, haciendo completa abstracción de todo lo que se refiera á los partidos políticos en que está dividida la madre patria.

Cuando se iniciaba y se llevaba á cabo entre algunos vascongados residentes en esta república la idea, que ya oportunamente se ha traducido en hecho, de organizar la sociedad *Laurac-Bat* con el fin bien conocido de dar auxilio á los compatriotas del pais Vasco-Navarro que, llegados á este pais mas ó menos espontáneamente, necesitasen aquel auxilio, cuando esta sociedad se iniciaba y organizaba, decimos, tenian ya en Buenos Aires, (y esta fue una de las causas impulsivas que aquí obraron en el ánimo de los iniciadores) hechos que revelaban la tendencia á iniciar, en contraposición con el gobierno argentino, un fuerte movimiento de inmigración Vascongada. Los iniciadores del pensamiento surgido á su efecto, no obstante, debían tener esto que en Buenos Aires se dibujaba ya con caracteres serios, porque ni eran los trabajos en la capital, ni de completo dominio público, ni se

habian producido hechos que los confirmaran tan acaloradamente para que su existencia pudiera ser conocida entonces como una de las causas de nuestra congregación protectora.

El silencio sobre este punto, que fué sin embargo uno de los motivos reservados, que dio origen á que nuestra idea se llevase á cabo, ha expuesto á la sociedad Vascongada, y á su comisión delegada á mas de una falsa apreciación y á mas de un malevolente reproche injusto como ninguno por lo mismo de basarse el cargo en el mismo fundamento que sirvió á su institución.

El gratuito cargo se ha formulado diciendo que el objeto en vista y el resultado necesario de la asociación protectora de los inmigrantes vascongados era el estimular la emigración en masa de las provincias, cuyos hijos iban á ser aquí objeto de la solicitud de dicha asociación.

Nada ni mas indiscreto, ni mas injusto. Ni los móviles que, como queda dicho, tuvieron en vista los iniciadores del humanitario y patriótico pensamiento, ni las cláusulas y declaraciones que se consagran categóricamente en los Estatutos que forman la ley de la asociación, dan la razón á los que tales cargos han levantado contra esta, y tan es esto evidente y tan notorio se ha hecho, que, no obstante lo que errada ó maliciosamente se ha dicho y escrito en tan inexacto sentido, nos complacemos en ver que ha sido ya dejado de lado como inconsistente.

Y en verdad que así ha debido suceder desde que no entrase en la intención de los que hacían el reproche una pasión ciega ó un espíritu de hostilidad preconcebida.

Fue teniendo en vista los antecedentes á que hemos hecho alusión que la comisión iniciadora decía en su invitación:

«Nuestro intento es arbitrar los medios, en asociación de compatriotas, de sustraer á los que lleguen de la situación difícil y triste en que pueden verse colocados á su arribo á esta República, preocupación que me nos agitaría si este pais recuperase sus condiciones normales por la desaparición de la crisis comercial y financiera que lo tiene momentáneamente en su progreso, y si, como antes, brindara al extranjero que á él acude con el trabajo fácil y remunerador.»

Se indicaba tambien en la misma circular que la afluencia de nuestros paisanos desde tiempos

Iturria: Urazandi digitaleko webgunea:

<http://urazandi.Euskaletxeak.net/vol1/dvd01/Laurac%20Bat/htm/index.htm>

Irratiari dagokionez, badira kanpoan diren euskaldunek bideratutako irratia saioak. Boise eta Buffalo Springs-en (Wyoming) euskarazko irratia programak izan ziren. Iberlin eta Romtvedt-ek (2011)an Buffalon KBBS irratiari Euskara Ordua entzuteko aukera zegoela esaten zuten (Iberlin & Romtvedt, 2011):

“Isolation, both in language and distance, was one of the biggest issues that the Basque immigrants found when they reached America. To solve this problem, some Basque communities took the initiative to create radio programs in their cities to help to overcome this isolation”

Kattalina Berriochoren⁵² hitzetan, 1952 urterako bazeuden jada Idahon euskaraz hitz egiten zuten nahiko eta “The Basque program” deritzenak entzuleak euren identitate kultural eta etnikoa mantentzen lagundu zien:

“Julian Lachiondo, the first host, turned the show over to Cecil Jayo after a few years. Espe Alegria, “Voice of the Basques,” hosted the show for 26 years. She became famous in the Basque County because she spoke in Basque at a time when the language was outlawed under Francisco Franco’s regime in Spain” (Kattalina Berriotxo, 2014⁵³)

Esperanza (Espe) Alegriak ere izan zuten “Voice of the Basques” irratia programa Boisen:

The Basque Program on KGEM and then KBOI, broadcast information and current events from the Basque homeland, weather reports for herders, traditional Basque folk music as well as new contemporary Basque music for her audience, which included the western states, Canada, and Mexico. Espe Alegria retired May 30, 1982 after twenty-six years of broadcasting in Basque. She had continued the 1950s radio programs of Julian Lachiondo and Cecil Jayo, and Inaki Eiguren continued after Espe. Inaki Eiguren’s program aired at 10:30 pm on Sunday nights, also on KBOI, and was more convenient for those who normally visited the Basque center on Sunday evenings for card playing, although some then complained that it was too late. This consistent Sunday night program was the only source of news and information for herders, and other Basques, who generally spoke no English. Area Basques who traveled to the homeland would bring back personal news about their towns and villages and bought 45 records and phonograph albums to increase Espe’s available selection” (Toticaguena, 2002:68-69)

⁵² Twin Falls (Idaho)-en jaiotako euskalduna. New England Basque Clubeko bazkide eta euskara irakaslea Harvard Unibertsitatean.

⁵³ Berriotxo K. (2014). Saving Euskara The Basque language renaissance in <https://thebluereview.org/saving-basque-language-euskara/>

Programa horien ondoren beste batzuk sortu ziren, kasurako *Euskaldun Ordua* Buffalon (Wyoming) eta *The Basque Program* Elkon (Nevada)⁵⁴.

Egun badira oraindik irratik programak, eta gehienak internetetik emititzen dira. Boisen, adibidez, azken urtean Boiseko Taupada irratsaioa sortu zuten, euren webgunean dioten bezala, helburua: "To connect Boise and the Basque Country through music". Maddalen Bieter hasi zen horrekin 2017 urtean eta, egun beste kide batzuk eman diote jarraipena.

b) Internet eta Sare Sozialak

Medio tradizional horietatik, internet etorri eta sare sozial eta webguneetara saltoa eman zen. Gainera, "Internet is the most common tool used to reach out to diasporas" (Ionescu, 2006:35) eta honekin batera blog-ak, medio digitalak, WhatsApp-a, Facebook-a eta Instagram-a agertu dira komunikazioan.

Koldo Bizkarguenagak (2012) Tsavkko-García-ren ikerketa bat erabiliz, erakusten zuen blog-ei esker Euskal Herriaren eta bere diasporaren arteko distantzia geografikoak moztu egiten direla. Pedro Oiarzabalek ere sare sozialak azterketa egin zuenean blog-ena ere egin zuen. Bere ikerketan ikusi ahal izan zuen dantza taldeetako blog-ak zirela aktiboak: "That is to say, dance groups are central for diaspora organizations in both offline and online worlds" (Oiarzabal, 2011:222).

1994 urtean lehen euskal bloga sortu zen Boisen eta diasporako kide batek sortu zuen.

"The first Basque Web site was created in the diaspora by Blas Uberuaga in 1994, www.buber.net. The first Basque institutional diaspora web site was created in 1996 by the political association Asociación Venezolana de Amigos de Euskal Herria Prior to this, the Basque presence on the Internet was related to two mailing lists: Basque - L (December 1993) and soc.culture.basque (July 1996)" (Alonso & Oiarzabal, 2010:347).

Blog honek oraindik aktibo jarraitzen du⁵⁵. Horrez gain, beste batzuk sortu dira eta hainbat blog daude kanpoan diren euskaldunen inguruan idazten dutenak edo diasporarekin lotzen ditugunak. Batzuk aipatzeagatik: Boisen bizi den Henar Chicok daraman "A Basque In Boise", San Franciscotik idazten duen Anne Marie Chiramberrok daraman "Hella Basque" edota Nancy Zubiriak daraman "Euskal Kazeta" daude.

⁵⁴ Boiseko Euskal Museoko webgunetik hartutako informazioa.

⁵⁵ Buber blog-aren link-a: <http://buber.net/Basque/?p=1733>

Henar Chicoren blog-a homeland diasporako ekintzetan aztertu dugu, izan ere, nahiz eta bera Boisen egon, ekimena EITBren eskutik etorri zen.

Anne Marie Chiramberro euskal iparraldean arbasoak dituen euskal amerikarra da eta 2013 urtetik Hella Basque blog-aren atzean dago.

21 Irudia: Hella Basque



Source: Hella Basque

Blog hau sortu zuen zerbait buruz idatzi nahi zuelako eta Estatu Batuetako euskal kultura ezagutzen zuenez, erabaki zuen horri buruz idatziko zuela. Bere hitzetan blog hau: “Is a tool for communicating between the Basque Americans and Euro Basques” (Anne Marie Chiramberro, komunikazio pertsonala, 2017 urteko uztaila). Estatu Batuetako euskaldunei buruz idazten du, horrela, Euskal Herrian bizi diren euskaldunek honen berri izan dezakete: “I remember that the people from the Basque Country that read it is from Spain not many people from France. And in United States from California and Idaho” (Anne Marie Chiramberro, komunikazio pertsonala, 2017 urteko uztaila). Askotan, nahiz eta Euskal Herriko irakurleak izan, berarekin harremanean jartzen direnak Estatu Batuetan bizi diren euskaldunak dira, eta jaialdiei buruzko galderak egiten dizkiote. Orain, blog-a baino, instagrama erabiltzen du gehiago, tresna honek emaitza hobek ematen dituelakoan. Euskal Herriko jende ugariaren mezuak jasotzen ditu. 2017 urteko uztailan zehar, Euskal Herrian egon zen, eta hainbat mezu jaso zituen gomendioak ematen: “With instagram is easier to reach Basque people and interact with them”. She wanted to have Basque followers so “for months I have been searching hastaghs, commenting....” (Anne Marie Chiramberro, Hella Basque, komunikazio pertsonala, 2017ko uztaila).

Anne Mariek urte batzuk eman ditu blog-a barik beste sare sozial batzuk erabiltzen baina 2018 urteko ekainean barriro ere blog-arekin hasia erabaki zuen:

22 Irudia: Hella Basque blog-a



Source: Hella Basque blog-a

Azken hilabetetan (2018ko azaroan) bere merchadising propioa saltzen hasi da, betiere euskal motiboekin.

Horrez gain, Hella Basque eta A Basque in Boiseren arteko harremana ona izanik, euren artean gauzak elkarbanatzen dituzte:


23 Irudia: Hella Basque eta A Basque in Boise blog-en arteko koordinazioa erakusten duen irudia

The image is a screenshot of a Facebook page for 'Hella Basque' (@hellabasque). The page layout includes a left sidebar with navigation options like 'Hasiera', 'Honi buruz', 'Argazkiak', 'Gertakariak', 'Bideoak', 'Argitalpenak', and 'Komunitatea', along with a green 'Sortu orri bat' button. The main content area shows a post from 'Hella Basque' dated '19 ordu' ago, with the text 'Calling all Boise Basques! Exchange student for the Basque Country needs a place to stay for the fall.' Below this is a link titled 'A Basque in Boise' which is circled with a thick black scribble. The post also includes a comment 'Kaixo! Hello! I am an exchange student who will be in Boise to study for the fall term. I have not found off-campus housing anywhere (because I am only he...)' and a 'Ikusi gehiago' link. At the bottom of the post are interaction buttons for 'Atsegin dut', 'Iruzkindu', and 'Partekatu'. The right sidebar shows 'Pages Li' with profile pictures and a 'Pribatuta Iragarokie Facebook' notice.

Source: Hella Basque-en Facebook-a

Blog-etatik beste era bateko sare sozialetara saltoa eginez, Pedro Oiarzabalek 2011an egindako ikerketan ondorioztatu zuen: “Evidence shows that many diaspora associations use Fotolog, Blogger, Facebook, and MySpace to build communities based on a common identity, heritage, culture, political orientation, language, activities, and interests” (2011:223). Sare sozialei dagokionez, elkarrizketatutako gehienek Facebook aipatzen dute komunikatzeko bide bezala. Bestalde, twitter ere oso sare sozial erabilia da munduan.

24 Irudia: Mundu mailan Twitter erabiltzen dutenen zenbakia 2010 urtetik 2018ra:




Iturria: Statista <https://www.statista.com/statistics/282087/number-of-monthly-active-twitter-users/>

Hala ere, guk ez dugu twitterren erabilera lan honetan sartuko, inork ez digu twitterren erabilera aipatu eta egin dutenak, erabiltzen ez dutela esateko izan da, Hella Basque-ek adibidez: “I dont use Twitter. I feel like twitter is more for political discussion” (komunikazio pertsonala, 2017 urteko uztaila).

Hainbat eta hainbat dira Euskal Herrian gertatzen diren albisteen berri sare sozialei esker dutenak, Euskal Herriko familiarekin harremana mantentzen dutenak Facebook-i esker (edota sare sozial honi esker familia topatu dutenak), eta kulturalki garatzeko edo euskara ikasteko tresna hauek erabiltzen dituztenak: “Facebook es más que una herramienta mediante la cual los jóvenes construyen identidad vasca: también es un espacio que la ciudadanía vasca habita; un espacio que se sitúa entre lo local y lo global” (Sassen, 2006 Bizkarguenaga & Tsavkko-n 2015: 60). Estatu Batuetan bizi diren euskaldunen artean zabalduzako inkestan hori ikusi daiteke.

25 Irudia: Nola komunikatzen dira Estatu Batuetako Euskaldunak Euskal Herriarekin?

16.- How do you communicate with the people from the Basque Country? / Nola komunikatzen zara Euskal Herriko jendearekin?



Source: own elaboration based on survey answers

Sare sozialek zenbaki altuenak ematen dituzte bai eguneroko, asteroko eta hileroko komunikazio bide bezala. Argi dago, beraz, Internetek eta sare sozialek Euskal Herriaren eta euskal diasporaren arteko komunikazioan berebiziko garrantzia dutela, eta, hori dela eta, badira jada sare sozialek harreman horretan duten inpaktua ikertu dutenak. Ikerlari horien artean, aurrerago aipatu dugun Pedro Oiarzabalen lana dago. Urteak daramatza gai hauek aztertzen, eta elkarrizketetan oinarrituriko ikerketei esker ondorioztatu du Europa, Ipar eta Hego Amerika, Asia eta Ozeaniako hogei herrialde baino gehiagotan bizi diren euskaldunentzat, ziberespazioa euren "txoko" bilakatu dela eta diaspora digitalaren kontzeptua garatzen du Andoni Alonsorekin batera esanez diaspora digitalak direla: "The distinct online networks that diasporic people use to re-create identities, share opportunities, spread their culture, influence homeland and host-land policy, or create debate about common-interest issues by means of electronic devices" (Alonso and Oiarzabal, 2010:11).

Komunikatzeko bideei buruz galdetzean, askok, medio digitalak eta Facebook nahastu egiten zituzten. Estatu Batuetako euskaldunen kasuan ere Euskal Herrian gertatzen diren gauzen berri izateko Facebook aipatzen dute "I read kind of articles in Facebook" (Teresa Franzoia, USA, personal communication, march 2017). Batzuntzat medio digitalak izango direlarik ko-

munikabide, baina beste batzuentzat Facebook. Honekin lotuta Crush, Eberhardt, Caesar, Chikanda, Pendleton eta Hill-ek diote: “The recent explosion of social media is likely to provide further opportunities for diaspora connectivity, engagement, debate and identity formation” (2012:347).

Twitterrekin egin dugun moduan, jakin nahi izan dugu zein den Facebook erabiltzaileen zenbakia. 2018 urtean eta Statistaren⁵⁶ datuen arabera Facebook-ek 2.27 billoi erabiltzaile ditu hilero.

Facebooken erabilera argia da, adibidez euskal etxeetako Facebook taldeak, dantza taldeetako Facebook orrialdeak, Musika taldeenak...Euskal Herriarekin komunikatzeko bide ezinhobea dira:

“Nik, adibidez, ezin dot beti nire EHko familia edo lagunekin zuzenean hitz egin nahi dodan momentuan, ordu ezberdintasunagatik. Beraz, emailak, Whatsappak, Facebook edo Skype erabiltzen ditugu eguneratzeko” (Hecar Chico, “A Basque In Boise”, komunikazio pertsonala, 2017ko ekaina).

Pedro Oiarzabalek bere ikerketan ikusi zuen Colorado Basque Club (US) izan zela interneten presentzia izan zuen lehen euskal etxea, 2004 urteko apirilean. Horren ondoren, La Platako dantza taldeak eman zuen salto hori, 2004 urteko abenduan. Euskal diasporaren kasua erabiliz, Oiarzabalek erakusten du hainbat diaspora elkartetek Fotolog, Facebook, Blogger eta MySpace erabiltzen dutela identitate, herentzi, kultura, ekintza, hizkuntza, interes eta orientazio politiko berean eraikitako komunitate bat sortzeko.

Oiarzabalek aipatzen dituen sare sozial horiez gain, Instagramen presentzia gero eta nabariagoa da: “Instagram is one of the most popular social networking sites and currently has over 500 million active users and counting” (Statista 2016 in De Veirman, Cauberghe & Hudders, 2017).

2010etik instagramek izan duen igoera ikusita, euskal etxeek instagramea⁵⁷ saltoa egin duten edo ez ikertu nahi izan dugu eta nolako jarraitasuna ematen dioten sare honi. Ikusi dugunagatik badaude hainbat euskal etxe eta diasporako eragile instagramea saltoa egin dutenak eta euren jarraitzaile kopurua ere igotzen doa; Bartzelonako euskal etxeak, kasurako, 1.582 jarraitzaile ditu (2018ko azaroan), Hella Basque-k 4.803 eta Argentinako Semana

⁵⁶ Facebook-en erabiltzaileen mundu mailan:

<https://www.statista.com/statistics/264810/number-of-monthly-active-facebook-USers-worldwide/>


⁵⁷ Zer da Instagram? Instagramek 150 milioi erabiltzaile baino gehiago dauzkat, eta 55 milioi argazki igotzen dira egunero batazbeste. Telefono mugikorretik argazkiak eta bideoak igotzeko aukera ematen du eta horiek, dituen filtroekin, manipulatzeko aukera.

Nacional Vasca-k 700 inguru. Jarraitzaile kopurua gora doa baina oraindik ezin daiteke Facebook-en erabilerarekin aldaratu.

Hau izan daiteke instagram sare berri bat delako eta erabiltzen duena jente gaztea delako, erabiltzaileen %60 gutxi gora behera 18-34⁵⁸ urte bitarteko jendea da.

Facebook adin nagusiagoko jenteak erabiltzen du askotan, euskal etxeen lagunak adin nagusikoak direlako eta horiek ez dute hainbeste Instagrama erabiltzen.

26 Irudia: Sare sozialen erabilera erabiltzaileen adinagatik



Iturria: Statista <https://www.statista.com/statistics/274829/age-distribution-of-active-social-media-users-worldwide-by-platform/>

2009 urtean WhatsApp mobilerako aplikazioa sortu zen. Estatu Batuetako euskaldunek berebiziko garrantzia ematen diote WhatsApp-i Estatu Batuetako lagunekin ez dutelako erabiltzen. Mezuak debalde dira Estatu Batuetan, horregatik, ez dute WhatsApp aplikazioaren beharrik mezuak

⁵⁸ Statista: <https://www.statista.com/statistics/248769/age-distribution-of-worldwide-instagram-users/>

bidaltzeko. Gainera, ia denek Iphona dute eta Imessage eraibltzen dute. Horregatik denek aipatzen dute aplikazioa:

“I WhatsApp. I only use WhatsApp with my Basque friends in the Basque Country. With my Americans friend I use Imessage. I WhatsApp with my izeko and my cousin at least, not daily, but 4 or 5 times a week. And if I wasn't too busy I would skype with them.” (Argia Beristain, Idaho eta Nevadako Euskal komunitateko kide aktiboa, komunikazio pertsonala, 2017 urteko martxoa).

Teresa Franzoiak (Elko) ere egun komunikazioa askoz errezagoa dela dio eta horretarako WhatsApp-a erabiltzen dutela: “We have a family group in WhatsAapp, is fantastic!”.

Whatsapp-a da, sare sozialekin batera, egunero eta astero Euskal Herriko jendearekin komunikazioa mantentzeko gehien erabiltzen duten tresna.

7.2.2 Harremana mantendu, askotan harreman publikoen bidez

Esan bezala, aztertuko dugun beste puntuetako bat harremana mantentzeko izan diren bideak dira. Euskaldunak beti antolatu izan dira, era ofizial edo ez ofizial batean baina beti izan dute komunitate berean bizi ziren Euskaldunekin biltzeko aitzakiarenbat. Horien barruan boardinghousak eta euskal etxeak, euskal etxeen eta Euskal Herriaren arteko harremanerako sortutako elkarteak, euskal identitatea mantendu eta euskal komunitatea indartzeko antolatzen diren udalekuak; Estatu Batuetan antolatzen diren jaialdi edota festibalak eta diaspora sareak daude.

7.2.2.1 *Diaspora elkarteak: kofradiak, boardinghousak, Euskal etxeak frontoiak eta federazioak*

Kofradiak izan ziren euskal diaspora antolatu zenean sortu ziren lehen elkarte ofizialak eta horien ondoren, *boarding house*-ak:

“In Argentina, the United States and on a smaller scale in Uruguay and Australia, these Basque ‘hotels’ served as information centers for news from Euskal Herria and networking for employment (Echeverria, 1989; Douglass, 1996; Mendiola Larrazabal interview 1997) (Toticaguena, 2000:161)

1999 urtean Echeverriak esan zuen nahiz eta *boarding house*-n garrantzia ezinbestekoa izan zen euskaldunak “Mundu Berria”-n egokitu ahal izateko, oso gutxi dagoela idatzita horiei buruz. Lehen ostatuak Buenos Aires eta Montevideon agertu ziren eta ondorengoak Kalifornia urrearen sukarra eta

jarraian (Echeverria, 1999:prologue). Kalifornia eta Nevadako lehen ostatuak 1860 eta 1890 urteen inguruan egin ziren (Echeverria, 1999:36): “The Plaza hotel was a forerunner to later ostatuak, and its opening date followed closely after the initial Basque presence in San Juan Bautista 1850” (Echeverria, 1999:40). *Boardin ghouse*-ak edo ostatuak bihurtu ziren mundu berrian falta zitzaizen familia izateko tokia. Euskal Herritik kanpo zuten bigarren etxeak ziren eta horietan euskara, euskal jatekoa, euskal jokoak, euskal musika eta dantza zeuden; gainera, *boarding house*etan euskal jentea eta, nahi izanez gero, bikotea topatzen zuten; gaixo zeudenean medizinak, eta egun bereziak ospatzeko leku aproposa zen (Jeronima Echeverria, 1999:206). *Boarding house* batzuk jatetxeak edota euskal jentea batzeko euskal etxeak bihurtu ziren eta horien helburua zen hainbat belaunalditako emigranteak euren artean batzea eta zubilana burutzea emigrante horien eta Euskal Herriaren artean:

“El objetivo de la euskal etxea como puente, no deber ser dirigir o controlar el tráfico, sino ofrecer nexos de conexión que vinculen a las instituciones y a la gente de los siete territorios con todos los vascos que viven actualmente repartidos por múltiples países” (Totricaguena, 2007.urteko Mundu Biltzarrean, Eusko Jaurlaritza, 2008:24).

2010 urteko Jaialdiko brochure-an ondorengoa zioan *boarding house*i buruz:


“Boarding houses were essential parts of life for the Basque community-it was where herders could hear and speak their native language, eat familiar foods, bathe, socialize, and sleep peacefully. Initially, Basque families would rent spare rooms to sheepherders; eventually, this practice grew into the boarding house. In Boise, one of the first boarding houses was opened by Juan and Teresa Yribar at II8 S.7th St. That was followed by a house opened by Jose Uberuaga in 1900. By 1910, there were six boarding houses catering to Basques in Boise, and may more could be found in Idaho towns such as Shoshone, Hailey, Twin Falls, Mountain Home and beyond. The boardind houses natyurally became centers of Basque culture in Boise, where immigrants could play traditional card games and sports. They served another special purpose: Dances at boarding houses led to innumerable matches between Basque men and women who would settle for good in the area and established the Basque-American families that still live here today.” (Basque Americans in the Columbia River Basin) (Jaialdi brochure 2010:25 in the Basque Museum and Cultural Center from Boise, Idaho)

Estatu Batuetan bizi diren euskaldunen artean euskal etxeko kideen portzentaia zein zen ezaġutu nahi izan dugu. Ez dago desberdintasun handirik bazkide eta ez bazkideen artean, hala ere, bazkide direnen portzentaia da handiagoa.

27 Irudia: Euskal etxeko bazkideen portzentaia

10.- Are you a member of a Basque Center? / Euskal Etxeren bateko kide zara?

423 respuestas



Iturria: norberak egina inkestako erantzunekin

Bestalde, jakin nahi izan dugu, bazkide diren horien artetik, zein euskal etxek duen egoitza fisikoa. Ikusi ahal izateko, ia, diaspora antolatzeke modua aldatzen ari den.

Euskal etxeko kide direla esan duten horietatik %81,3ak dio euskal etxe horrek egoitza fisikoa duela. Horrek esan nahi duena da, beste 19ak ez duela. Egoitzarik ez duten horiek, taberna batean edota unibertsitateko auletan batzen dira. Horrek erakusten digu, diaspora antolatzeke modua aldatzen ari dela. Ez asko oraindik, zenbakia oso baxua delako, baina bai pixkat.

Nahiz eta jatorrian euskal etxeen helburua ez izan Euskal Herriaren eta kanpoan bizi ziren euskaldunen arteko komunikazioa hobetzea, egia da urteak aurrera egin ahala helburu hori ere lortu dutela. Euskal etxeak Euskal Herrian “erdi ezagunak” egin diren heinean, badaude oporretan, lanean edo bizitzen beste herrialde batera joan eta herrialde horretan dauden euskal etxeak bisitatzen dituztenak:

“Nueva Yorkera joan nintzen Aste Santuan. Nire lagun batek esan zidan Nueva Yorkeko Euskal etxean Aberri eguna ospatu behar zutela eta hara joatera animatu ginen. Euskal diasporako kideak ezagutu genituen eta han lan egindako jendearekin harremana egin genuen” (Asier Iturregi, komunikazio pertsonala, 2017ko ekaina).

Horrek, kanpoan bizi diren euskaldunen eta Euskal Herrian bizi diren euskaldunen arteko komunikazioa hobetzen du. EuroBasques⁵⁹-ek ezagutu ahal dute nolakoa den euskaldunen bizimodua Euskal Herritik kanpo eta migrazioaren historia ezagutu dezakete; eta, era berean, inoiz Euskal Herrira etorri ez diren edo aspaldi etorri diren euskaldunek garaiko Euskal Herriaren berri izan dezakete. Gaur, 2018 urteko abenduan 191 euskal etxe daude munduan zehar eta 38 Ameriketako Estatu Batuetan.

Euskal etxeen Federazioa: N.A.B.O. (Noth American Basque Organization)

1973. urtean Estatu Batuetako euskal etxeak bilduko zituen elkarte sortu zen, NABO (North American Basque Organization). NABOri buruz idatzi dutenen artean badago Argitxu Camusen doktorego tesia (2008), Nancy Zubiriaren lana (1998) eta Douglassena (2003). Esan dugun moduan Euskal Herritik emigratu zuten euskaldunak munduan zehar kokatu zirenean euren artean biltzeko eta laguntzeko euskal etxeak sortu zituzten. Euskal etxe horien helburua norbait herrialde horretara heltzean laguntza ematea, euskaldunen bilgune izatea eta euskal kultura aurrera eramateko leku izatea zen. Baina Estatu Batuetako kasua hartzen badugu, ikus dezakegu distantziak oso handiak direla, eta oso zaila zela Idahoko Basque center batek, Kaliforniako Basque center batekin kontaktua edo harremana izatea. Horregatik, herrialde bereko euskal etxeen arteko komunikazioa eta harremana sortzeko elkarte baten beharra zegoela ikusi zen. Elkarte hauek ez zuten bakarrik herrialde bereko euskal etxeen arteko harremana hobetuko, herrialde desberdinetan zeuden elkarteekin ere komunikatzeko balioko zuten, eta oso garrantzitsua dena, Euskal Herriarekin lehenengo, eta Eusko Jaurlaritza sortu zenean Eusko Jaurlaritzarekin komunikatzeko balioko zuten.

Horregatik, gure ikerketaren puntua EuroBasques eta BasqueAmericans-en arteko komunikatzeko bideak aztertzea den heinean, elkarte hauen ikerketa beharrezkoa zela uste genuen. Munduan zehar herrialde bereko euskal etxeak biltzen dituen hainbat elkarte topa ditzakegu. Argentinan, Federación de Entidades Vasco Argentinas; Estatu Batuetan, North American Basque Organization; Uruguain, Federación de Instituciones Vasco Uruguayas; eta Europan, Asian eta Ozeanian oraindik ez dago Federazioarik, baina bidean dago. 2017 urteko maiatzarn 12tik 17ra horren inguruko bilera bat antolatuko dute Parisen.

⁵⁹ Ikerlariak Boisen egindako egonaldian ikasi zuen bertako euskaldun batzuek Euskal Herrian bizi ziren euskaldunei Eurobasque deitzen zietela.

NABOren sorrerari buruz Argitxu Camusek (2002), Pedro Oiarzabalek (2007) eta Koldo San Sebastianek (2018) idatzi dute. Argitxu Camus Etchecoparrek (2002) NABOri buruz egin zuen bere ikerketa eta NABOren sorreran garrantzitsuak izan ziren ezaugarriak adierazten zituen:

- Ez zegoen talde euskaldunik lehenago (1950).
- Aurrerapausu garrantzitsuak eman ziren gizartean 1950 urtetik aurrera.
- “Western Basque Festival”a 1959.urtean Sparks (Nevadan). “The catalyst was the Western Basque Festival in Sparks (Reno) in 1959
- Aldaketak eman ziren club-en artean. Sparks-en izandako festibalaren ondoren boarding house desberdinetako kideak biltzen hasi ziren, bisitak egiten...sare berri bat hasi zen.

Pedro Oiarzabalek, bestalde, bere liburuan dio NABO Argentinako FEVA (Federación de Entidades Vasco Argentinas)-ren antzekoa zen zerbait sortzeko helburuarekin sortu zela: “We’d been in Argentina, and Jon was all charged up and wanted to bring some of the Basque clubs together in order to create something similar to FEVA. That’s when we hosted a meeting in the Bible Room, which was attended by reps from the Basque clubs of Reno, Boise, and San Francisco. That’s when we decided to go forward with a national federation clubs called NABO IN 1974” (2007:29).

San Sebastianek Jon Bilbaoren biografiari buruz idatzi duen azken liburuan, Bilbao honen sorreraren parte izan zenez, NABOren sorrerari buruz zerbait esaten du:

“Jon, por ejemplo, fue fundamental en la fundación de North American Basque Organisations (NABO). El trajo la idea de nuestro viaje a América del Sur. Quedó fascinado con la FEVA y pensó que había que hacerlo en Estados Unidos. Durante seis meses estuvo calentándome la cabeza. Me decía que el Programa podía ser el foco de la asociación de los centros vascos del Oeste Americano. Yo le replicaba que no había ningún Programa de Estudios Vascos en el nacimiento de la FEVA, que no éramos ni una entidad vasca, ni un club, y que mucho menos representábamos a nadie. Por fin, el único compromiso que aceptamos fue que yo llamara a Al Erkiaga, de Boise, un joven activo, a Jacques Unhassobiscay; del club de San Francisco, a Janet Inda, de Reno, y quizá a alguien de Elko. Los reunimos en el campo. Así surgió la ida y eso fue lo acordado entre Jon y yo” (San Sebastian, 2018:211)

Ez da gure lana izango euskal etxeen eta federazioen sorrera eta eboluzioa nolakoa izan den esatea, lan hori eginda baitago; Urazandi Bildumak munduan zehar dauden euskal etxeen informazioa ematen du. Bilduma honi esker euskal etxeetako kideek euren jatorriaz eta eboluzioaz jakingo zuten,

eta eurez gain, Euskal Herriko jenteak ere irakurri ahal izango zuen horri buruz. Guk euskal etxeak komunikazio bide bezela identifikatu ditugu eta zubia direla baieztatzen dugu.

Beste alde batetik, eraikin fisiko moduan, frontoiak daude. Miguel Angel Bilbaoren⁶⁰ hitzetan, 170 frontoi izan dira mundu osoan zehar eta horietatik 24 Estatu Batuetan (12 Floridako estatuan). Frontoiak eta pilotariak Estatu Batuetako Connecticut, Rhode Island eta Florida estatuetan izan dira, eta oraindik dira. Estatu Batuetan ireki zen lehen frontoia 1924 urtean izan zen Biscayne Jai Alai (Miamin). Frontoiak izango ziren zonalde horietan euskaldunak biltzeko lekuak eta nola ez, euskaldunen eta herrialde horretakoen artean komunikazioa mantentzeko baita Euskal Herritik heltzen zirenekin ere. Guk esaten dogu frontoiak izango direla Florida, Rhode Island eta Connecticut-eko estatuetan *boarding house* edo euskal etxeen lana burutuko dutenak.

⁶⁰ Miguel Angel Bilbaok, zesta punta zale eta ikertzaileak Garaian Kultur Elkarterako zesta puntaren inguruko artikulua idatzi zuen.

13. Taula: Frontoiak Ipar Ameriketean

IPAR AMERIKA
Palm Beach Jai Alai -1978- West Palm Beach (Florida)
Seminola Jai-Alai -1962-Orlando (Florida)
Miami Jai-Alai -1926- Miami (Florida)
Hai-Aleah Miami -1924- Miami (Florida)
Biscayne Jai-Alai -1926- Miami (Florida)
Dania Jai-Alai -1953- Dania Beach (Florida)
Tampa Jai-Alai -1953- Tampa (Florida)
Daytona Jai-Alai -1959- Daytona Beach (Florida)
Fort Pierce Jai-Alai -1974- Fort Pierce (Florida)
Melbourne Jai-Alai -1971- Melbourne (Florida)
Ocala Jai-Alai -1973- Ocala (Florida)
Jasper Hamilton Downs Jai-Alai -2005- Jasper (Florida)
Milford Jai-Alai -1977- Milford (Connecticut)
Bridgeport Jai-Alai -1976- Bridgeport (Connecticut)
Hartford Jai-Alai -1976- Hartford (Connecticut)
Newport Jai-Alai -1976- Newport (Rhode Island)
Big Bend Jai-Alai -1978- Quincy (MassachUSetts)
Hippodrome Jai-Alai -1938- New York City (New York)
Sant Louis Jai-Alai -1904- Sant Luis (Missouri)
Reno Jai-Alai -1976- Reno (Nevada)
Las Vegas MGM Jai-Alai -1974- Las Vegas (Nevada)
San Francisco Eder Jai -1901- San Francisco (California)
Chicago Rainbow Jai-Alai -1927- Chicago (Illinois)
New Orleans Jai-Alai -1926- New Orleans (Luisiana)

Iturria: norberak egina pilotariak emandako datuei esker

7.2.2.2 *Diaspora ekintzak: Jaialdiak, udalekuak eta diaspora sareak*

Diasporako kideek elkarteak sortzeaz gain, hainbat ekintza burutzen dituzte Euskal Herriarekin harremana izateko edota identitatea mantentzeko bizi diren herrietan. Ekintza horien artean daude beste batzuen artean hizkuntza eskolak, talde kulturalak, jaialdi edo festibalak, udalekuak edota diaspora sareak.

Aurreko atalean aztertu ditugun diaspora elkarte guzti edo ia guztietan topa daitezke ekintza kulturalak ikasi edota praktikatzen dituzten eskola edo taldeak. Talde horiek, normalean, dantza taldeak, musika taldeak (trikitixa, panderoa, txistua...ikasteko eta jotzeko taldeak), kirol taldeak (sokatira, pilota eta herri kirolak egiten dituzten taldeak), mus txapelketetan parte hartzeko jendea, koruak eta euskara klaseak dira.

Estatu Batuetako euskaldunen artean zabaldutako inkestaren erantzun dutenen artean %83ak esan zuen ekintza hauetan parte hartzen zuela. Hauek dira ekintza horietan parte hartzen dutenen kopuruak:

14. Taula: Euskal diasporako kideek parte hartzen duten ekintzen portzentaia

Ekintza	Portzentaia
Janaria	%58,43
Musika	%28,49
Hizkuntza	%26,74
Dantza	%25,58
Kirola	%12,50
Mus	%10,47

Iturria: elaborazio propioa inkestaren erantzunetatik

Estatu Batuetako ia euskal etxe guztiek dute euren dantza talde propioa, dantza talde horietako kideak euskal dantza tradizioanlak eta ez hain tradizionalak ikasten dituzte eta gero Estatu Batuetan zehar antolatzen diren jaialdietan ikuskizunak ematen dituzte. Dantza talde horiek dantzatzen dituzten dantzetan bertako musikariek jotzen dute eta hori ikasteko eta praktikatzeko taldeak ere izaten dira. Hizkuntzari dagokionez, Etxeparek atzerriko unibetsitateetan dituen irakurleez gain, hainbat euskal etxek euren euskara klase propioak dituzte eta euskal etxe batzutan maila desberdinak dituzte. Kirolari dagokionez, normalean herri kirolak eta frontoietan jokatzen diren kirolak praktikatzen dituzte. Dantza taldeekin egiten diren ikuskizunekin bezala, euskal kirolekin lotutako txapelketak egiten dituzte. Amaitzeko, mus-ak ere Atlantikoa gurutzatu zuen eta diasporako kideek asko jokatzen duten karta jokoa da. Bai dantza, kirolak, zein mus-a erausketa edo txapelketa mailara eramaten dituzte diasporako kideek eta askotan, Estatu Batuetatik Euskal Herrira etortzen dira.

Jaialdiak

Euskal diasporako kideek euren arteko harremana mantentzeko picnic edo bazkariak antolatu izan dituzte bizi diren herri edo hiri horietan. Lehen jaialdi edo picnic-ak euskal etxeak sortu berri edo sortu baino lehenago hasi ziren. Boisen, adibidez, euskal etxea 1949 urtean sortu zen eta 1933 urtean Boiseko euskaldunak euren urteroko picnic-a lehen aldiz Boiseko parkean antolatu zuten, irekia eta inolako pribatasunik gabe. New Yorken ere, 1940an *Summer Basque Festival picnic* in New York antolatzen zen:


“Picnics were every summer in Staten Island, and then some in Queens. We used to have two big functions: one was the picnic and the other was the winter festival around Christams time.” (Anna Mari Aguirre, personal communication, April 2018)

Picnic horietatik jaialdiak sortu ziren. Gure inkesta erantzun dutenen %99,7ak uste du jaialdi hauek garrantzitsuak direla Estatu Batuetan dagoen euskal komunitatearentzat eta erantzun dutenen artean %84,5 egon izan da inoiz jaialdi euskal amerikar baten. Horietatik %55,8a azken urtean izan da jaialdiren baten. Oso datu garrantzitsua.

28 Irudia: Euskal Jaialdietan presentzia

37.- Have you ever been to a Basque festival in the United States? / Egon zara inoiz Euskal Jaialdi batean Estatu Batuetan?

416 respuestas




Source: own elaboration based on survey answers

Jaialdi horiek Estatu Batuetako hainbat estatutan izaten dira baina ikusi dugu, gure erantzunen artean Idaho, Nevada eta Californiako Jaialdiak, orden horretan, direla gehien bisitatzen dituztenak.

29 Irudia: Ze Jaialditan izan zara?

38.- Where have you attended a Basque festival? / Nongo euskal jaietan izan zara?

391 respuestas



Iturria: elaborazio propioa inkestako erantzunekin

Horrez gain, jaialdien dimentsioa ezagutu ahal izateko, jakin nahi izan genuen ze eratarako harremanak egiten zituzten jaialdian edo nongo jentearekin biltzen ziren.

15. Taula: Norekin izan zara jaialdian?

NOREKIN IZAN ZINEN?	
Nire komunitateko euskaldunekin	%71,6
Estatu Batuetako familiarekin	%67,6
Euskal Herriko euskaldunekin	%55,3
Estatu Batuetako beste estatu batzutako euskaldunekin	%54,5
Euskal Herriko familiarekin	%29,9
Munduko beste leku batzutako euskaldunekin	%19,6
Beste herrialde batzutako jendearekin	%19,3
Bat ere ez	%6

Iturria: autoreak egina inkestako erantzunekin


Ikusten dogu kopuru handienak euren komunitateko beste euskaldun batzuekin izaten duela harremana jaialdi hauetan, baina, hala ere, nabaria da Euskal Herriko familiarekin edo munduko beste leku batzuetako euskaldun zein ez euskaldunekin duten harremana. Horrek esan nahi du, jaialdi hauen dimentsioa transnazionala dela, eta, nahiz eta gehiengoak jada ezagutzen duen jentearekin harremana izan, posible dela mundu osoan dauden euskaldunekin ere konektatzea.

Interesgarria da euskal janariaren garrantzia zelakoa den ikustea. Hori da jaialdietan gehien gozatzen duena jenteari, horren ondoren, ia zenbaki berdinekin, dantza, musika eta beste euskaldun batzuekin batzea daude.

30 Irudia: Zer gustatzen zaizu gehien jaialdietan?

43.- What did you enjoy the most? (Choose two) / Zer gustatu zitzaizun gehien? (aukeratu bi)

395 respuestas



Iturria: elaborazio propioa inkestako erantzunekin

Aukera eman genuen festibaletan gustoko zituzten gauza gehiago gehitzeko. 29 erantzun izan genituen eta horien artean daude: “Sharing our culture with people who are not Basque”; “Updates on politics from homeland, updates on education from homeland”; “Euskaraz egitea”; “Observing other non-basque attendees”; “Basque art”; “Mass” eta “Unity of the Basque people”. Erantzun horiek erakusten dute, Jaialdiak ez direla bakarrik komunitateko Euskaldunentzat, izan ere, partehartzailei gustatzen zaie Euskalduna ez den jentea ere bertan ikustea, eta Euskal Herriko egoeraren berri izatea.

Jaialdi euskal amerikarrak Estatu Batuetan zehar urtean zehar antolatzen diren jaiak dira. Gehienbat uda partean ospatzen dira eta euskal kultura

zabaldu, gozatu eta komunitatea sortzeko eta indartzeko balio dute. Horrez gain, jaialdi hauek beste era bateko helburuak ere lortu dituzte, hurrengo atalburuan ikusiko dugun moduan, bi herrialderen arteko harremanetan eragina izan dute.

Gure ustez badaude jaialdi euskal amerikar batzuk aipamen berezia behar dutenak (The Western Basque Festival, Holiday Basque Festival, Boiseko Jaialdia, Smithsonian Folklife Festival eta New London Basque Festival) eta horiek aztertuko ditugu orain.

a) The Western Basque festival: “A Profitable event”

Historian atzera egiten badugu, 1959.urtean Nevadako Sparks herrian “The Western Basque Festival” jaialdia antolatu zen. Urte berean euskaldunak ezagutzen zituen amerikar batek ondorengo esan zuen: “If I had it all to do over again, I’d be born a Basque. Not in the Pyrenees. In Western Nevada, where I first knew them” (Oakland Tribune, Thursday, april 16, 1959).

Jaialdi hau Ameriketako euskaldunen bizitzan hito bat izan zitekeen, izan ere, lehenago bai ospatzen ziren jaialdiak, baina John Ysursak (Idahoko Euskal komunitateako pertsona aktiboa, komunikazio pertsonala, 2017ko apirila) esan zuen moduen, “They were kind of hidden”. Douglasssek (2003) ere berdina esan zuen: “Hasta ese momento, ni en Estados Unidos ni en Europa existía un referente para ello”.


The Western Basque Festival-a Sparks-en dagoen Nuggets casinoan antolatu zen. Jon Ascuaga euskalduna da casino horren jabea zeinek 1.600 logela eta 4.800m² dituen jokorako eta jatetxez beteta. Ikusi zuten festibal horretatik zerbait positiboa aterako zutela (Douglass, 2003) eta euskaldunek Estatu Batuetan zuten irudian lagunduko zuela. Festibalaren antolakuntzan Ameriketako eta Europako euskaldunak izan ziren: 3 Euskal Herrian jaioak eta beste 3 Ameriketara jaioak, hori inportantea zela uste zuten (Douglass, 1980:122). Antolatzaileetako bat Peter Echeverria izan zen, Shoshonen (ID) jaioa eta bere gurasoak Bizkaiakoak. 30 urtetan zehar abokatu moduan lan egin zuen eta American Board of Trial Advocated presidentea zen. Horrez gain, Nevada Trial Lawyers Association-eko sortzaileetako bat zen eta Nevadako Senatuko kidea. Antolakuntzan zegoen, baita ere, Robert Laxalt, idazle, irakasle, historialari eta editore euskal amerikarra. Far Westeko imigrante euskaldunen abotsa zela esaten zuten askok. 1957an *Sweet Promise Land* liburua idatzi zuen, zeinek bere karrerari buelta bat eman zion eta hainbat euskal amerikarri abotsa eman zion.

Festibala antolatu zen lekua leku estrategikoa zen Idaho eta Kaliforniaren artean. 1959 urteko ekainaren 6 eta 7an 5.000 eta 6.000 pertsona inguruk parte hartu zuten jaialdian eta mesa, artzain txakurren lehiaketa, Mus txapelketa, euskal dantza eta musika, eta euskal kirolen erakusketa izan zen. Hainbat idazlek idatzi dute jaialdi honen emaitza positiboetaz buruz.

Hainbat autorek Western Basque Festivalaren helburuei buruz hitz egiten dute. Helburuetako bat euskal artzainek zuten irudi txarrarekin apurtzea izan zela diote (Fernandez de Larrinoa, 1991). Douglass-en (1980) hitzetan euskal artzainek irudi txarra zuten Estatu Batuetan beste artzainei lana kentzen ziotelako eta ez zutelako ezer gastatzen bertan. Hori dela eta, hori aldatu nahi zuten eta euskal komunitatea ezaguna egin AEBetan. Western Basque Festival Jaialdia “rite de passage”⁶¹ izan zela esaten denean esan nahi dena da horri esker euskaldunen irudia aldatu egin zela eta talde batetatik beste batera pasatu zirela; hau da, irudi txarra izatetik Estatu Batuetan oso ondo ikusiak izatera. Western Basque Festivala “status berri baten zelebrazio” moduan ikus daiteke (Fernandez de Larrinoa, 1991).

Western Basque Festivalak euskal amerikarren historia kolektiboaren abiapuntu berri bat markatu zuen. Autore batzuk hori dioten arren, eztabaidagarria den zerbait dela ikusi dugu, izan ere, Western Basque Festivala 1959 urtean egin zen baina 1949 urtean Boise (Idahon) music Week-eko protagonistak euskaldunak izan ziren *Songs of the Basque* aurkezpenarekin. Boise Music Week 1918 urten antolatu zen lehen aldiz, Estatu Batuetako music week zaharrena eta bolondres gehien (2.000 inguru) dituenena da. 1949 urten Boise Music Week-eko juntak euskaldunak nahi izan zituzten Music Week-eko protagonist bezala eta the *Songs of the Basques* aurkezpena egin zuten.

31 Irudia: *Songs of the Basque*-en aurkezpena



Iturria: 100 urte bete zirenean Boiseko Euskal komunitateari bidali zitzaion gonbidapen gutunean zegoen


⁶¹ Arazodun irudi batetatik irudi on baterako transizioa. “the transition from a troublesome image to a enabling one”.

Lehen Music Week-a ospatu zutenetik ehun urte igaro zirenean Boiseko Museoan bildu ziren euskal komunitateko kideak egingo zuten aurkezpena prestatzeko. Publikoan jesarrita zegoen emakumeetako batek esan zuen aurkezpen hori baino lehenago euskaldunak zeudela “hidden from the Americans, but, when the Music Week called Jay Uberuaga. That was the first public performance, Basques were accepted” (Boise Music Week-en 100 urteurrena prestatzeko Boiseko euskal etxeean egin zen ekitaldian, 2017 urteko martxoan). Horregatik, kontrajarriak, gutxienez garaian, diren bert-sioak ditugu puntu honi buruz.

Ameriketako euskaldunek euren artean harremana indartzeko eta euskal kultura sustatzeaz gain; euskaldunak ez ziren amerikanoak euskaldunak ezagutzeko ere izan zen. Euskal kultura amerikarraren barruan sartu eta ezaguna egiteko: “...a tribute to our people, about whom so little is known in this country” (Elustondo, 2007:122). Elustondoren hitzetan: “Jaialdiak jendeen arteko harremani eusteko balio du, norberaren identitate etnikoa biziberritzeko, eta kanpoko munduari euskaltasunaren irudi positiboa erakusteko” (2007:147) eta Larrinoaren hitzetan: “Euskal jaiak izan dira azkenengo bi hamarkadeetatik barrena Estatu Batuetako Mendebaldeko Euskal jendeen produzio publikorik garrantzitsuena” (de Larrinoa, 1991:200).

b) Holiday Basque Festival: “Seeds for the future”

32 Irudia: Holiday Basque Festival-en brochure-a



Iturria: Basque Museum and Cultural Center of Boise (Idaho)

Euskaldunek Ameriketara antolatutako jaialdien artean aipagarria da ere 1972 urtean antolatu zen *Holiday Basque Festival* jaialdia. Ez dago jaialdi honen inguruan askorik idatzia, ordea. Festival honen helburua Pat Bieter Boise Stateko irakasleak eskatu zuen beka bat osatzeko dirua lortzea zen. Pat Bietarren helburua Idahon eta Estatu Batuetako zona horretan euskal kultura mantentzen lagunduko zuen programa bat sortzea zen, eta hori egiteko, dirua beharrezkoa zen:

“The Holiday Basque Festival was a weekend-long cultural program focused on the Basque culture which was held during June 2-3-4 1972, in Boise, Idaho. This festival had an historic importance for the future cultural activities of the Basques in Boise and the USA, not only for being the predecessor of the currently successful Jaialdi, but also because it began a discussion of an Ikastola, or Basque language immersion school, which would become a reality in the late 1990s. The program focused on the Basques but the festival was created for Basques and non-Basques alike. The festival was developed by the newly created Basque Studies Center of Idaho (1969) as a fundraising project for the center. Holiday Basque Festival booklet front and back cover pages.” (Basque museum Juanita Uberuaga Hormaechea Collection bk 82-1972-61-00003).

Pete Cenarrusak Idaho Statesman-en esan zuen moduan (1972ko ekainaren 3an) *Holiday Basque Festival* izan zen: “The largest of its kind ever held in North America” (*Holiday Basque Festival booklet front and back cover pages. Juanita Uberuaga Hormaechea Collection bk 82-1972-61-00003*).

Jaialdiko antolatzaileetako batek esan zuen moduan:

“It was designed for raising for a grant that we had, so only one or two days. We had some international visitors but the first planning was very short because if we raise money here, they would give us the same amount. So we have a short period of time and a short call. It was not planned so much by the Basque center, it was more by the higher education that received the grant. We were just hoping that things would go great.” (Miren Artiach, personal interview 2017).

Helburua, beraz, argia zen, dirua lortu behar zuten, baina egia da, beste era bateko helburuak ere lortu zituztela. *Holiday Basque Festival*ek arazo gabe lortu zuen behar zuen diru kantitatea eta 1974. urtean, aurrerago ikusi dugun moduan, 75 gaztetako talde bat Boisetik Oñatira joan zen.

c) Boiseko Jaialdia: “The new Mecca for the Basques”

Holiday Basque Festival-en antolakuntzatik Boiseko Jaialdiarena etorri zen (Al Erkiaga, Idahoko euskal komunitateko kide aktiboa, komunikazio pertsonala, 2017 urteko martxoan). Erkiagaren hitzetan, Salt Lake City-n (Utah)

antolatu zen NABOk bilkura batetatik bueltatzen zirela, kotxean Jokin Intxaustirekin bueltatu ziren, Ardanzak 85 urtean euskal diasporako gaietako arduradun eta aholkulari izendatu zuena. Intxaustik ondorengo galdetu zien: “You know, if there is one thing you would like to do, what would that be?” eta Al Erkiagak Holiday Basque Festiaval gogoratu, esan zion : “ I have always have the dream of doing a big Festival”.

Horrela, 1987 urtean Boiseko lehen Jaialdia antolatu zen Boiseko “Old Penitenciarin”. Dena Euskal Herriko herritxo bat izango balitz bezala apaindu zuten eta bertan ospatu zen jaia. Gero 1990 urtean: “Basque community of Boise was asked by the Governor of the State of Idaho, Cecil Andrus, to host a Jaialdi to help Idaho celebrate Idaho’s Centennial. Since 1990 the Basques of Idaho have hosted Jaialdi every five years” (jaialdiko antolatzaileetako bat, komunikazio pertsonala, 2016).

Bi urte desberdinetako Jaialdietan Boiseko alkateak emandako ongi etorria:

“The City of Boise and surrounding area is fortunate to have the largest concentration of Basque people outside of the Basque Country in Europe. The Basque Community is justifiably proud of their heritage and it has culturally enriched our city and lives. All Boiseans are honored to host the International Basque Cultural Festival and to join in the celebration.” (Dirk Kempthorne Mayor of Boise, 1990 urteko Jaialdian)

“Welcome! We are pleased that you have joined us as we kick off the 2000 Jaialdi Basque Festival. This Festival is held every five years in Boise and the relationship is especially significant because Boise is home to the largest Basque contingents outside Europe, and Gernika, Spain, is Boises first Sister City.” (H.Brent Coles, Mayor of Boise, Jaialdi brochure 2000)

Boiseko Jaialdia bost urtean behin Idahoko kapitalean ospatzen den jaialdi euskal amerikarra da. Kanpoan den Euskal Komunitatearekin eta Euskal etxeekin harremana daraman Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzako teknikari baten hitzetan, egun horietan “Boise Euskal diasporaren kapitala bihurtzen da” (Oregi, komunikazoi pertsonala, 2016 urteko otsaila). 4-5 egunetz euskal kultura (dantzak, kirola, musika eta janaria) ospatuko da eta Ameriketan bizi diren euskaldunak protagonistak izango dira. Idahoko euskal komunitatearen gehiengoa bizkaitarrak direnez, Jaialdiak San Inazio egunarakin kointziditzen du. Egun horietan dantza ikuskizunak, musika kontzertuak, bertsolariak, euskal kirolak eta euskal janariaz gozatzeko aukera dago. Gainera, bertako komertzioetan produktu euskal amerikarrak erosteko aukera dago. Jaialdiaren baitan, *Western Idaho Fairgrounds*-en feria antolatzen dute eta Euskal Herritik, Estatu Batuetako beste komunitate batzutatik eta mundu osotik joandako euskaldunek euren komertzioak, produktuak, hala nola,

kamisetak, bitxiak, apaingarriak edota liburuak erosteko aukera dago. Fair-grounds horretan instituzioek ere stand-a jartzen dute, kasurako, Euskal Herriko Unibertsitateak, eta unibertsitateari buruzko informazioa ematen dute kamisetak eta merchandising-a ere. Aipatzekoa da ekintza kulturalaz gain, beste era bateko ekintzak ere burutuko dira, hala nola, ekintza akademikoak edota enpresarialak, diaspora sareak aztertzean ikusiko dugun moduan.

Sorreraz gain, jaialdiak harremanean izan duen garrantzia azpimarratuz, jakin nahi izan dugu jaialdiaren helburuak aldatu badiren sortu zenetik gaur egun arte. John Ysursa-ren hitzetan jaialdiaren helburuetako bat gizarteari euskal kultura edota euskal mundua zer den erakustea da: "It is about trying to really kind of open the doors of the Basque World to the society" (John Ysursa, Boise State Universityko irakaslea eta Boise eta Chinoko euskal komunitatean pertsona aktiboa, komunikazio pertsonala, 2017ko apirila). Egun Jaialdiko antolakuntzaren arduradunetako batek dio berarentzako Jaialdiaren helburua bai gaur eta bai iraganean euskal tradizioaren jaialdia ospatzea dela da eta ezin dela inoiz Jaialdiaren "core"-a edo bihotza galdu gabe (Jaialdiko antolatzaileetako bat, komunikazio pertsonala, 2017ko apirila). Boiseko Museoko zuzendaria den Annie Gavicak dio Jaialdiaren helburua: "To open the Basque culture to Idaho" izan zela. Gaur egun, baita ere kultura elkarbanatzen dela:

"Now it is fascinating. It is showcasing and sharing the culture with people, commercially is like going to a big music festival where people like to experience the music and the food and maybe they don't know anything but they want to experience something cultural (Annie Gavica, NABOko zuzendari ohia eta Boiseko Basque Museum and Cultural Centerreko zuzendaria, komunikazio pertsonala, 2017ko martxoa).

Benan Oregik ere, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritzako teknikaria, euskal kulturaren ospakizun handi bat egitea dela dio: "Baita ere aurreko belaunaldiei omenaldi egitea, eta honekin batera Estatu Batuetako herritarrei ere erakutsiz badela kultura euskal-amerikar bat euren artean bizi dena". Patty Miller ere testimonio hauekin bat dator, bere ustez ere helburua ospakizun kultural bat zen: "The objective was a cultural celebration. Just to celebrate Basque Culture and History". Baina horrez gain beste era bateko harremanak egiteko ere balio izan duela dio: "We had also a University component with speakers from Universities. They coordinate or have something academic and festivities going on. It was a wonderful celebration" (Patty Miller, Boiseko Basque Museum and Cultural Centerreko zuzendari ohia, 2017ko martxoa).

Aurrekoekin ados Jaialdiko antolatzaile den Amy Wrayek ere dio helburua kulturala dela, eta inondik inora ez dela politikoa:

“Purely cultural, no political at all. Some groups from the BC came here, make connections while they are here and they continue with that contact back in the BC. That was something that strucked me. We can help to unite thing that in the Basque Country maybe it couldnt be possible.” (Amy Wray, Jaialdiko antolatzaileetako bat, komunikazio pertsonala, 2017ko martxoa).

Beraz, gehienen hitzetan Jaialdiaren helburua kulturala da, euskal kultura amerikarrei zabaltzea eta ekonomia edo politikarekin inolako harremanik ez duena. Hala ere, onartzen dute, nahiz eta Jaialdiko helburuak horiek izan, beste era bateko harremanak ere egiten direla, adibidez, promozio turistikoa:

“For example, I don’t remember which year it was but when the Basque Government came to the Jaialdi they wanted to meet travel agencies in the area and we invited them to a breakfast and they give them information of tourism” (Patty Miller, Boiseko Basque Museum and Cultural Centerreko zuzendari ohia, komunikazio pertsonala, 2017ko martxoa).

Jaialdiko antolatzaileek eta Eusko Jaurlaritzako ordezkarietako batzuk sakoneko elkarrizketetan esan digute euren ustez Jaialdiko etorkizuna positiboa dela, lan asko egin beharko dela, baina merezi duela. Horren arira, antolatzaileek ondorengoa esaten dutela dio Oregik: “Bi urte behar dira Jaialdia eta hori aurrera eramateko egindako lan guztia ahazteko, baina hirugarren urtean, berriro ere hurrengo jaialdia antolatzeko gogoia sartzen zaizu” (Oregi, personal communication, Febrero 2016).

d) Smithsonian Folklife Festival: “Promoting the Basque Country”

Smithsonian Folklife Festivala bi asteko iraupena duen festibala da eta Smithsonian Institution’s Center for Folklife and Cultural Heritage-k antolatzen du urtero Washington D.C.ko mall-ean. 1967. urtean antolatu zen lehen aldiz eta Estatu Batuetan dagoen ekitaldi kultural ezagunena da. Jaialdi hau ez da beste jaialdien bezalakoa, Estatu Batuetako elkarte batek antolatzen duelako, baina euskal diasporaren presentzia eta partehartzea beharrezkoa izan zen guzti honetan, eta horregatik, hemen sartzea erabaki dugu.

Egindako sakoneko elkarrizketei esker ikusi dugu ekitaldi hau Washingtonen bizi ziren bi euskal amerikarren eskutik hasi zela. Jaialdia martxan jarri zuten pertsonen helburua ez zen inondik inora ekonomikoa izan, euren helburua kulturala izan zen: “When I moved to Washington DC (2005), the Smithsonian was doing Northern Ireland. I remember going to the mall and

thinking this should be us, we need to do this” (Argia Beristain, Boiseko eta Las Vegaseko Euskal komunitateko kide aktiboa eta Smithsonian Folklife Festival martxan jarri zuenatariko bat, komunikazio pertsonala, 2017 urteko martxoa). Euren helburua: “Was the Basques to be in Smithsonian, Euskaldunak be preserve there for years to come”, euskal kultura zabaldu eta etorkizun batean euskaldunen dokumentuak eta euskara Smithsonianeko artxiboetan egotea zen.

Eusko Jaurlaritzak Estatu Batuetan duen ordezkari izandakoaren hitzetan, oso garrantzitsua da azpimarratzea diasporako kideak izan zirela hau martxan jarri zutenak. Diasporaren papera guztiz beharrezkoa izan zela adierazten du, ez bakarrik materiala izan zen zerbaiten moduan (egin zuten lan guztia kontuan harturik) baina baita ere bertan egon ahal izateko egin zuten lan guztia. Talde, elkarte eta zentruentzako dirua irabazteko egun horietan han izateko.

Diasporako kideek lehen kontaktuak egin ondoren Smithsonianeko langileak Euskal Herria, euskal kultura eta Estatu Batuetako euskal komunitatea ezagutzen hasi ziren. Eurretari batzuk, 2015 urtean Boisen antolatu zen jaialdian parte hartu zuten, non NABOko ordezkariak, komunitate horretako euskaldunak eta Euskal Herriko jentea ezagutzeko aukera izan zuten. Totoricagunea, euskal diasporan aditua, jaialdiaren antolakuntzan ere ibili zen eta bere hitzetan, Smithsonianen helburua:

“The objective is to convey to a North-American public the Basque Country’s essential characteristics and the most essential facts about it, framing this information from a social as well as an economic perspective. Doing this effectively meant organising everything from cultural and gastronomic events to commercial and institutional missions” (Totoricagunea, personal communication, October 2016).

We demonstrate that the diaspora networks exerted an influence as a tool in diaspora diplomacy between the two countries. Most authors concur that through public diplomacy it is possible to overcome mistrust between two countries, create relationships and achieve a better image in the public opinion. To do this, society has been highlighted as a player; we are proposing that in the Basque case, this function is also being performed by the diaspora, among other players.

The networks that have been developing over the years have helped to create relations between the two countries by means of diaspora diplomacy: contacts between companies have been encouraged, contacts between cultural groups have materialized, and agreements have been achieved in the academic field by forging closer relations between the two countries, encouraging contacts and guaranteeing agreements with a long-term view. We defend the position that through the networks the diaspora members have consolidated relations between the two countries, by creating a facilitating context for the results that have yet to be seen in other spheres.

Among the networks created for the diaspora we identified five institutional networks: EuskoSare, Pentsamendua, Global Basque Network, Bizkaia Ta-

lent and Basque Diaspora Akademikoa. According to the answers of the survey, 72.2% of people don't know about these networks.

V. WHAT WE DIDN'T EXPECT

While we were doing this work, we found some conclusions that we didn't foresee. Those conclusions are the result of an exploratory study:

12. When we are talking about the Basque diaspora we need refer to 'diasporas,' not 'diaspora,' and in the case of the United States there is not just one Basque community, but many communities with different needs.

As Aikins (2015) once said, when we are talking about the Basque diaspora we cannot talk about one diaspora, but instead must include many diasporas. With our research we can demonstrate that this statement is true and that just in the case of the Basques living in the United States, we can find different diasporas. As Cohen said (2008) depending on the reasons why they emigrate, different kinds of diasporas are created and, because of that, different ways to organize and maintain a relationship with the home country are required. While the second+ generation immigrants tend to organize in Basque Centers and physical places, first or new generations don't normally own a physical place. They sometimes rent a place or they gather at different places such as universities, bars or restaurants. That shows a difference in the way they organize. Apart from that, the relationship with the home government and what immigrants need from their home country will differ also depending on the generation. Second+ generations will probably want to know more about dances, will spend time learning the Basque language, or will want to know more about history and tourism in the homeland; first generation migrants might prefer to learn about academic relations, how to obtain a visa or which enterprises are searching for talent abroad. This shows that the characteristics and the necessities are different depending on the generations and that, evidently, we need to talk about Basque diasporas and not just a Basque diaspora. And this being the case, we propose that the Basque Government should take that into account and adjust the activities directed to the Basque collectivities abroad to account for that new necessity.

We confirm that depending on the generation and the geographical location, the ways the members of the Basque diaspora have to communicate with the Basque Country and their consumption of media also differs. Additionally, the way those communities have to organize, maintain their Basque identity, and create diaspora networks also differs.

The majority of the Basque survey respondents (41%) living in the west are third generation and in Florida (52%) and the East Coast (47%) the majority are first generation. Because of that, the relation they have with the home country, the communication tools, the activities they organize and the diaspora networks that are created with the Basque Country thanks to them are different.

All the communities say that they follow the news of the Basque Country; this includes the West (77%), East (90%) and Florida (91%). In the West, the newspapers that they consume the most are *El País* (14%), *Berria* (14%) and *Diario Vasco* (13%); in the East *El País* (33%), *Diario Vasco* (30%) and *El Correo* (26%); and in Florida *Berria* (29%), *Deia* (19%) and *El Correo* (19%).

There are also differences in the activities they take part in. In the West the majority of the answers say that they take part in activities related to food (60%) or that they cook Basque food, followed by dance or taking part in dancing groups (33%), and finally music (31%). In the East the food is also the first answer (61%), followed by language (29%) and music (22%); and finally, in Florida, first thing is sport (83%), (which is obvious, taking into account that the majority of them are active or retired Jai Alai players), and then language (67%) and food (58%).

VI. FUTURE RESEARCH

13. Lack of studies about the role of women, Basques in Florida, radio programs from the diaspora, diaspora 2.0, economic impact of the Basque diaspora for the Basque Country

We found that there are almost no feminist studies about the Basque diaspora. There are some studies in which the role of the women is mentioned but no whole studies about women and the Basque diaspora.

Apart from that, the media from the diaspora is almost never studied. Studies about some newspapers and Basque magazines have been

done, but there is no scholarship focusing on the radio programs that were or are created abroad.

Finally, there are studies about Basques in New York, Boise, Nevada, Cuba, Australia...but there is no study about the Basques in Florida.

***Ondorioak euskaraz**

I. EUSKAL DIASPORAREN EZAUGARRIAK AMERIKETAKO ESTATU BATUETAN

1. Estatu Batuetan bizi diren diasporako kide gehienak Bizkaikoak eta bigarren belaunaldikoak dira.

Tesi lan honekin hasi ginenean uste genuen Estatu Batuetan bizi diren euskaldunen gehiengoak hirugarren belaunaldikoak direla, hau da, euren aitxitxe edo amona izan zela kontinente berrira joan zena. Datu hauek izateko era bakarra Estatu Batuetako errolda edota euskal etxeek jasotako datuak dira. Orain emango ditugun datuak ikerketa honetarako zabaldu genuen inkesta batekoak dira eta horregatik argi izan behar da ez direla Estatu Batuetako euskaldun guztiei buruzko datuak. Estatuaren arabera datuak desberdinak diren arren Estatu Batuetan dauden euskaldunen gehiengoak bigarren belaunaldikoak dira, hau da, euren gurasoetariko bat da Euskal Herriatik Estatu Batuetara joan zena, eta, gehiengoak Bizkaiako probintziakoak dira. Gainera, nahiz eta Euskal Herrian jaio ez izan, euskaldunak direla sentitzen dute, eta ikerketarako egindako inkestaren ia %100ak hori dio. Euskaldun izate horrek ez du esan nahi amerikar sentitzen ez direnik, hau da, euren hitzetan bi identitateak izatea posible da eta euren kasuan hori gertatzen da asko euskal amerikar edo amerikar euskaldun sentitzen direla.

Euskaldun sentimendu hori ez da Estatu Batuetan bakarrik gelditzen, eta, horregatik, ugari dira Euskal Herria bisitatu duten diasporako kideak, erantzunen arabera %80,8ak bisitatu du inoiz. Euskal Herria bisitatu izanaren arrazoiak familia eta kultura dira, baina baita ere turismoa egiteko gogoak. Gehiengoak Euskal Herriarekin lotura bat du eta hori lehenengo familiagatik (%91,4), bigarren kulturagatik (%72,4) eta hirugarren identitateagatik (%67,7) da.

Sentimendu eta identitate mantentze horretan eragin handia dute, batez ere, diasporako kideek antolatzen dituzten aktibitate eta ekin-

tzak. Bigarren generaziotik aurrera edota Euskal Herriarekin zuzeneko lotura galdu eta gero, diaspora ekintzak: dantza elkarteak, euskara klaseak, jaialdiak, kirol eta mus txapelketak, musika taldeek, komunitate bateko kide izateak, euskal identitatea eta Euskal Herriarekin lotura mantentzen laguntzen dute. Gainera, askotan, aitzakia dira Euskal Herriko beste talde edo subjektu batzuekin harremana sortzeko eta horrek ere harremana eta pertenezia sentimendua indartzen du.

II. EUSKAL DIASPORAREN ETA EUSKAL HERRIAREN ARTEKO KOMUNIKAZIO TRESNAK

2. XVIII.mendetik komunikazio instituzional eta ez instituzionala izan da kanpoan bizi diren euskaldunen eta Euskal Herriaren artean eta komunikazio hori mantentzeko interesa bi aldekoa izan da: Euskal Herriarena eta diasporarena.

Ekimen desberdinak burutu dira Euskal Herriko eta diasporako subjektuen eskutik eta hauek norabidearen arabera ordenatu ditugu. Euskal Herriaren eskutik ekimen instituzionalak, komunikabideen lana, gizarteak eta elkarte desberdinek burututako lana dago eta diasporaren eskutik euskal etxeek, elkarte kulturalak edota kideek indibidualki sortutako ekimenak daude.

2.1 Euskal Herriatik bideratutako komunikazio eta harremanean hiru garai identifikatu ditugu: lehen garaia 1937urtetik 1986urtera doa, "Euskal Herria eraikiz" deitu dugu eta Espainiar Gudu Zibiletik 1986 urtera artekoa da: Euskal Etxekin harremana eramango duen zerbitzua sortuko zenekoa. Bigarren garaia urte horretatik 1994ra doana da eta "Lehen pausuak" izenpean jarri dugu. 1994 urtean beste hito garrantzitsu bat eman zen harreman eta komunikazioan, hau da, Euskal Etxe eta Kanpoan bizi diren euskaldunekin dagoen harremana eramango duen 8/1994 Legearen sorrera. Hogeigarren mende amaiera arte diaspora eta Euskal Herriaren arteko komunikazioa, batez ere, ekimen instituzionaletan eta harreman indibidualetan oinarritu da.

Ekimen instituzionalei dagokionez, ordezkartzak, kongresuak eta bisita instituzionalak ziren komunenak eta, harreman familiarrei dagokionez, gutunak, noizbehiniko telefono deiak eta jatorrizko herrira eta familien etxera bisitak. Identifikatu dugun azken garaia 1994urtetik gaur egun artekoa da eta “Finkatutako estrategiak” izena jarri diogu. Garai horretan hasiko dira beste era bateko ekimen instituzionalak gartzen, non, ordezkartzek, kongresuek eta bisita instituzionalak indarra izaten jarraituko duten baina: euskara klaseak atzerrian emateko programak, diru laguntzak kanpoan bizi diren euskaldunei zuzenduak, ikerketa lanak saritzeko diru laguntzak, garapenerako laguntzak etab. ere sortuko diren. 1970 urtetik bazeuden jada euskara ikastaroak Estatu Batuetako euskal etxe batzutan baina diru laguntzak izateak hori indartu eta beste era bateko ekintzak ere antolatzea bideratzen du.

- 2.2 Diasporatik bideratutako ekimenei dagokionez, diasporako kideek euskal etxeak, dantza ikastaroak, euskara klaseak, bazkariak, euskal kirolak, udalekuak eta jaialdiak antolatzen jarraitu arren, ekimen berriak ere dituzte: Interneteri esker sortutako sare sozialetan eta blog-etan presente daude, Euskal Herriaren eta Estatu Batuen arteko sare ekonomikoetan eta akademikoetan aktibo daude eta diaspora sareen parte dira.
- 2.3 Komunikabideei dagokionez, 1997an EITBk nazioarteko telebista kateak jarriko ditu martxan, egunkariak bertsio digitalak aterako dituzte eta diasporako kideek aurretik egingako erreklamoari erantzun eta diaspora medio espezializatu bat sortuko da. Horrez gain, lan akademikoetan igoera bat ikusten da baita ere diaspora protagonista duten dokumentaletan (1998 urtetik 2018ra 36 dokumental zenbatu ditugu diasporari buruz).

Komunikabideen esparruan eboluzio bat ikusi dugu. Tesiarekin hasi ginen urtean lau egunkari digitaletako (Naiz, Berria, Deia eta El Correo) arduradunekin eta Eitb-ren bertsio digitaleko arduradunarekin

elkarrizketak egin genituen eta diasporarekiko joera desberdinak ziztuztela ikusi genuen. Batzuk bazuten jada diaspora euren gaietan sartua edo saiakerak eginda; beste batzuk, ordea, uste zuten ez zela beharrezkoa diasporak Euskal Herriko jendeak zituen interes berak zituelako.

Eitbko bertsio digitaleko arduradunaren hitzetan euskal diaspora ez dute kontuan hartzen albisteak elaboratzean, hemengo audientziari diasporari buruzko albisteak bakarrik interesatzen zaizkio gauza puntualetan (Athletic-en partidua, Boiseko Jaialdia...), eta diasporari buruz albisteak irakurtzeko Euskalkultura.com dago. Hala ere, badituzte euren webgunearen barruan euskal diasporari buruz idazten duten bi blog: A Basque in Boise eta Basque Identity 2.0. Manuel Arroyo, elcorreo.com-eko arduradunak ere antzekoa den zerbait zioen eta euren ustez, hemen argitaratzen dituzten albiste guztiak izan beharko litzateke interesekoak diasporako kideentzako. Diasporako kide batzuen hitzetan honek erakusten du Euskal Herritik ez dagoela diasporarekiko edo eurek burutzen dituzten ekintzekiko interesik, izan ere, gehiago direla Trump-i buruz euskal medioek ematen dituzten albisteak, Estatu Batuetan diren euskaldunei buruz baino.

Bestalde, Grupo Noticias-ak beste estrategia bat erakutsi zigun, Deia egunkariko bertsio digitaleko arduradunak esan zigun ez zutela diasporarentzako propio den atalik baina bai egiten zizkietela elkarrizketak noizik behinean. Jon Ordoñezek, Berria egunkariko bertsio digitaleko arduradunak esan zigun euren albisteak euskaraz dakiten guztiei zuzenduak direla, bai atzerrian bizi edo Euskal Herrian. Gara eta Naiz eko arduradunak esan zigun diasporara bideratutako albisteak izan arren, oso feedback gutxi zutela. Honen arrazoia izan daiteke oraindik ez dutela entzun diasporak zer nahi duen, ineksta bat egin alko lukete hori ezagutzeko.

Hala ere, azken urteetan diasporak komunikabideetan duen presentzia gero eta nabariagoa da, nahiz eta bazeuden diasporari buruzko dokumentalak, azken hiru urteotan gorakada bat izan da eta prime time-an sartu dira diaspora protagonista bezala duten dokumentalak: Origen, Euskalonski, Vascos por el Mundo, eta datorren urtean aterako da Bai, bagara.

Horrez gain, Diasporaren Nazioarteko eguna dela eta, hainbat egunkari eta komunikabidek hori plasmatu dute eta diasporari buruzko albisteak eman dituzte.

Urkullu Lehendakaria lehen aldiz urtero Argentinan ospatzen den Semana Nacional Vascan izan zen 2018an eta horrek ere erantzuna izan du Euskal Herriko eta Argentinako medioetan.

Aipagarria da, beraz, azken lau urteotan (2015-2019) emandako aurre-rapausoak zeintzuk euskal diasporaren eta Euskal Herriaren arteko harremanean bultzada indartsu bat suposatu duten: Euskal Herrian Euskal Diasporaren Nazioarteko Eguna sortu eta ospatu da lehen aldiz, Euskadiko Artxibategian (Bilbon) Euskal diasporaren artxiboa sortzen ari dira, EHU-k Euskal Diaspora Akademikoa sortu da eta diasporari buruzko hainbat dokumental berri sortu dira. Diasporari dagokionez ere, nahiz eta urteetan zehar antzeko ekimenak burutu, ikusi da euren partetik ere interesa dagoela Euskal Herriko sareetan parte hartzeko, Boiseko Jaialdia edo Smithsonian Folklife Festival bezalako nazioarteko jai arrakastatsuak antolatzeko eta harreman transnazonala hainbat esparrutan gauzatzeko.

3. Diasporako kideek familia eta lagunekin harremana dute eta egunero komunikatzeko erabiltzen dituzten tresnen artean sare sozialak eta Whatsapp aplikazioa dira komunenak.

Iraganean diasporako kideen eta Euskal Herrian zuten familiaren eta lagunaren arteko komunikazioa noizbehinkako gutun eta telefono deietan, eta jatorrizko herrira egiten ziren bisitetan oinarritzen zen. 1995 urtean Eusko Jaurlaritzak euskal etxe eta kanpoan bizi ziren euskaldunekin harremana eta komunikazioa errazteko ordenagailuak jarri zituen euskal etxeetan eta horrek ere eragin handia izan zuen harremanean. Eragin hori nabaria izan zen Argentinako euskaldunen eta Euskal Herriaren arteko komunikazioan baina ez hainbeste Estatu Batuetakoen kasuan. Izan ere, Estatu Batuetan bazuten jada askok euren ordenagailua. Estatu Batuetako euskaldunekin zegoen harremanean eragin handia izan zuen, Jaurlaritzan, kasurako, ingelesa hitz egiten zuten langileak jartea.

Komunikatzeko zegoen aniztasun hori aldatu egin da eta hurrengo datuetan teknologia berrien eta interneten eragina ikusi dezakegu. Estatu Batuetan dauden euskaldunen %90ak familia du Euskal Herrian eta %27.8 astero eta %19.4 hilero komunikatzen da bere familia-rekin. Familiaz gain, %66,8ak lagunak ditu eta %24.7 astero komuni-

katzen da eurekin eta %17,1 hilero. Familia eta lagunekin komunikatzeko erabiltzen dituzten medioen artean egunero sare sozialak, Whatsapp-a, telefono deiak eta e-maila daude (orden horretan). Whatsapp-aren erabilera azpimarratzen dute Estatu Batuetan ez delako komuna aplikazio hori erabiltzea eta hau erabiltzen dutenak Europan edo Hego Ameriketara familia edo lagunak dituztelako, kasu honetan, Euskal Herrian. Komunikatzeko erabiltzen dituzten beste metodo batzuen artean azpimarratzen dituzte Skype, Facetime eta Instagram bezalako beste sare sozial batzuk eta bisita pertsonalak.

4. Euskal diaspora digitala existitzen da eta oso aktiboa da.

2010 urtean Pedro Oiarzabalek ondorengoa esan zuen: In 2010 Pedro Oiarzabal said that: "Although it is not wise to prognosticate about any future trends of the Basque diaspora presence on the Web, evidence shows an increasing tendency for articulating an online presence." (Pedro Oiarzabal, 2010:339). 8 urte geroago, ikusi dateke euskal diaspora mundu digitalean presente dagoela eta gainera oso aktiboa dela. Ia munduko euskal etxe guztiek dute Facebook-en profila eta horietatik asko Instagram sare soziala ere erabiltzen dute. Horrez gain, dantza taldeek ere Facebook orriak dituzte eta horiek erabiltzen dituzte euren bideoak elkarbanatu edota munduan dauden beste euskal dantza talde batzuekin komunikatzeko, berdina gertatzen da beset era bateko elkarte kulturekin (musika talde, kirol talde etab.)

Ez dugu euskal etxeen kopurua zenbatu baina badakigu euskal etxe, dantza talde, jatetxeen kopuru handi bat mundu digitalean presente daude. Honen adibide da, gure ikerketa aurrera eramateko martxan jarri genuen inkestaren distribuzioa. Distribuzio gehiena online egin genuen eta, batez ere, sare sozialak erabiliz eta hiru hilabetetan ia 430 pertsonen erantzuna izan genuen. Honek erakusten du, oso aktibo daudela eta Euskal Herriko gazetan parte hartzeko gogoia dutela.

5. Estatu Batuetako euskaldunek Euskal Herriko egunerokotasuna (albistek) jarraitzen dute (dituzte) eta horretarako sare sozial, egunkari digitalak eta harreman interpertsonalak erabiltzen dituzte.

Estatu Batuetan bizi diren euskaldunek Euskal Herriko albisteen berri izan nahi dutela baieztatu da eta informazio hori, batez ere, egunkari digital eta sare sozialen bidez egiten dutela. Inkesta erantzun dutenen %79.2ak Euskal Herriko albisteak jarraitzen ditu. Egunero erabiltzen dituzten medioen artean sare sozialak, egunkari digitalak eta harreman interperstonalak daude (orden horretan). Gehien kontsumitzen dituzten egunkarien artean daude Diario Vasco, El País eta Berria.

Nahiz eta EITBren Nazioarteko Telebista kateak sortu zirenean hauek izan euskal diasporarekin komunikazioa mantendu eta euskal identitatea indartzeko medio, azken hamarkadan Internet eta sare sozialen indarra gero eta handiagoa da komunikazio munduan eta horren adibide da Estatu Batuetako diasporako kideek egiten duten Euskal Telebistaren kontsumoa. Euskal Herriko albisteak jasotzeko egunero erabiltzen dituzten medioen artean egunkari digitalak eta sare sozialak dauden bitartean, erantzunen %20ak bakarrik esaten du Euskal Telebista kontsumitzen duela.

6. Euskalkultura.com: euskal diasporaren medioa.

Bozdag, Hepp eta Suna-k (2012:96) diote “diaspora medioak” direla migranteek egin, haiei zuzendu eta beraien komunitatearen intereseko gaiak jorrazten dituztenak. Euskal diasporaren kasuan Euskalkultura.com-ek betetzen du lan hori. Euskal Herritik bideratu baina diasporako kideetatik ere edaten du eta informazioa jasotzen du euren eskutik. Georgiouk (2005) dio diaspora medioak medio bat baino gehiago direla eta hainbat autorek (Yin,2013; Johnson, 2000; Jeffres, 1999; Zhand eta Hao, 1999) azpimarratzen dute horrez gain, diaspora medioek identitatea indartzeko eta azpitaldeak batzeko balio dutela. Euskalkultura.com-en kasuan bat gatoz planteamendu horrekin, izan ere, Euskalkultura.com-ek albisteak emateaz gain, diasporako kideen identitatean ere eragina daukala esan dezakegu. Eitb-ren nazioarteko kateen kasuan, Amezagak ere esaten zuen EtbSat edo Canal Vasco bezalako kateek ere eragina zutela atzerrian bizi ziren euskaldunen identitatean. Komunikabide horiek ere diasporarekin komunikatzeko balio dute baina Euskalkultura.com-en diasporako kideak idazten dizute albiste batzuk, eurek bidaltzen dute askotan informazioa eta eurentzako eta eurei buruz propio eginiko informazioa da. Beraz, euskal diasporaren hedabidea dela esan dezakegu.

III. HARREMAN PUBLIKOAK EUSKAL HERRIAREN ETA EUSKAL DIASPORAREN ARTEKO HARREMANEAN

7. Harreman publikoetako ekimenak diaspora eta jatorrizko herrialdearen arteko harreman eta komunikazioa indartzeko ezinbesteko tresna dira.

Bai euskal instituzioen aldetik zein diasporako kideen aldetik burutu diren komunikazio tresnen azterketa egitean harreman publikoetako ekimenak, eta, batez ere, kongresuak jatorrizko herrialdetik eta festibal edo jaialdiak diasporatik gako izan dira.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, kongresuak antolatu dira kanpoan bizi diren euskaldunak ezagutu, euren nahi, behar eta desioak entzun eta gerturaketa bat izateko. Diasporako kideak antolatutako picnic, jaialdi eta festibalak, ordea, komunitatea eta identitatea mantendu eta eus-kaltasuna gizarte amerikarrari erakusteko bide izan dira.

Agirrereren Gobernuak antolatu zuen lehen kongresua 1956 urtean Parisen eta ordutik hainbat kongresu antolatu izan dira. 1982an Garaikoetxearen gobernuko Kultura Sailak antolatu zuen Donostian eta 1995 urtetik aurrera kanpoan den Euskal Komunitate eta euskal etxe-entzako zuzendaritzak lau urtean behin antolatzen duen Euskal Kolektibitateen Mundu Biltzarra.

Diasporaren eskutik, XX. mende hasieratik badago jada picnic-ak antolten zirenaren konstantzia eta askok lehen jaialdi edo festibala bezala izendatzen dute 1959 urtean Sparks-en (Nevadan) ospatu zena. 1959 urteko festibal horretatik, hainbat dira urtero Estatu Batuetako leku desberdinetan antolatzen diren jaialdiak, hala nola , Boise (Idaho), Elkon (Nevada), New London (Connecticut), Fresno (Nevada), Winnemoca (x), Ontario (Oregon)...

Jaialdi horietako batzutan Estatu Batuetan dauden euskal komunitateak euren artean ezagutzen dira baina baita ere, munduan zehar dauden euskaldunak eta Euskal Herritik hurbiltzen direnak. Horregatik, ikusten dogu jatorrizko herrialdearen eta diasporaren arteko harremana mantentzeko harreman publikoetako ekimenak ezinbestekoak direla.

8. Jaialdi euskal amerikarrak garrantzitsuak dira diasporako kideentzat.

Euskal diasporak antolatutako jaialdiei dagokionez, XX.mende hasieratik jaialdiak antolatu dira. Horien helburua aldatzen joan den arren %99.8ak uste du jaialdiak garrantzitsuak direla Estatu Batuetan den euskal komunitatearentzat eta %84.9 inoiz izan da jaialdi batea (%65,3 Idahon antolatzen den jaialdiren baten izan da, %61 Nevadan, %52,8 Kalifornian eta %17.9 Utah-n). Horien ondoren euskal jaietara joateko gehien bisitatu diren estatuak dira Wyoming, Washington DC, New York, Oregon, Seattle, Rhode Islan, Connecticut eta Florida (orden horretan). Idaho da jaialdietara joateko gehien bisitatu den estatua eta hori, izan daiteke, bertan antolatzen delako Boiseko Jaialdia, zein erreferente bihurtu den jaialdi euskal amerikarren artean bai diasporako kideentzako zein Euskal Herrian bizi direnentzako.

Jaialdi horiek, kultura ospatzeko eta identitatea mantentzeko leku izateaz gain Estatu Batuetan bizi diren euskaldunak ezagutzeko eta Euskal Herria eta euskal diasporako kideak ezagutzeko leku aproposa da, baita ere, harreman kulturaletatik haratago doazen harreman instituzional, enpresarial eta akademikoak egiteko lekua. Bertara hurbiltzen den jendearen %71.1ak euren komunitateko beste euskaldunekin harremana izaten du jaialdi horietan, %67.7ak Estatu Batuetako beste leku batzuetan bizi diren familia euskaldunarekin,%55.4ak Euskal Herriko euskaldunekin, %30.1ak Euskal Herriko familiarekin, %19.5ak munduko beste leku batzuetako euskaldunekin eta %19.3ak euskaldunak ez direnekin. Honek erakusten du jaialdi hauetan, alde batetik Estatu Batuetako euskaldunekin baina baita ere Euskal Herriko jende eta instituzio ordezkariekin ere harremana izaten dela eta horregatik harreman transnazionalak egiteko leku ere bihurtu dira. Portzentaje batek euskaldunak ez direnekin ere harremana izaten dutela esan du, eta honek euskaldunak eta Euskal Herria zabaltzen du beste gizarte batzuen aurrean. Jaialdi hauetan gehien disfrutatzen dituzten gauzen artean daude janaria, musika eta dantza.

9. 2015 urteko Boiseko Jaialdia.

1987 urtean antolatu zen lehen aldiz Boiseko Jaialdia, 1990 urtetik aurrera, bost urtean behin Boiseko euskal etxeko kideek jaialdi euskal amerikarra ospatzen dute San Inazio eguneko astean. Jaialdi horretan

diasporako kideez gain, Boiseko gizarte ez euskaldunak, bertako enpresak eta politikariek hartzen dute parte. Nahiz eta euskal jai bat izan, Boise eta Idahoko parte bat bihurtu dira eta horrek eragina dauka euskaldunek Idahon eta Estatu Batuetan duten irudian.

2015 urteko jaialdiak hito bat markatu duela esan dezakegu. Urte horretan jaialdian harreman kultural, familiar eta lagunartekoak egiteaz gain, harreman akademiko eta enpresarialak ere egin ziren eta hortik sortu ziren akordioak Estatu Batuak eta Euskal Herriaren arteko harreman transnazionalean ikusi dira.

10. Diaspora komunitatea, harreman publikoetako ekimenen bidez, diplomazia publikoko agente bihurtu da eta eragina izan du Euskal Herriaren eta Estatu Batuen arteko harremanean.

Jaialdi euskal amerikarren helburua euskal komunitatea batu, identitatea mantendu eta euskal kultura ospatzea bada ere, esan daiteke beste era bateko helburuak ere lortu dituztela. Jaialdiak antolatzen diren lekuetan udaletxeak, gizarte amerikarrak, enpresa eta elkarte desberdinek (ez bakarrik euskaldunek) parte hartzen dute eta horrek erakusten du, ekimen hauek, kulturaz haratago dauden harremanak sortzeko balio dutela. Gainera, jaialdi hauek duten arrakasta dela eta, Estatu Batuetako medioetan presente daude, eta honek, Euskal Herriak Estatu Batuetan duen irudian eragina du.

Diplomazia publikoak, aktore ez gubernamentalen bidez bi herrialderen arteko epe luzeko harremanak lortzea du helburu, euren arteko mesfidatza gainditzea eta izan dezaketen irudi txarrarekin amaitzea. Diasporako kideak aktore ez gubernamental horien papera betetzen dute, eta eurei esker diplomazia publikoko helburuak lortzen direnean, diaspora diplomaziari buruz ari gara. Euskal diasporako kideak jaialdi euskal amerikarrei esker, Euskal Herria eta Estatu Batuetan arteko ateak zabaltzeko aukera izan dute eta horrela ikusi da Boiseko Jaialdiarekin, Smithsonian Folklife Festivalarekin edota New Londonen ospatutako euskal jaiarekin.

IV. DIASPORA SAREAK

11. Diaspora sareen artean diasporatik edo diasporarentzako sortuak identifikatu ditugu eta diasporako kideen eskutik sortutako sareak diasporarentzako sortutakoak baino erantzun positiboagoak dituzte.

Euskal diaspora sareak aztertzean diasporatik sorturiko sareak eta diasporarentzako sorturikoak daude. Diasporatik sortutako sareak, kasu honetan, familiarrak, kulturalak, enpresarialak eta akademikoak dira eta horien arabera era bateko edo beste bateko harremanak sortuko dira esparru horietan.

Ikerketaren arabera diaspora sareak harreman familiar eta kulturetan hasi eta beste era bateko harremetara heldu daitezke, kasurako, harreman enpresarial edota akademikoetara. Sare hauek, hasieran euskal kultura elkarbanatzeko sortu ziren, eta hortik, beste era bateko harremanak sortu dira. X. mendean boarding houston hasi ziren pertsona-pertsona arteko harremanetatik, ikusi dugu herrialdeen arteko harremanak lortu direla.

Beste hainbat herrialdek bezala euskal diaspora eta Euskal Herriaren arteko harremana eta komunikazioa hobetzeko diaspora sareak sortu dira. Sare horien artean badaude diasporatik sortuak eta diasporarentzako sortu direnak. Diasporatik era naturalean sortu diren sareak era inkonziante baten sortzen dira harreman familiar, lagun arteko eta kulturetatik hasi dira eta beste era bateko harremanak izatera heldu arte. Sare horiei esker harreman transnacional familiarrak, kulturalak, enpresarialak eta akademikoak sortu dira eta lau sare horiek batu egiten dira jaialdi euskal amerikar batzutan, adibidez, Boiseko Jaialdian. Aurreko ondorioekin loturik, esan dezakegu, jaialdietan harreman transnacionalak garatzen direla.

Diasporarentzako propio sorturiko bost sare identifikatu dirugu: EuskoSare, Pentsamendua, Global Basque Network, Bizkaia Talent eta Basque Diaspora Akademikoa. Sare instituzionalak ez dira hain eza-gunak diasporako kideen artean eta gure inkesta erantzun dutenen %72.2ak ez ditu ezagutzen.

V. ESPERO EZ GENITUENAK

Tesi lan hau egiten joan garen heinean aurreikusten ez genituen ondorio batzuk atera ditugu. Ondorio horiek ikerketa esploratorio batetik ondorioz-tatu dira eta ondorengo hauek dira:

12. Euskal diasporari buruz ari garenean diaspora bakar bati buruz baino diasporeri buruz hitz egin behar dugu eta zehazki Estatu Batuetako euskal diaspora komunitateari buruz ari garenean euskal diaspora komunitateak daudela esan behar dugu.

Estatu Batuetan dauden euskal komunitateei buruz ari garenean, nabarmendu behar dugu ez dagoela euskal komunitate bakar bat baina hainbat euskal komunitate zeintzuk behar izan eta interes desberdinak izango dituzten.

Baieztaatu daiteke belaunaldiaren eta kokatuta dauden estatuaren arabera, Euskal Herriarekin komunikatzeko eta kontsumitzen dituzten egunkariak desberdinak direla, diaspora bezala beste era batera antolatzen direla eta jatorrizko herriaren eta eurek dauden estatuaren arteko diaspora sareak desberdinak direla.

Estatu Batuetako mendebaldeko estatuetan bizi diren euskaldunen gehiengoa (%41a) hirugarren belaunaldikoa dira eta Ekialdean (%47) eta Floridan (%52) bizi direnak lehen belaunaldikoa. Horrek erakusten digu Euskal Herriarekin duten harremana, erabiltzen dituzten komunikatzeko metodoak, burutzen dituzten ekintzak eta eurei esker sortzen diren diaspora sareak desberdinak direla kokapen geografikoa eta belaunaldia dela eta.

Komunitate guztiek esaten dute jarraitzen dituztela Euskal Herriko albisteak: Mendebalean (%77ak), Ekialdean (%90ak) eta Gloridan (%91ak). Mendebaldean gehien kontsumitzen dituzten egunkariak El País (%14), Berria (%14) eta Diario Vasco (%13) dira, ekialdean El País (%33), Diario Vasco (%30) eta El Correo (%26), eta Floridan Berria (%29), Deia (%19) eta El Correo (%19).

Parte hartzen duten aktibitateen artean ere desberdintasunak daude komunitatearen arabera. Mendebaldean lehenengo janaria (%60) eta gero dantza (%33) eta musika (%31) dira gehien praktikatzeko dituzten ekintzak; ekialdean lehenengo janaria (%61) eta gero hizkuntza (%29) eta musika (%22), eta Floridaren kasuan, lehenengo kirola (%83), gero hizkuntza (%67) eta gero janaria (%58).

VI. ETORKIZUNERAKO

- 13. Ez dago diasporako emakumeei buruz, Floridako euskalduneni buruz, diasporako irratari programei buruz, diaspora 2.0ri buruz eta diasporak Euskal Herrian duen inpaktu ekonomikoari buruzko ikerketarik.**

Euskal diasporaren alorrean emakumeei buruzko ikerketak, Floridan bizi diren euskalduneni buruzko sakoneko ikerketak, Diaspora 2.0ri buruzko ikerketak, diasporako Irrati programei buruzko ikerketak eta euskal diasporak Euskal Herrian duen inpaktu ekonomikoari buruzko ikerketak falta dira.

ITURRIAK

Lehen eskuko iturriak

Primary sources

37 Taula: Sakoneko elkarrizketak / In depth interviews

PERTSONA	NOLA	GAIA	NOIZ eta NON
EUSKAL DIASPORAKO KIDEAK / BASQUE DIASPORA MEMBERS			
1	Amy Hormaechea Wray and Rod Wray(Boiseko Jaialdiko antolakuntzakoak)	Aurrez aurre	Boiseko Jaialdia 2017ko martxoa Boisen (ID)
2	Ana Mendiola (Boiseko diasporako kide, jaialdiaren antolakuntza)	Aurrez aurre	Euskal komunitatea Idahon, Boiseko Jaialdia 2017ko martxoa Boisen (ID)
3	Gloria Totoricaguena Diasporako kide+ Euskal Herriaren eta Euskal diasporaren arteko harremanetan lanean aritua	Aurrez aurre	Orokorra 2016/10/15 Boisen (ID)
4	Argia Beristain Basque Soccer Friendlyko antolatzailea Smithsonian Folklife Festivalekin lehen kontaktuak egin zituen diasporako kidea	Aurrez aurre	Orokorra, sakondu Smithsonianen 2017/03/26 Boisen (ID)
5	Xabier Zubillaga (Necocheako Euskalduna)	e-mail	Argentinako diaspora, Euskal Aste Nazionala 2016/11/07
6	Mikel Ezkerro (Argentinako Euskalduna)	e-mail	Argentinako diaspora, Euskal Aste Nazionala 2016/11/28
7	Maite Maisterrena (Kalifornia)	e-mail	Udalekua NABO 2017/08/31
8	Kate Camino (Nevada)	e-mail	Udalekua NABO 2017/08/27
9	Juanchi Yaicomo (Argentina)	e-mail	Hator Hona Necochea 2017/08/21
10	Paula Berasain (Argentina)	e-mail	Udalekua Chascomus 2017/07/21
11	Henar Chico "A Basque in Boise" (Boise)	e-mail	BLOG 2017/06/12
12	Anne Marie Chiramberro "Hella Basque" (San Francisco)	Aurrez aurre	BLOG 2017/07/11 Bilbon (EH)
13	Martina Larraza (Argentina)	E-mail bidez	Komunikabideak, diaspora sareak, antolakuntza 2016/05/23
14	Paula Berasain (Argentina)	E-mail bidez	Komunikabideak, diaspora sareak, antolakuntza 2016/05/23
15	Imanol Salazar (Argentina)	E-mail bidez	Komunikabideak, diaspora sareak, 2016/05/20

			antolakuntza	
16	Maitén Pincheira (Argentina)	E-mail bidez	Komunikabideak, diaspora sareak, antolakuntza	2016/06/01
17	Itxaso Cayero (Boise)	E-mail bidez	Komunikabideak, diaspora sareak, antolakuntza	2016/06/06
18	Arantzazu Urbieta (Argentina)	E-mail bidez	Komunikabideak, diaspora sareak, antolakuntza	2016/05/26
19	Graciana Koehler (Argentina)	E-mail bidez	Komunikabideak, diaspora sareak, antolakuntza	2016/06/01
20	Al Erkiaga (NABO, Oinkari, Boiseko Jaialdi eta Boiseko hainbat elkarte eta erakundetako sortzaileetako bat)	Aurrez aurre	Boise eta Idahoko Euskal komunitatea, komunikazioa, sareak	2017/04/10 Boisen (ID)
21	Ana Mendiola (Boiseko Jaialdiko arduraduna)	Aurrez aurre	Boise eta Idahoko Euskal komunitatea, komunikazioa, sareak	2017/04/11 Boisen (ID)
22	Anita Anakabe(Elkoko Euskalduna)	Aurrez aurre	Idahoko eta Nevadako Euskal komunitatea, komunikazioa, sareak	2017/03/13 Boisen (ID)
23	Aita Antxon Eiguren	Aurrez aurre	Boise eta Idahoko Euskal komunitatea, komunikazioa, sareak	2017/04/03 Boisen (ID)
24	Annie Gavica(NABOko zuzendari ohia eta Boiseko Euskal Museoko zuzendaria)	Aurrez aurre	Boiseko eta Nevadako euskal komunitatea, komunikazioa eta sareak	2017/04/10 Boisen (ID)
25	Argia Beristain(Boise Stateko langilea eta Euskal Herria eta Euskal diasporaren arteko harremanetan erreferente)	Aurrez aurre	Idahoko, Nevadako eta Seattleko Euskal komunitatea, komunikazioa, sareak	2017/03/15 Boisen (ID)
26	Gloria Totoricaguena (Euskal diaspora gaietan erreferente akademia mailan)	Aurrez aurre	Estatu Batuetako Euskal komunitatea, komunikazioa, sareak	2017/03/31 Boisen (ID)
27	Patty Miller (Boiseko Euskal MUSeoko zuzendari ohia)	Aurrez aurre	Boise eta Idahoko Euskal komunitatea, komunikazioa, sareak	2017/03/23 Boisen (ID)
28	John Ysursa (Boise Stateko Basque Studiesko arduradun ohia)	Aurrez aurre	Idahoko eta Kaliforniako Euskal komunitatea, komunikazioa, sareak	2017/04/10 Boisen (ID)
29	Miren Rementeria Artiach (Pete Cenaruzaren, Idahoko Estatu Idazkariaren idazkaria izandakoa)	Aurrez aurre	Boise eta Idahoko Euskal komunitatea, komunikazioa, sareak	2017/03/10 Boisen (ID)
30	Teresa Franzoia (Basque MUSEum and Cultural Centerreko langilea, Oinkari dantza taldeko kidea)	Aurrez aurre	Boise eta Idahoko Euskal komunitatea, komunikazioa, sareak	2017/04/13 Boisen (ID)
31	Amy Ormaetxea (Boise)	Aurrez aurre	Basque affinity diaspora	Boisen (ID)

	Anita Anakabe (Boise)	Aurrez aurre	Basque affinity diaspora	Boisen (ID)
	Argia Beristain (Boise)	Aurrez aurre	Basque affinity diaspora	Boisen (ID)
	Gloria Totoricaguena (Boise)	Aurrez aurre	Basque affinity diaspora	Boisen (ID)
	Patty Miller (Boise)	Aurrez aurre	Basque affinity diaspora	Boisen (ID)
	Teresa Franzoia (Boise)	Aurrez aurre	Basque affinity diaspora	Boisen (ID)
32	Olatz Zubia (Donostia Boisen)	Aurrez aurre	Basque affinity diaspora	Boisen (ID)
33	Renne Rohman (Boise)	Aurrez aurre	Basque affinity diaspora	Boisen (ID)
34	Rod Wray (Boise)	Aurrez aurre		Boisen (ID)
35	Gillian Wigglesworth (Boise)	Aurrez aurre		Boisen (ID)
36	Matt Wigglesworth (Boise)	Aurrez aurre		Boisen (ID)
37	Tara Eiguren (Boise)	Aurrez aurre		Boisen (ID)
38	Brian Meabebasterretxea (Boston)	Aurrez aurre	Florida eta Bostoneko Euskal diaspora	2018ko martxo Boston (MA)
39	Andrea Jones Berasaluce (Boston)	Aurrez aurre	Massachusseteko Euskal diaspora eta New England Basque club	2018ko martxo Boston (MA)
40	Kattalina Berriochoa (Boston)	Aurrez aurre	Idahoko eta Massachusettsetako Euskal diaspora	2018ko maiatza Boston (MA)
41	Julia Huesa (Boston)	Aurrez aurre	Komunikazioa eta identitatearen mantentzea	2018ko maiatza
42	Juan Jacinto Legarreta (NYC)	Aurrez aurre	Euskaldunak New Yorken	2018ko maiatza-ekaina New York (NY)
43	Anna Mari Agirre (NYC)	Aurrez aurre	Euskaldunak New Yorken	2018ko maiatza-ekaina New York (NY)
44	Anuska Arrieta (Florida)	Aurrez aurre	Euskaldunak Floridan. Pelotariak	2018ko maiatza Miami (FL)
45	Arche (Florida)	Aurrez aurre	Euskaldunak Floridan. Pelotariak	2018ko maiatza
46	Eñaut Salegi (Florida)	Aurrez aurre	Euskaldunak Floridan. Pelotariak	2018ko maiatza

				Miamin (FL)
47	Ibon Aldazabal (Florida)	Aurrez aurre	Euskaldunak Floridan. Pelotariak	2018ko maiatza UPV/EHU (Leioa)
48	Iker Foronda (Florida)	Aurrez aurre	Euskaldunak Floridan. Pelotariak	2018ko maiatza Miamin (FL)
49	Juanito Elejabarrieta (Florida)	Aurrez aurre	Euskaldunak Floridan. Pelotariak	2018ko maiatza Miamin (FL)
	Ruben Bailo (Florida)	Aurrez aurre	Euskaldunak Floridan. Pelotariak	2018ko maiatza Miamin (FL)
53	Igone, Zulaika, Gorane, Isak (Florida)	Aurrez aurre	Euskaldunak Floridan. Pelotariak	2018ko maiatza Miamin (FL)
57	Odei, Leke, Txasio, Emma (Florida)	Aurrez aurre	Euskaldunak Floridan. Pelotariak	2018ko maiatza Miamin (FL)
MEDIO ETA KOMUNIKABIDEAK MEDIA				
58	Mikel Reparaz: EITBko korrespontsala AEBan	e-mail	Boiseko jaialdia	2016/03/05
59	Jon Ordoñez: BERRIA	e-mail	Euskal Komunikabide (digital)ak eta Diaspora	2016/06/14
60	Jose txu Rodriguez: DEIA	e-mail	Euskal Komunikabide (digital)ak eta Diaspora	2016/06/14
61	Manolo Arroyo: El Correo	e-mail	Euskal Komunikabide (digital)ak eta Diaspora	2016/06/07
62	Iñaki Altuna: GARA/ NAIZ	e-mail	Euskal Komunikabide (digital)ak eta Diaspora	2016/06/13
63	Lontzo Sainz: ETB digital	Aurrez aurre	Euskal Komunikabide (digital)ak eta Diaspora	2016/06/01 EITBko egoitza (Bilbo)
64	Jose Felix Azurmendi: nazioarteko EITB	Aurrez aurre	Euskal diaspora orokorrean eta EITB- ren nazioarteko kateak	2017/07/03 Bere Etxea (Algorta)
65	Juan Martin Guevara	Aurrez aurre	ORIGEN saioa	Bilbon
66	Gurtubay	Aurrez aurre	ORIGEN saioa	Bilbon

67	Mariana D'orazio	Aurrez aurre	ORIGEN saioa	Bilbon
68	Eduardo Strauch Urioste	Online	ORIGEN saioa	
69	Joseba Etxarri: Euskalkultura.com	Aurrez aurre	Euskal diasporarekin komunikazioa eta Euskalkultura.com	2017/10/25 Zuatzu Parkea (Donostia)
INSTITUZIOETAKO KIDEAK INSTITUTIONAL REPRESENTATIVES				
70	Benan Oregi. Kanpo Harremanetako teknikaria.	E-mail	Boiseko Jaialdia	
71	Josu Legarreta. Kanpoan den Euskal komunitatearentzako zuzendari ohia	Aurrez aurre	Euskal diasporarekin komunikazioa	2017/05/18 Algorta
72	Ander Caballero: Euskal Herriko ordezkaria Estatu Batuetan	Aurrez aurre	Estatu Batuetako Euskal diaspora	Boston (MA)
73	Ivan Jimenez: Bizkaia Talent.	Aurrez aurre	Bizkaia Talent	Euren egoitza (Parke Teknologikoa)
74	Iñaki Goirizelaia: UPV/EHUko errektore ohia	Aurrez aurre	Orokorra	2016/10/13
EUSKAL HERRITIK HARREMANA DIASPORAREKIN PEOPLE WHO HAVE RELATION WITH THE BASQUE DIASPORA				
75	Elodie Arangaray	e-mail	Udalekua NABO	2017/06/09
76	Pedro Oiarzabal (aditua)	Aurrez aurre	Euskal diasporarekin komunikazioa	Bilbon
BESTE DISPORA BATZUETAKO JENTEA OTHER DIASPORAS				
77	Irena Matovic	Aurrez aurre	Croatian diaspora	2018/03 Boston
78	Irena Raisin	Aurrez aurre	Croatian diaspora	2018/03 Boston
79	Marine Sargsyan	Aurrez aurre	Armenian diaspora	2018/03 Boston
80	Verginie Touloumian	Aurrez aurre	Armenian diaspora	2018/03 Boston
81	Youly Panagoula Diamanti-Karanou	Aurrez aurre	Greek diaspora	2018/02 Boston
82	Xenia Zymaris	Aurrez aurre	Greek diaspora	2018/03 Boston
83	Kleanthi Mavrogiannaki	Aurrez aurre	Greek diaspora	2018/03 Boston

Iturria: norberak egina

Bibliografía / Bibliography

A

- ABRAMSON, Y. (2017). Making a homeland, constructing a diaspora: The case of Taglit-Birthright Israel. *Political Geography*, 58, 14-23.
- AGUIRRE, A., & SAN SEBASTIÁN, K.(2018). *Newyorktarrak : Origen de la comunidad vasca de nueva york, 1880-1955* (Urazandi, 30). Vitoria: Gobierno Vasco = Eusko Jaurlaritza.
- AGUNIAS, D. R., & NEWLAND, K. (2012). *Developing a road map for engaging diasporas in development: A handbook for policymakers and practitioners in home and host countries*, Washington: International Organizaton for Migration
- AIKINS, K., SANDS, A., & WHITE, N. (2009). *The global irish making a difference together: A comparative review of international diaspora strategies*. Dublin: Impress Printing Works
- AIKINS, K., & WHITE, N. (2011). *Global diaspora strategies toolkit*. Dublin:Impress Printing Works
- ALDECOA LUZARRAGA, F., & KEATING, M. (2001). *Paradiplomacia: las relaciones internacionales de las regiones*. Madrid:Marcial Pons
- ALONSO, A., & OIARZABAL, P. J. (2010). *Diasporas in the new media age: Identity, politics, and community*. Reno: University of Nevada Press
- ALONSO, A., ECHEVERRÍA, J., & OIARZABAL, P. J. (2011). *Knowledge communities*. Reno:Center for Basque Studies.
- ÁLVAREZ GILA, Ó. (1995). Debates y notas de investigación. La formación de la colectividad inmigrante vasca en los países del Río de la Plata (siglo XIX). *Estudios Migratorios Latinoamericanos*, 10(30), 299-332.
- ÁLVAREZ GILA, Ó. (1998). *Misiones y misioneros vascos en Hispanoamérica:(1820-1960)*. Bilbao: Labayru Ikastegia.
- ÁLVAREZ GILA, Ó. (1999). Clero vasco y nacionalismo: del exilio al liderazgo de la emigración (1900-1940). *Prohistoria: historia, políticas de la historia*, (3), 159-176.
- ÁLVAREZ GILA, Ó & MORALES, A. A. (EDS.). (2002). *Las migraciones vascas en perspectiva histórica (siglos XVI-XX)*. Universidad del País Vasco: Servicio Editorial.
- ÁLVAREZ GILA, Ó. (2005). De “América y los vascos” a la “octava provincia”: 20 años de historiografía sobre la emigración y presencia vasca en las Américas (siglos XIX y XX). *Vasconia*, 34, 275-300.
- ÁLVAREZ GILA, Ó. (2010). ¿Vascos o Euskaldunak?: una aproximación al papel del Euskara en la conformación de las Colectividades vascas de América, siglo XIX. *Sancho el Sabio*,32, 71-84.

- AMEZAGA, J. (2004). Televisión por satélite en el mundo: nuevos retos para las viejas lenguas. *Portal de la Comunicación de Universitat Autònoma de Barcelona*.
- AMEZAGA, J. (2004). Linguistic space: satellite television and languages around the world and in the European Union. *Mercator Media Forum* Vol. 7, No. 1, pp. 66-85. University of Wales Press.
- AMEZAGA, J. (2006). New uses for old needs in the diaspora: Watching Basque television in latin America. *Journal of International Communication*, 12(2), 52-69.
- AMEZAGA (2007). Geolinguistic regions and diasporas in the age of satellite television. *International Communication Gazette*, 69(3), 239-261.
- ANCIEN, D., BOYLE, M., & KITCHIN, R. (2009). Exploring diaspora strategies: An international comparison, Workshop [http://eprints.maynoothuniversity.ie/2053/1/RK Exploring Diaspora Strategies International Comparison.pdf](http://eprints.maynoothuniversity.ie/2053/1/RK_Exploring_Diaspora_Strategies_International_Comparison.pdf)
- ANCIEN, D., BOYLE, M., & KITCHIN, R. (2009). The scottish diaspora and diaspora strategy: Insights and lessons from ireland. *Europe and External Affairs-Social Research*, http://eprints.maynoothuniversity.ie/2172/1/RK_0081838.pdf
- ANTHIAS, F. (1998). Evaluating diaspora': Beyond ethnicity? *Sociology*, 32(3), 557-580.
- ARANA, E., AMEZAGA, J., & AZPILLAGA, P. (2010). *Euskarazko hedabideak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- CAMUS, M. (1991). *La inmigración vasca en Chile 1880–1990*. Santiago, Gobierno Vasco, *Eusko Etxea–Chile*, Eusko Jaurlaritza: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- ARRIETA, L., & RODRÍGUEZ RANZ, J. A. (1998). *Radio Euskadi , la Voz de la Libertad*. Bilbao: Fundación Sabino Arana.
- AZCONA PASTOR, J. M., RONDA, F. M., & DE BIEDMA, I. G. A. A. (1992). *Historia de la emigración vasca a Argentina en el siglo XX*. Vitoria-Gasteiz: Servicio de Publicaciones del Gobierno Vasco.

B

- BAETA, M., NÚÑEZ, C., CARDOSO, S., PALENCIA-MADRID, L., PIÑEIRO-HERMIDA, S., ARRIBA-BARREDO, M., ET AL. (2015). Different evolutionary history for basque diaspora populations in USA and argentina unveiled by mitochondrial DNA analysis. *PloS One*, 10(12), e0144919.
- BASER, B., & SWAIN, A. (2010). Stateless diaspora groups and their repertoires of nationalist activism in host countries. *Journal of International Relations*, 8, 38-60.

- BELLAMY, C., & WEINBERG, A. (2008). Educational and cultural exchanges to restore America's image. *Washington Quarterly*, 31(3), 55-68.
- BELLOTTI, E. (2014). *Qualitative networks: mixed methods in sociological research*. London:Routledge, .
- BEN-RAFAEL, E. (2013). Las diásporas transnacionales:¿ una nueva era o un nuevo mito? *Revista Mexicana De Ciencias Políticas y Sociales*, 58(219), 189-223.
- BERNAL, V. (2005). Eritrea on-line: Diaspora, cyberspace, and the public sphere. *American Ethnologist*, 32(4), 660-675.
- BERNAYS, E. L. (1997). *Cristalizando la opinión pública: Un libro para relaciones públicas, empresarios, economistas...* Gestión 2000,pag.127.
- BIAO, X. (2005). *Promoting Knowledge Exchange through Diaspora Networks (the Case of People's Republic of China)*. Oxford: Centre on Migration.
- BIETER, J. P. (1994). *Basques, basque-americans, american-basques: Three generations in Boise, Idaho*. Thesis dissertation, Boise State University.
- BIETER, J., & BIETER, M. (2003). *An enduring legacy: The story of basques in idaho*. Reno: University of Nevada Press.
- BIETER, J., LACHIONDO, D., YSURSA, J., BURKE, L., MILLER, P. A., & SHALLAT, T. (2014). *Becoming Basque: Ethnic Heritage on Boise's Grove Street*. Boise: Boise State University.
- BILBAO, J., & DOUGLAS, W. A. (1975). *Amerikanuak: Basques in the New World*.Reno: University of Nevada Press.
- BIZKARGUENAGA, K. D., & GARCÍA, R. T. (2015). Transnacionalismo vasco e internet: Análisis del USo de blogs y Facebook en la diáspora. *Revista Guillermo de Ockham*, 13(2), 55-63.
- BLACK, S., & GÓMEZ CERREIJO, E. (1994). *Casos de relaciones públicas internacionales*. Barcelona: Gestión.
- BLANC, C. S., BASCH, L., & SCHILLER, N. G. (1995). Transnationalism, nation-states, and culture. *Current Anthropology*, 36(4), 683-686.
- BOYARIN, D., & BOYARIN, J. (1993). Diaspora: Generation and the ground of jewish identity. *Critical Inquiry*, 19(4), 693-725.
- BOZDAG, C., HEPP, A., & SUNA, L. (2012). Diasporic media as the 'focUS' of communicative networking among migrants. In *Mediating cultural diversity in a globalized public space* (pp. 96-115). London: Palgrave Macmillan.
- BREWER, J., & HUNTER, A. (1989). *Multimethod research: a synthesis of styles*. Thousands Oaks: Sage Publications.
- BREWER, J., & HUNTER, A. (2006). *Foundations of multimethod research: Synthesizing styles*. Thousands Oaks: Sage Publications.
- BRINKERHOFF, J. M. (2008). *Diasporas and Development*. Armonk, NY. ME Sharpe.

- BRINKERHOFF, J. M. (2009). *Digital diasporas: Identity and transnational engagement*. Cambridge: Cambridge University Press.
- BRINKERHOFF, J. M. (2011). Diasporas and conflict societies: conflict entrepreneurs, competing interests or contributors to stability and development?. *Conflict, Security & Development*, 11(02), 115-143.
- BRINKERHOFF, J. M. (2012). Creating an enabling environment for diasporas' participation in homeland development. *International Migration*, 50(1), 75-95.
- BROADBENT, G. (2003). *Emerging concepts in urban space design*. London: Taylor & Francis.
- BROWN, M. (2002). Intellectual diaspora networks: Their viability as a response to highly skilled emigration. *Autrepart*, (2), 167-178.
- BRUBAKER, R. (2000). *Accidental diasporas and external "homelands" in central and eastern europe: Past and present*. IHS Political Science Series 71, October 2000. [Working Paper].
- BRUBAKER, R. (2005). The 'diaspora'diaspora. *Ethnic and Racial Studies*, 28(1), 1-19.
- BUTLER, K. D. (2001). Defining diaspora, refining a discourse. *Diaspora: a journal of transnational studies*, 10(2), 189-219.
- BUTLER, K. D., CANEFE, N., COHEN, R., DOUGLASS, W. A., LAGUERRE, M. S., SAFRAN, W., ET AL. (2007). *Opportunity structures in diaspora relations: Comparisons in contemporary multilevel politics of diaspora and transnational identity*. Reno: Center for Basque Studies Press.

C

- CAMUS, A. (2008). *A historical comparative study of Basque institutions in the United States*. Reno: University of Nevada Press.
- CARO BAROJA, J., ADDIS, K., (2009). *The Basques*. Reno: Center for Basque Studies Press.
- CASTILLO, A. (2010). *Introducción a las Relaciones Públicas*. España: Bely Digital.
- CHALIAND, G., & RAGEAU, J. P. (1991). *Atlas des diasporas*. Odile Jacob.
- CHANDER, A. (2001). Diaspora bonds. *NYUL Rev.*, 76, 1005.
- CHAN TACK, A. M., & SMALL, M. L. (2017). Making friends in violent neighborhoods: strategies among elementary school children. *Sociological science*, 4, 224-248.
- CHEHABI, H. E. (1990). The Components of Composite States and the Conduct of Transfederal Relations. In *Ponencia presentada en la XVI Conferencia Mundial de IPSA. Buenos Aires* (p. 5).

